

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2012-05-11  
EGUBAKOITZA  
508. ZENBAKIA  
12. URTEA  
DOANEKOA  
GOIENA.NET  
TOKIKOM

"Europar  
erraste  
plantak hirien  
erdian daude"



Carlos Ormazabal  
Ingurumen diputatu ohia | 8

Aretxabaletako  
alkatearen  
argibideak

Kiroldegiaren  
adjudikazio prozesua  
argitu gura izan du | 26

GEHIGARRIA, BARRUAN  
Autoen gaineko orrialde bereziak | 19



Harreman: ia 20 urte  
elkartasuna barreiatzen | 10



Gure betiko ipuinak bertsoan jaso  
dituzte, '11 Kantatzeko' DVDan | 32



Udan Londresen jokatuko dituzten Olinpiar  
Jokoetarako sailkatu ostean, egun batzuek  
atseden hartuko du Maider Undak, berriro  
entrenatzen hasi aurretik. | 30

## OLINPIAR JOKOETARAKO TXARTELA ESKUAN, DOMINA IRABAZTEA BURUAN

Maider Unda, Oletako  
baserriko gimnasioan.

IRATI GOITIA

### SINADURAK

	JUAN MARTIN ELEXPURU   6
	6   USDA AGIRRE
	ANDRES OSA 'SAKONA'   14
	25   DORLETA KORTAZAR
	MIKEL IRIZAR   40

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 3 | IRITZIA 6  
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 10 | KIROLA 30  
KULTURA 32 | ZURE IRAGARKIAK 35  
TELEBISTA-IRRATIA 36 | JENDARTEA 37  
ESKELAK 37 | NON-ZER 38



**IKER**

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43  
ONATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48



**Hemen**  
GARBKETAK

943 71 48 45

[www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak,  
obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.



Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORATZA • [hemen@hemen-garbiketak.com](mailto:hemen@hemen-garbiketak.com)

Leticia Domenech | Psikologoa

# "Ikasketa prozesuan nahasmenak dituzten haurren kasuan, funtsezkoa da gurasoak eta hezitzaileak orientatzea"

Psikologia klinikoan doktorea eta neuropsikologian aditua dugu Leticia Domenech, Bergaran bizi den donostiarra; orain, kontsulta ireki berri du Arrasaten, Palacio Mendian.

**Z**eintzuk dira ikasketa prozesuan gerta daitezkeen nahasmenak?

Oinarri neurobiologikoa duten trastornoak dira, ikasketa prozesuan eragiten dutenak. Ohikoa baino adimen txikiagoko eta handiagoko haurrek izan ditzakete zailtasunak: irakurtzeko orduan, portaera kontrolatzeko, irakaslearen azalpenak jasotzean adi egoteko ezintasuna edota hainbat egoera sozial ulertzeko arazoak.

**Zein da alterazio neurobiologiko horien jatorria?**

Gehienetan, transmisio genetikoa izaten da, baina, zenbaitetan, kanpoko faktoreek eragina izan dezakete: tabakoaren edo substantzia toxikoen kontsumoa haurdunaldian, haurrak pisu txikia izatea jaiotzerakoan, buruko traumatismoak, eta abar.

**Zein da nahasmen ohikoena gaur egun?**

Datuen arabera, haur dislexikoak %15 dira. Eta horrek esan nahi du ikasgela bakoitzean, 25 ikasleetatik batek izan ditzakeela irakurtzeko zailtasunak. Hiperaktibitateak eta arreta gabeziak eragindako trastornoaren datuak antzekoak dira gaur egun. Hain zuzen ere, nahiko ohikoa da haur dislexiko batek hiperaktibitateak eta arreta gabeziak eragindako trastornoa ere izatea. Bada, bi problematika horiek batera tratatzen dira.

**Araoari lehenbailehen aurre egitea funtsezkoa izango da, ala?**

Diagnostiko goiztiarra funtsezkoa da, bai, tratamendu egokia abian jartzea ekarriko duelako, eta, horrekin batera, haur horien eskola porrota saihestea. Era berean, trastornoaren ondorioak (autoestimu arazoak, eskola jazarpena eta beste) jasateko arriskuari aurre egin ahal zaio. Arazoa etiketatzea baino, askoz ere garrantzitsuagoa da zailtasunen gainean lanean hastea lehenbailehen.

**Zein izaten da jarraitu beharreko tratamendua ikasketa prozesuko nahasmenetan?**

Neurozientzia arloan ikaragarriko aurrerapenak izan dira, eta horri esker tratamendu ebo-luzionistak ditugu eskura. Hau da, sintomen mekanismoetan eta jatorrian sakon dezakegu. Jato-

rriaren ezagutzagatik lehen diagnostikatzen ez ziren trastornoak diagnostikatzea eta tratatzea ekarri du, autismoarekin gertatzen den moduan.

**Zein da gurasoen zeregina tratamenduan?**

Funtsezkoa da haien papera, gurasoak bilakatzen direlako seme-alaben terapeuta onenak. Ikasketa prozesuan nahasmenak dituzten haurren kasuan, funtsezkoa da gurasoak eta hezitzaileak orientatzea. Kontuan izan nahasmenak dituzten haurrek bigarren mailako arazoak izan ditzaketela; depresioa eta antsietatea, adibidez. Askotan, trastornoaren berri ez izateak hezitzaileen edo gurasoen balorazio okerrak ekartzen ditu: "Haurra ez da saiatzen", "alferra da", eta horrelakoak. Horiek ez dira batera lagungarriak. Aldiz, haurren esfortzua baloratzea eta haiek motibatzea behar-beharrezkoa da. Eta hezitzaileen inplikazioa funtsezkoa da haurrak zailtasunak gainditu eta eskolan aurrera egiteko.

**Heziketa programak nori zuzendutakoak dira?**

Guraso guztiok izan behar genuke heziketa gida bat arazo horien aurrean. Askotan, gurasoek ez dakite nola jokatu eta senezko erreakzioak dituzte, beldur, kasketa, agresibitate edota segurtasun gabeziaren aurrean. Informazio egokia eskura izatea guztiz lagungarria litzateke.

**"Haurraren zailtasunak berehala tratatu behar dira"**

**"Hezitzaileen inplikazioa funtsezkoa izaten da"**



Donostiako fakultatean bere promozioiko lehena izan zen Domenech. | E.M.

## LETICIA DOMENECH PEREZ DOKTOREA

Psikologia kliniko hezitzailea

Palacio Mendia zentro medikoa  
Erdiko kalea 22 • Arrasate  
Tel.: 943 79 72 16

Gurasoentzako programa hezitzaileak • Ikasketen planifikazioa  
Hiperaktibitatea / Arreta defizita • Jarrera aldakuntza  
Dislexia • Ez-hitzezko ikasketen gorabeherak  
Autismoa • Asperger sindromea • Estutasuna - agresibitatea  
Haurren beldurrak • Nerabezaroa eta depresioa  
Eskola-jazarpena...

# Maiatzeko loreek ere badute erregina

Landatzeko urtaro onenean, gura adina aukera daude, eta jende gehienak egin du berea

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Gure herriotako balkoiek eta terrazek, udaberri eta uda osoan, badute erregina bat, loreei dago-kenez behintzat: geranioa (*Pelargonium*). Altuera handiagokoa edo txikiagokoa; gorria, arrosa edo bi koloretakoa; gorantz hazten dena edo behealderantz kas-kada gisa jausten dena... barie-tate handia dago.

Maiatza izanda, udaberriaren erdi-erdia, urteko garairik one-netariko bat da loreak landatze-ko. Horren aitzakiarekin, Oñati-ko Elkar Hezi ikastetxeak uda-berri eta udako landareak zelan zaintzen ikasteko tailerra anto-latu du hilaren 22rako. Oñatiko Aitor Ugarte lorezain eta lora-dendako ugazabak emango du tailerra. Bere esanetan, "aukera oso handia" dago etxean zer lan-datu erabakitzeke, baina, segu-ruenik, loreak dituzten Debagoie-neko etxebizitza gehienetan geranioak aukeratuko dituzte.

## %90ek, gorriak

Ugartek dioskunez, "gehien, gera-nio zonala (*Pelargonium zonale*, *Pelargonium x hortorum*) ipintzen da, gorantz hazten dena". Hosto iluna du eta ez du altuera handia hartzen. Kolore askotako geranioak dauden arren -arrosa, morea, zuriska...-, "hamarretik bederatzik gorriak ipintzen dituzte".

## XVII. mendetik, Europako lore landatuena

Geranioa esaten diogun arren, hori izen orokorragoa da; balkoi eta terrazetan hain ohikoa den lorearen izen zuzena pelargonioa da. Afrika hegoaldekoa da, eta, dirudenez, Herbehereetako Leiden hiria izan zen geranioak izan zituen Europako lehenengo lekua, itsasontziek Esperantza Onaren Lurmuturretik 1600. urtea baino lehenago ekarrita. Handik, oso agudo zabaldu zen Europa osoan eta, askok uste arren Europa mediterranean bakarrik landatu, iparraldean ere oso zabaldua dago.

Hainbeste landatzen da ederra delako eta kolore biziak dituelako. Gainera, oso barietate handia dago: 200 geranio espezie daude. Ura asko gustatzen zaie; ez dago geranioa larregi ureztatzerik. Eguzki ordu asko ere behar dituzte: egunean, gutxienez, sei argi ordu.

Beste geranio mota bat ere nahiko zabaldua dago: huntz-geranioa edo gitanilla (*Pelargonium peltatum*) deitzen zaiona, jauske-ra duena. "Orain motel samar dauden arren, geranio horiek oso handi egiten dira eta, beherantz zabalzerakoan, tapiz antzekoa egiten dute", esaten digu Aitor Ugartek.

## Esker oneko lorea

Geranioa ohiko bista bihurtu den arren, ez da Euskal Herriko espe-ziea, ezta Espainiakoa ere: Hego Afrikakoa da. Hala ere, gaur egun mundu osoan landatzen da, lore apaingarri gisa. Ez da zaintzen batere zaila, lorean egoten da udaberritik udazkenera arte -Debagoienean, apiriletik urrira inguru arte egon daiteke, ohiko urte baten- eta oso ondo agoan-tatzen du eguzki betean zein bero handiarekin ere. Gainera, lurra pobrea denean ere, ondo hazten da eta bizirik iraun dezake.

## Tximeleta kaltegarria

Hala ere, geranioek badute arazo larri bat azken urteotan: izurrite bat, antzematen zaila dena, gainera. Izurrite horren gaineko argibideak emango ditu Aitor Ugartek tailerrean, izan ere, "iaz, batez ere, geranioak zituen jende asko aspertu egin zen, landareak ezin zituelako zaindu".



Aitor Ugarte lorezaina, Oñatiko bere loradenda parean | LEIRE KORTABARRIA

Izurrite hori geranioaren jato-rreri berbera duen tximeleta bat da, eta iaz hainbeste zabaldu zen "udazken epela egin zuelako eta, normalean lau edo bost ziklo izaten baditu, iaz askoz gehiago izan zituelako", azaltzen du Aitor Ugartek.

Tximeletak baditu oso kalte-garri egiten dituen ezaugarri batzuk: "Norbera konturatu ordu-ko, arrautzak ipintzen ditu gera-nioan. Harrak, lehenengo, lore-begi guztiak jaten ditu eta, gero, zurtoin barrura sartzen da eta

handik landare guztia jaten du. Baina, barruan dagoenez, babes-tuta dago". Tximeleta horiek Hego Afrikan badituzte harrapariak, eurak harrapatzen dituzten ani-maliak, baina hemen, ez.

Ugartek honakoa gomendatzen du, eta tailerrera joaten direnei hala erakutsiko die: "Hamabostean behin, intsektizida batekin trata-mendua eman behar zaie, prebe-nitzeko; eta geranio inguruan tximeleta hori ikusi badugu, astean behin egiten hasi. Lana eta dirua da, baina beharrezkoa da".

## FITXA



### DIMORFOTEKA

*Dimorphotheca*

Margaritaren antzekoa da. Lurrean ipinita, urte askoan irauten du. Neguan galdu egiten da, baina atzera piztu egiten da. Lorategietarako da egokia, batez ere.

### GINEAKO BALSAMINA

*Impatiens hawkeri*

Gogorra da, baina gustuko baldintzetan: goizean edo arratsaldean eguzkia, baina egunaren zati handiena, gerizpetan. Oso handia eta ederra egiten da.



### BEGONIA BETI-LOREA

*Begonia semperflorens*

Lore politagoak badaude, baina hau oso gogorra da. Edozein lekutan ipini daiteke. Kanposantura asko eroaten da eta, hainbeste zaindu gabe, urte osoan iraun dezake.

### SURFINIA ETA PETUNIA

*Petunia hybrida*, *Petunia*

Biak oso antzekoak dira; bat gorantz hazten da, eta bestea, beherantz. Prezio oso ona daukate eta edozein lekutan ipini daitezke, baina eguzki larregitik babestuta.



### ZINIA


*Zinnia elegans*

Gutxi jartzen den landarea; batik bat, ortuetan-eta botatzen dira zinia haziak. Lore ederra da, eta ebaki eta gero oso luze irauten du: hilabete inguru.

### HORTENTZIA

*Hydrangea macrophylla*

Oraintxe da hortentsiak ipintzeko garaia. Lurrean landatuta, bizi osorako landarea da. Zakartzen denean, inausi, podatu, eta hurrengo udaberrian berriz emango du lorea.



### ORKIDEA

*Phalaenopsis*

Ureztatzeko, lorontzitik atera eta plater edo ontzi baten ipini, bi behatz uretan. Gau osoan utzi, eta goizean, berriz lorontzian ipini. 10 egunean behin egin hori.

### ARROSA IGOKARIA

*Rosa spp.*

Lore ona atek, burdinazko egiturak... edertzeko, betiere lurrean landatuta, sustrai oso luzeak dituelako. Uda osoan egoten da lorean.



**MAKATZETA**  
Estrategia

On egin deigula janak kalterik ez edanak

ARRAZOLA-ATXONDO (Bizkaia)

Tel.: 94 658 29 31

kontaktua@makatzeta.com

www.makatzeta.com



# Autobus zerbitzu bereziak egongo dira Mundumirarako

Bidaiaren prezioa 1,70 euro da eta 0 eta 12 urte artekoek doan izango dute

**MONIKA BELASTEGI** | ARRASATE  
Maiatzaren 18tik 20rako aste-buruan Mundumira jaialdia izango da Leintza Gatzagan eta Eskoriatzan. Hori horrela, maiatzaren 19an eta 20an autobus zerbitzu bereziak egongo dira Leintz Gatzagara eta Eskoriatzara joateko.

Debagoieneko Mankomunitatetik zerbitzuok erabiltzea gomendatzen dute, autoa etxean lagata, eta gogora ekarri dute ez Leintz Gatzagan ezta Eskoriatzan

ere, ez dela aparkatzeko gunerik egokitu.

Autobus zerbitzuari dagokionez, maiztasun handia izango du eta ordutegia helbide hauetan kontsulta daiteke ordutegia: [www.pesa.net](http://www.pesa.net), [www.turismodebagoiena.com](http://www.turismodebagoiena.com) eta [www.mundumirafesta.com](http://www.mundumirafesta.com).

Prezioari dagokionez, bidaia bakoitza 1,70 euro izango dira -0 eta 12 urte artekoen dohain izango dute-, baina Eskoriatza eta Leintz Gatzaga artekoa salbues-

pena da; joan-etorria kobratuko dute 1,70 euro.

Gainontzeko bidaiak 1,70 euro kobratuko dituzte eta bidaiaren txartela gordetzea komeni da. Izan ere, Eskoriatzara joateko autobusa hartuz gero eta ondoren Leintz Gatzagara igo nahi izanez gero, ibilbidearen azken zati hori ezer ordaindu gabe egin ahal izango da, gidariari txartela erakutsita. Era berean, Leintz Gatzagan Eskoriatzara jaisteko autobusa hartuz gero, eta ondoren



laz Elgetako jaialdian egondako kalejiretako bat. | JULIO CALLEJA

eskualdeko beste herri batera joan nahi izanez gero, txartela gidariari erakutsita tarte hori ezer ordaintzeke egin ahal izango da. Antolakuntzatik aurreratu dutenez, Mundumirako autobusak behar bezala adierazita egongo dira eta ezin izango da txartel bakarria erabili.

## Hiru Tenpluen ibilbidea

Mundumira jaialdiko egitarauaren barruan, Hiru Tenpluen ibilbidea antolatu du Oñatiko Aloña Mendi elkarteak biharko, zapatua. GR-120 ibilbidetik, Loiola, Anti-

guako Ama eta Arantzazu lotuko dituzte -45 kilometroko ibilbidea da-. 06:00etan abiatuko da txangoa -izena ematean zehaztuko dute nondik-. Izena emateko 902 18 14 71 zenbakira deitu behar da.

Bestalde, Mundumirako elastiko solidarioa salgai dago. 24 eurotan dago salgai: Aretxabaletan, Asensio arropa-dendan; Arrasaten, Harreman dendan; Bergaran, Lazkano Kirolak dendan; Eskoriatzan, Hotel Azkoaganean; Leintz Gatzagan, Turismo Bulegoan; eta Oñatin, Juanitosan eta Turismo Bulegoan.

## Oxel Erostarbek zerrendan aurkeztu zirenen eskuetan laga du alkatetza

Legebiltzarra utzi egingo duela ere adierazi du

**M.B.** | ARRASATE

Astelehenean Aralar alderdiko zuzendaritzak Aintzane Ezenarro, Mikel Basabe eta Oxel Erostarbe legebiltzarkideak alderditik kanporatzeko erabakia jakinarazi ostean, eguaztenean Legebiltzarra utzi egingo dutela jakinarazi zuten hiru legebiltzarkideek. Ekainaren 30ean entregatuko dituzte legebiltzarkide aktak. Bien bitartean, orain moduan jarraitu nahi dute.

Eguazteneko agerraldian berretsi egin zuen Aintzane Ezenarro Parlamentuan onartutako ponentzia ez dela "bartzertzailea" eta alderditik kanporatzeko erabilitako arrazoiak eta lantaldearen inguruan esandakoak "gezurak" direla. Gaineratu zuen Aralarren sartu ziren modu berean joango direla: "Guztien arteko elkarrizketa defendatzeko eta praktikatzeko arazoak konpontzeko".

Bestalde, Aralar alderdiko sektore kritiko batek iragarritako Nahia izeneko alderdi berria-

ri dagokionez, zerikusirik ez dutela aurreratu zuen.

Horrekin batera, Oxel Erostarbek jakinarazi du Elgetako alkatetza Aralar-Independentek zerrendan aurkeztu zirenen eskuetan utzi duela, eta tuit batean eskerrak eman ditu "urteotan, batez ere azken asteotan politika beste modu batera egiteko ahalginean babesa, laguntza eta indarra ematearren".

## Alderdiaren esku

Aralarren zuzendaritzak astelehenean jaso zuen Berme Batzordearen erresoluzioa, eta han esaten da hiru legebiltzarkideen jarrera "oso larria" dela, "aslanbladetan hartutako erabakiak betez zuzendaritza honek emandako aginduei men ez egiteagatik". Eta gehitzen du: "Beren burua alderdiaren disziplinatik kanpo uzteaz gainera, alderdiaren printzipioen kontra ere egin dute". Hala, kargua eta Legebiltzarreko bozeramailtza alderdiaren esku uzteko eskatu zieten.

## Oraindik lekua dago uztailean, bi txandatan, Zerainen egingo den udaleku itxian izena emateko

Bergarako Jardun eta Arrasateko Txatxilipurdi euskara elkarteek antolatu dute. 9 eta 12 urte bitarteko gaztetxoendako da eta bi txanda egingo dira: uztailearen 3tik 11ra eta 11tik 19ra. Prezioari dagokionez, 275 euro da, eta, familia ugaria edo Jarduneko bazkide izanez gero, deskontua egingo dute. Izen-ematea maiatzaren 25era arte egongo da zabalik Jarduneko bulegoan (Errotalde Jauregia, kultura etxea) edo 943 76 36 61 zenbakian; eta Arrasaten, Txatxilipurdiren bulegoan (Nafarroa etorbidea 23) edo 943 79 54 46 zenbakian.

**TOYOTA | EuskoAuto**

# ESKAINAZA PAREGABEA

5 AUTO BAKARRIK

DESKONTU  
BEREZIA

%21

AVENSIS

## AVENSIS CROSS SPORT

ADVANCE SKYLINE 124 ZP DIESELA

EGOINTZAREN KONTROLA

SAREKO PARRAKONDA

BUZINA AIRE-IRRATIGAILUA

ALFARDIZKO HARGAILUA

BIDAIA KONTROLA

TOYOTA TOUCH

7 AIRBAG

ETA ASKOZ GEHAGO...

PSP: ~~28.550€~~

DTUA: -6.000€

22.550€

# EuskoAuto

www.euskoauto.toyota.es

BERGARA

Olabarrena, z/g  
Tel: 943 762 385

ELGOIBAR

Olaso industrialdea  
Olaso kalea 23 - Tel: 943 747 417

PASAIA ANTZO

San Markos errepedea 32  
Tel: 902 345 245

OLABERRIA

Karobi industrialdea  
Tel: 943 805 926

# Gipuzkoara zabalduko dute Debagoieneko Zero zabor taldeak egindako dokumentala

'Errausketari ateak ixten' atez atekoa jarriko duen herrietan eman nahi dute

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

*Errausketari ateak ixten* dokumentala Gipuzkoan atez atekoa jarriko duen herrietan erakusteko asmoa dute egileek, Debagoieneko Zero Zabor taldeak. Maiatza eta ekaina bitartean Arrasaten eta Bergaran emango dute eta Tolosan erakusteko harremanetan ere badihardute. Horrez gainera, salgai ere jarri dutela aurreratu dute, Arrasaten, Elgetan, Bergaran eta Oñatin, 5 eurotan.

Dokumentala apirilean egindako Zero zabor Astean aurkeztu zuten. 70 minutuko iraupenarekin, lau hilabeteko lanaren emaitza da eta edukari dagokionez, honela laburtu du Ander Lizarralde taldeko kideak: "Dokumentalean kontatzen da Gipuzkoan badela aspaldi onartu zen hondakinak kudeatzeko plan bat (PIGRUG) eta nola plan hori idatzi zutenak zementuaren sektorearekin guztiz lotuta dauden. Ondorioz, plan hori guztiz

bideratuta dago Gipuzkoan errauskailu bat jartzera. Errausketaren laudorioz betetako idazkia da. Han aipatzen da Zubietako errauskailuan 260.000 tona hondakin erre nahi dituztela, eta horrekin dena esanda dago, Gipuzkoan sortzen den zaborraren %60ari inguruz ari gara-eta berbetan. Eta interes enpresarial horiekin zuzenean lotuta dauden alderdiak hasi zaizkigu jarrera erasokor batekin atez atekoa belzten, 5. edukiontzia loratzen, herri galdeketa eskatzen eta egia erdizko argumentuak plazaratzen".

Horren aurrean, dokumentalaren helburu nagusia "egia erdi horiek eztabaidetan zilegitasunik ez dutela salatzea" dela esan du Lizarralde eta zerrenda luzea dela: "Esaterako, atez atekoaren bilketa garestia dela esaten digute, tratamendu gastuak, hondakinak ondo biltzeak dakartzen diru sarrerak eta errauskailuaren kos-

tua nahita kanpoan utziz; errauskailuek erre ondoren sortzen duten hondakinez bolumenetan hitz egin dute nahasmena sortu nahian, hondakinez betidanik pisutan hitz egin denean; eta lotsagarriena, hainbeste konpostek irteerarik ez lukeela izango esaten digute".

Dokumentala ikusteko jo: <http://www.argia.com/multimedia/dokumentala/errausketari-ateak-ixten> eta <http://www.youtube.com/watch?v=QH-ShMnubN8>.

## Gaur hitzaldia Arrasaten

Gaurtik domekara Donostian egin diharduten Zero Waste Europe Kongresuan parte hartuko duen hizlarietako batek, Joan Marc Simonek, Zero Waste Europe-ko koordinatzaileak, hitzaldia egingo du gaur, egubakoitza, 19:00etan, Arrasateko Arimazubi ikastolako areto nagusian. *Zero zabor esperientzia European* gaia izango du hitzaldia.

# 'Xamar' eta Urbeltzen hitzaldiak bihar Bergarako Idazle Eskolan

M.B. | BERGARA

Begarako Idazle eskolak bi hitzaldi antolatu ditu biharko, zapatua, Idazle Eskolan (Errege Seminarioa). *Xamarrek* eta *Urbeltzek* egingo dute, 09:30ean eta 12:00etan, hurrenez hurren, eta interesa duten guztiak daude gonbidatuta.

*Idazleak irakurle* mintegi sailean antolatu dituzte bi hitzaldiok, *Jatorrian euskara* gaiaren harira.

Lehenengoa *Xamar*-ek -Juan Carlos Etxegoienek- emango du 09:30etatik 11:30etara, *Euskara jendea: gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza* (Pamela, 2006) liburua hizpide hartuta. Euskal Herriko historia eta kulturaren inguruko liburu hori hizkuntz askotara itzulia izan da, bere *Orhipean* bezala.

Eta ondoren, 12:00etatik 13:30era, dantzari eta ikerlari den Juan Antonio Urbeltzen hitzaldia izango da. Urbeltzek



J.C. Etxegoien Xamar. | GOIENA



Juan Antonio Urbeltz. | GOIENA

bere hitzaldia egiteko oinarri hartuko dituen argitalpenak: *Euskal Herria eta Festa* (Elkarlanean, 2004) eta *Danza vasca. Aproximación a los símbolos* (Etor-Ostoa, 2001) dira.

# Presoen eskubideen alde 19an plazara irteteko deia

M.B. | ARRASATE

Herrira mugimenduak maiatzaren 19rako *Goazen plazara* ekimena antolatu du. Euskal presoen eskubideen alde Euskal Herriko herri eta hirietako plazak betetzeko deia egin du, eta sakabanaketarekin amaitzeko eskatu du.

Astelehenean egin zuten agerraldia Donostian eta manifestu bat aurkeztu zuten. Bada, datozen asteetan manifestu horren inguruan ahalik eta babes gehien batzen saiatuko dira herrietan. Horrekin guztiarekin batera, *Goazen plazara* ekimenak pertsona ezagun ugariren atxikimendua ere jaso du, Debagoieneko batzuen izenak aipatzearen: Antxon Mendizabal irakaslea; Andere Arriolabengoa abokatua eta bertsolaria; Ines Osinaga abeslaria, eta Markel Irizar txirrin-dularia.

## Arantzazu-Gomiztegi ibilbide gidatua antolatu dute domekarako

Arantzazu-Gomiztegi ibilbide egokituan barrena izango da eta hiru orduko iraupena izango du. Parketxetik abiatuko da 10:00etan eta doan da. *Gipuzkoa ezagutzeko sei plan* izeneko gida aurkeztu zuten duela hilabete Aldundiak eta Kutxak. Gidan proposatutako planak bertatik bertara ezagutzeko irteerak antolatzen dihardute, domekakoa, esaterako.

Bestalde, bailarako herrietan ere hasi dira dagoeneko hilaren 19rako ekintzak prestatzen. Arrasaten, esaterako, gutxienez zazpi orduz bete nahi dute plaza eta ekintza ugari prestatu dute. Aretxabaletan kalejira eta bilkura egingo dituzte.



TXOMIN MADINA

# Hiri hondakin kudeaketa integrala hizpide

Interes handia piztu zuen EAJK antolatuta Carlos Ormazabal Ingurumen diputatu ohiak Bergaran egindako hitzaldiak. Hiri hondakin kudeaketa integralaren faseak azaldu zituen, besteak beste.

## T. DE ARANZADI IKASTOLA KOOP. ELK.aren OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Gure kooperatibaren Baltzuaeren estatutuen 25 artikuluan ezarritakoaren arabera, Aranzadi Kontseiluak T. DE ARANZADI IKASTOLA, KOOP. ELK.aren Ohiko Batzar Nagusira dei egingo du. Batzarra 2012ko maiatzaren 23an egingo da, arratsaldeko **seietan** lehen deialdian eta, hala balegokio, **sei eta erdietan** bigarren deialdian, Bergara herriko Herrilagunak kaleko **Aranzadi Ikastolan**.

### GAI-ZERRENDA

1. Akta onartzeko kideak izendatzea
2. Aurreko bilkurako aktaren onarpen txostena irakurtzea
3. 2011/12 ikasturteko memoria
4. 2012/13 ikasturteko egitasmoa
5. 0-6 zikloaren ezarpena
6. Elkartasun kuxako kooperatiba berriaren bazkidetza erabakitzea
7. 2011 urteko kontuen kudeaketa aztertu eta, hala balegokio, onestea
8. Soberakinen banaketa
9. 2012 urteko aldizkako kuoten onarpena
10. Galde-erantzunak

Bergaran, 2012ko maiatzaren 11n

Lehendakaria  
Mireia Gallastegi Inziarte



ULMA Agrícola, S. Coop.

Oñati

## OHIKO BATZAR NAGUSIA DEIA

**Eguna:** 2012ko maiatzaren 18a.  
**Ordua:** 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena.  
**Tokia:** ULMA Taldeko auditoriuma - Oñati (Gipuzkoa).

### GAI ZERRENDA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea batzar honetako akta onartzeko.
2. 2011ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea eta 2012ko gestio plana berrestea.
3. ULMA Taldeari buruzko txostena.
4. 2011ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzeko eta, badagokio, onartzea.
5. 2011ko ekitaldiko emaitzak banatzea.
6. 2011ko ekitaldiari dagozkion interesen sortzapena eta kapitalizazioa.
7. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK).
8. Supraegiturako entitatei buruzko gaiak.
9. POGU III eta ULMA Agrícola, Koop. Elkarteko Barne Araudi Kooperatiboko 42., 43. eta 46. artikulua aldatzea, hala badagokio.
10. ULMA Agrícola, Koop. Elkarteko Barne Araudi Kooperatiboko 27. eta 28. artikulua aldatzea, hala badagokio.
11. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak.
12. Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipena.
13. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
14. Ahalmenak eskuordetzea.
15. Galde-eskeak.

**OHARRAK:** Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kanpo auditoriak egindako kontuen gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan dituzten. Bazkide guztiei jakinarazten zaie eskubidea dutela, ULMA Agrícola Kooperatiba Elkarteko helbide sozialean, proposatutako Barne Araudiaren eta POGU IIIaren aldaketan testu osoa aztertzeko, eta doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA  
Oñati, 2012ko maiatzaren 4a

## ZABALIK

JUAN MARTIN ELEXPURU  
http://goiena.net/iritzia/



## Moruak Elgetan eta Uberan

Aspaldi honetan asko berba egin da Gernikaz eta Eibarrez, baina ez hainbeste Elgetaz. *Ahotsak.com* Interneteko orrixan, Elgetako Olegi baserriko Juan Irazabali Kepa Elortzak egindako alkarrizketia agertzen da. Juanek hamalau urte zittuan orduan, eta hola bizi izan zittuan 1937ko egun triste harek:

"Veinticuatro eta hurrengo egunian veinticinco. Eibarko honek mendixok, Azkonabietan eta hor tiroteo haundixa egon zan, eta hillak be mordua egon zien, zeatik ni konturatzen naiz hor suak agertu zien mordua, eta hor erre eitten zittuen moruak".

Erraustu, inzineratu egitten zittuela esan nahi dau.

"Horrek moruok sartu zienian veinticuatro de abrilian, hemen egundoko daño txarrak ein zittuen. Hil zittuen Ansuategi baserrikuak bittakuak, gizon bixak hil zittuen. Eta hemen gero Zesto basarrixa hemengua, hor hil zittuen aitta ta ama, ta alabia, hamalau urte edo hamabost urte -ni baiño urtebete gehixao-, biolau ein zebeñ, ta atzamarrak kendu otsazen, bihetzak, hiru atzamar kendu otsazen. Aitta alabia defenditzen, eta tirua emon otsenian aittai, ipiñi otsan buruan eskua, ta matxetakin klask!".

Olegi baserritik Uberara zela jatsi zien kontatzen dau gero: "Etorri zan Sagastixoko andra bat: 'moruak ei datoz goittik behera danak hiltzen. Zeston hil dittue andra-gizonak eta ez dakit nun be bai ta'. (...) Ama ta ni ta bezinuak bajatu giñan Uberara. Ta moruak, ikusten dou kamioian goittik behera kuadrillia ta, meka..., jota ni hanka behetik gora (Uberako eliza aldera). Ta hango baserrikuak goittik behera: *Arriba España!* ta *Viva España!* ta, nik ez nakixen horrek zertzuk zien be. 'Nora zoiaz?', esan ostan. 'Moruak datoz ta'. 'Horrengana nobera joan bihok, ez hanka eiñ, nobera joan bihok'. Eta eurekin nahasi bajatu giñan behera, Uberara".

Kontakizuna luziagua da. Interneten topau leike.

**"Azkonabietan eta hor tiroteo haundixa egon zan, hillak be mordua"**

## USTEAK USTE

USOA AGIRRE | uagirre@goiena.com

## Futbola bakarrik ez

Aspaldion kirol munduan futbola besterik ez dagoela pentsatu izan dut: Bilboko Athleticek ematen dituen pozak eta tristurak, Guardiolarren eta Aranbururen agurrak, Espainiako liga, UEFA, *Tzantpionza...* Baina zenbait kirol albistegitan hala erakutsi nahi duten arren, kirol guztia ez da futbola eta badago bestelakorik futbolaz haratago. Laster izango dugu horretaz konturatzeke aukera Londresko Joko Olinpiarrekin. Lau urtez behin bakarrik baldin bada ere, futbola ez den beste kirol batzuek hartzen dute protagonismoa medioetan, eta hori gustuko dut. Gainera, aurten ere izango dugu ibarreko ordezkaria bertan: aupa, Maider Unda!

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/

## Estatuko aurrekontu orokorrak



## HANDIK ETA HEMENDIK

## Disney Channel, txiripazko hurbilpen pedagogikoak

Luistxo Fernandez  
http://eibar.org/blogak/luistxo/

Hezkuntza eta teknologia, horretaz asko eta sakon informatzen ari den biltzar batean nago atzo eta gaur, CIDC-n, Donostian.

Terabeak eta smartphoneak, hezitzaile eta gurasoen papera... Anibal de la Torre andaluziarra entzuten disfrutatu nuen atzo. Teknologia eta hezkuntza binomioan, beste gauza askoren artean, ideia simple bat bota zuten: kuriositatea, eta zentzuna.

Teknologiara kuriositatez hurbiltzea inportantea da. Joan den larunbatean, sofán geuden iluntzean, ni eta nire bi seme-alabak. Telemandoaren beren eskuetan zegoen eta Disney Channel zegoen. Ez oso pedagogikoa, suposatzen dut. Baina smartphonea atera nuen, eta Shake it Up eta beste programa bateko kantuak teknologiak nola asmatzen zituen jolastu egon ginen. Shazam du izena, eta sarera konektatu zaudela, entzuten

duena igarri dezake, zein musikari, zein kantu (katalogo anglofonoa, nagusiki, ez esperantzarik izan euskal kantagintzarekin). Liluragarria iruditu zitzaie umeei, halaxe baita, liluragarria. Bide batez, kantu pop majo hau [sarean lotura] ezagutu nuen, komertziala eta biguna, baina polita, eta tira, jaitsi dut jada Download Helperrri esker.

Baina triunfo txikia hurrengo goizean etorri zen, alabak (8 urte) galdetu zidanean: Aita, Shazam-ek nola funtzionatzen du?

Shazam interesatzen bazaizu, mikro-ipuñ euskaldun batean [sarean lotura] ere irten da :-)

54 milioi euro edo 10.000, edo...

Xabier Letona  
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Ez dakit zenbat diru kobratuko duen Jose Ignacio Goirigolzarrik hartu berri duen Bankiako lehendakari karguan. Badakit, aldiz, 2009ko urrian ia 69 milioi euro eskuratu zuela BBVA utzi eta 55 urterekin aurrejubilatuz zenean. Urteko 3 milioi euroko bitzita osorako

pentsoia adostu zuen bankuarekin, lanean ari zenean baino pixka bat gutxiago (orduan urteko 4,2 milioi euro). Erabakiaren etikotasunaz asko hitz egin zen bere garaian, *bideo honetan* ikusi daitekeen moduan. [Sarean dago lotura]

Badakit, ostera, zenbat kobratuko duten Novacaixagalician orain erretiratu berri diren lau zuzendarik, erretiro eta kalteordainen kontzeptuan: 54 milioi euro. Hau da, UPNk eta PSNk, 2012ko Nafarroako Gobernuaren aurrekontuarekiko biharko adostu behar duten diru murrizketa (edo sarrera) bera: 54 milioi euro.

Finantza munduaren arazoak bata bestearen atzean datoz eta, Bankiaren porrotaren harira, Espainiako Gobernuak 10.000 milioi euro gasta dezake bere erreskatean. Duela gutxi iragarri duen hezkuntza eta osasun erreformako mozketaren 10.000 milioi euroak akaso. Eta denak adierazten du hau ez dela azkena izango. Aginte makila dutenek argi iragarri zuten (FMik eta Banco Santanderrek) duela bi aste:

Azkenean, diru publikoa beharko da finantza sektorearen birmoldaketa amaitzeko

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola  
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi  
**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Ubane Madera  
**Sailtako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

**EEGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER ARRASATE 20500:**  
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00  
**ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550:**  
E05 Basabe Poligonoa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09


**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com  
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com  
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 20.100 ale  
**Difusioa:** 19.951 ale

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako initzen erantzukizunik.



Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## GUTUNAK

## EAJ-PNVk ez du legezko zat jotzen zaborren kudeaketa batzordea

**Juan Karlos Garitano, Maria Ubarretxena, Ibon Arrupe eta Juan Ramon Mendieta**  
(Arrasateko EAJko Udala Taldea)  
Arrasate

Bilduk atez atekoa ezartzeko aurrez diseinaturiko egitasmoaren beste ekimen bat bailitza zaborren kontseilu bat osatzea proposatu du.

Kontseilua Arrasateko udaletxeko beste alderdi politikoen babesik gabe egin da.

Argi dugu erabakia hartuta dagoela eta udal gobernuak partaidetza prozesu batez apaindu besterik ez duela nahi datorren hileko osoko bilkuran gehiengo osoz hartuko duen erabakia.

EAJ-PNVk ez du eztabaida gune hau onartzen, horrelako prozesuek bete beharreko gutxienezko baldintza demokratikoak betetzen ez dituelako:

-Bilduk ez du erakutsi egun indarrean dagoen sistemaren emaitzak hobetzeko interesik, guk behin eta berriro eskatu arren. Atez atekoa besterik ez dutela nahi argi dago.

-Orain arte ez dugu informaziorik jaso, Bilduk ez du atez atekoaren ezarpena arazoitzeko datu edo ikerketarik. Ez dute Udaletxeak Mankomunitateari 200.000 euro transferitu beharra arazoitzeko analisirik aurkeztu. Gauzak egin eta gero ezagutzen ditugu, opakutasun osoz jokatzeko dute, horrelako politika egiten dutelarik, Kontseilu horren eskutik etorriko al da, bada, gardentasun eta zuzentasuna?

-Aholku Kontseilu hau prozesuaren hasieran sortu behar zen, eta inoiz ez orain, amaieran, erabakia hartuta dagoenean.

-Familiak, atez atekoak

gehien ukitzen dituenak, ez daude Aholku Kontseilu honetan. Zergatik? Ez zaielako interesatzen?

-Ados gaude, guk ere uste dugu sortzen den hondakin kopurua gutxitu, berrerabili, birziklatu, konpostatu... egin behar dela, baina ez gaude ados helburu hori lortzeko moduarekin. Kontseiluaren egitasmoak ez du hau kontuan hartzen, ez du emaitza hobetzeko modurik planteatzen, ez du jendea kontzientziatzeko modurik planteatzen; alderantziz, hori guztia alboratu eta jendeari betebeharrak inposatuko dizkion sistema batean jartzen du arretea guztia.

-Ez dugu Bilduk bezala pentsatzen, Arrasateko familiei inposaketa gogorak ezarri behar zaizkigula ustean, horrek arrasatearenganako errespetu falta handia suposatzen du, jendearen laguntza zaborren kudeaketa ingurugiroarekiko egokia lortu dezakegula uste dugu, arduratsua direla sinesten dugulako eta, Bilduk proposatzen duenaren aurka, arrasatearrak derrigortzearen beharrik ez dugulako ikusten.

Ondorioz, esan, EAJ-PNVk ez duela legezko zat jotzen aholku batzorde hau, itxurakeria besterik ez denean, Arrasateko Bilduk, bere jendearen aurrean, ekaineko osoko bilkuran atez atekoa onartzea arazoitzeko.

## Ysasi Ysasmenditarren liburuaren aurkezpen ekitaldiagatik, eskerririk asko

**Ramon Benavente Freixas**  
Aretxabaleta

Joan den apirilaren 28an egindako Ysasi Ysasmenditarren liburuaren aurkezpen ekitaldian egondako

kolaboratzaile eta ikusle bakoitza pertsonalki eskertu gurako nuke egindako ekarpenengatik.

Egia esan, egunean bertan eskertu gura nuen, baina ezinezkoa izan zen.

Horregatik, Goienak eskainitako aukera aprobetxatu gura dut nire eskerrak era orokorrean bideratzeko.

Eskerririk asko, lehenengo, Isasmendi eta Isasi Isasmendi eskoriatzarrei eta aretxabaletarrei neu eta neure familia eta lagunak etxean hartu eta geure etxean bageunde bezala sentiarazteko egindako ahaleginagatik (sekula ez dute kobratuko, diruz ordaindu ezin diren hainbat kontu daudelako); eta eskerririk asko, neuri eta Enric neure lehengusu politikoiari adeitasunez egin zenigutelako ohore.

Beste herri batzuetatik etorritako (Elgoibar, Gasteiz, Bartzelona...) Isasmendi eta Isasi Isasmenditarrei ere eskerrak eman gura dizkiet; baita abizen hori izan barik festan parte hartu gura izan zuten guztiei ere.

Eta zelan ez, koadrilakoei ere bai, erakutsitako eskuzabaltasunagatik.

Aitor Antxia ere eskertu gura dut papereko formatuan argitaratutako liburuagatik eta aurkezpen hori bultzatzeagatik. Baita Aretxabaletako Udala ere, Arkupe kultura etxeko erabilera askotariko areto zoragarria uzteagatik.

Eta Aretxabaletako alkate Ana Bolinaga eta Eskoriatzako alkate Beñat Herce ere bai, euren parte-hartze aktiboagatik.

Bolinaga alkate andreak katalanez esandako hitzak hartuta, esan, Ysasi Ysasmenditarren liburu pertsona eta herrien arteko topaleku izan zela, batez ere Ysasi Ysasmendi abizenaren sorleku izandako herrien artean: Eskoriatzan, Marin auzoa, eta Aretxabaletan, Goroeta auzoa.

Ziur nago izpiritu horrek jarraipena izango duela eta topaketa horri beste batzuek jarraituko diotela, eta Isasi

Isasmendi guztiek tokia duten zuhaitz hori –Josu txikiak egun hartan esandako moduan– indartzen joango dela, guztion borondatea delako hori. Nire aldetik, beti izango nauzue edozertarako gertu.

Gura baduzue, zuen zuhaitz genealogikoen mantentzaile ofiziala izango naiz.

Eta edozein argibidetarako idatzi helbide honetara: [ramonbenavente55@hotmail.com](mailto:ramonbenavente55@hotmail.com).

Eskerririk asko.

Besarkada bat eta beti arte.

## Betiereko tortura

**Jon Otero Uribarren**  
Arrasate

Bai, psikiatrian dago betiereko tortura. Psikiatriaren zutabea farmakoak dira, eta farmako hauek tortura sortzen dute.

Nola ez dakit, baina indar fisikoa gutxitzen dute, ahul sentitzen naiz, kirola gustatzen zait, 13 kilometro korrika egitea egunero, baina argi dago ezin dudala, paseatzen ere nekatzen naiz. Farmakoek depresioa sortzen dute, agobioa, goibeldura, ez dut sekula barrerik egiten. Farmakoek gaixoarazi egiten dute.

Ezin da hitzez azaldu sentitzen dena, nortasuna galtzen duzu eta gaizki, oso gaizki sentitzen da bat. Zergatik, orduan, ematen dituzte farmako hauek? Hor dago ezkutuzko arrazoia.

Burumakur egon zaitez beti, jendeak, itzalirik, goibel, gaizki ikus zaitzan beti, beti gaixo.

Ez bazara osatzen, beti izango zara psikiatren paziente bat, bezero bat gehiago.

Psikiatren ezkutuzko nahian, komeni da burua jaso ez dezazun, bezeroa beti izateko, eta burua jasotzekotan ez dezazun leku txarrean utzi psikiatria. Saiatzen dira hori gerta ez dadin; beraz, beti ematen dizkizute farmakoak, bizi guztian.

Tortura dira farmakoak eta psikiatrak dira torturatzaile hutsak.

Behin, psikiatra bihotz

oneko bat izan nuen (urriak dira) eta medizina guztia kendu zidan. A zer zoriona sentitu nuen, euskaraz egin nien erdaldunei eta berriro jarri zizkidaten farmakoak, hor bukatu zen nire zoriona.

Beldurra dago psikiatriaren munduan. Esaten badiozu psikiatrari ez dituzula maite farmakoak, argi ibili, pentsatzen dute farmakoek tomak beti kontrolpean egin behar duela; orduan, ezin zara etxera joan, zeren sumatzen baitute ez dituzula pilulak hartuko eta orduan altxatu egingo duzula burua, eta hori ez da komeni.

Nik eskatu izan diet farmakoak kentzeko, eta ukatu egin didate beti, badakitelako ez ditudala gustuko farmakoak. Ez didate uzten nire etxera joaten, kontrolik ezean ez omen ditudalako hartuko.

Ziurtatzeko nire farmakoek toma, beti psikiatrikoan edo kontrolpean egotea nahi dute, entzerratuta beti, torturapean. Betiereko tortura.

Engainatuta dute gizartea, farmakoak onak direla, eta abar. Epaileari kexatu naiz, jaramonik ere ez, Arartekoari idatzi diot, erantzunik ere ez. Gizartea engainaturik dago eta hemen torturatu egiten da. Ondorioa? Gizarteari gorrotoa zaio, ez bakarrik psikiatrei, zeren gizartea konplize edo ezjakin isila baita, eta torturak segitu egiten du, aste bat, bi aste, hilabeteak, urteak eta urteak, beti eta egunero torturapean.

Ikasketak egin nahi ditut eta ez didate uzten, tomaren kontrolpean egon behar dudalako.

Isilik daude pazienteak, beldur dira, askatasuna noiz lortuko zain. Gorroto dut gizartea eta farmakorik gabe maite dut mundua. Nola altxatuko dut burua bizi guztian torturatu behar banaute?

Psikiatreek diru asko dute eta oso nobleak dirudite, oso nobleak ziren beren garaian beltzen esklabozaleak. Baina ustelak barnean, psikiatrak bezala.

Atal honetan argitaratzeko diren gutunak, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | [gutunak@goiena.com](mailto:gutunak@goiena.com) | Faxa: 943 25 05 00

# MAGAZINEA

GOIENA TELEBISTA | MAGAZINEA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA, 20:15 I TXOMIN MADINA ETA MIREN ARREGIK AURKEZTUA



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena



Carlos Ormazabal, Bergaran, eguaztenean, berbaldia egin aurretik. | ENEKO AZKARATE

**Carlos Ormazabal** | Ingurumen diputatu ohia

## "Errauskailuarekin balio energetikoa ematen zaie hondakin hondarrei"

- ▶ Errauskailua defenditu eta atez atekoaren aurka egin du Ormazabalek
- ▶ Atez atekoa ezartzeko, Bilduren "aldebakarreko" erabakia kritikatu du

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Carlos Ormazabal, aurreko agintaldian Foru Aldundiko Ingurumen diputatu izandakoa, Bergaran izan da hango EAJk gonbidatuta. Hiri hondakinak izan ditu berbeta gai. Atez atekoaren aurka egin du. Herritarrei egiten zaien inposaketa dela esan du. Eta intimitatea ez duela aintzat hartzen. Garestiagoa ere badela dio.

**Sekulako polemika sortu da lurraldean, Bilduk atez atekoa ezartzeko hartutako erabakia dela-eta. Zergatik?**

Foru Aldundiko aurrekontuetan Bildurekin adostasuna lortu genduen. Baina, bat-batean, Bildu azaldu da esaten 34 udalerritan atez atekoa ezarriko dutela. Aldebakarreko erabakia izan da. Ostera, beti aldarrikatu izan dute herriari ahotsa eta hitza eman behar zaiola. Hortik datoz haur egungo ika-mikak.

**Zer gerta daiteke aurrerantz?**

Hitz egiten, denon arteko adostasunez, egin behar dugu aurrera. Gidoi hori apurtu eta herritarrek kontuan izan gabe hartu ditu erabakiak Bilduk. Nik ulertzen ditut erakundeak pertsonen esanetara edo zerbitzura; ez pertsonak erakundeen zerbitzura. **Ezinbestekoa da Zubietako erraus-te planta?**

Beti geratzen da frakzio bat birziklatu eta balioan jarri edo aprobetxatu ezin daitekeena. Gure ustez, frakzio hondar horri balio energetikoa atera behar zaio. Ez soilik erre, eliminazio sistema moduan. Aprobetxamendu energetikoa atera. Uste dugu hori lortzen dela Zubietako errauskailuarekin: hondakin trukean argindarra sortuz. Hondakinak lur azpian sartuz, ez dugu ezer lortzen. Azkenean, sistema integral bati buruz ari gara. Zikloa ixten du errauskailuak. Zubietako erraus-te plantarekin, Gipuzkoan, 60.000 familiarendako argindarra sortuko litzateke.

**Kontrakoeke diote erraus-te plantari hondakinak eman behar zaizkiola jateko, eta, ondorioz, birziklatu, gutxiago egiten dela. Zer diozu?**

Europako herri aurreratuenetan, Danimarkan, Austrian, Alemanian, Suedian... zer egiten duten begiratu besterik ez dago. Gehien birziklatzen duten herriak dira eta haiek erabaki dute zabortegiak ez erabiltzea. Hondakin hondarrak balioan jarri eta energia sortzea erabaki dute herrialde horietan. Gure kasuan, zabortegietan, lur azpian dagoen milaka eta milaka hondakin tona errauskailuan erre daiteke, hondakin horiek ere balioan jartzeko.

**Errauskailuaren aurkakoek diote kutsakorra direla. Hala da?**

Garai bateko errauskailuak, akaso, baina gaur egungoak ez. Europar erraus-te edo balorizazio plantak non dauden ikusten badugu, konturatuko gara hirien erdian daudela. Ateratzen den argi indarra eta ur beroa hirian bertan aprobetxatzeko.

**Europako beste hiriburu garrantzitsu batzuetan, Bruselan esaterako, atez atekoa darabilte...**

Atez ateko eredu bat baino gehiago dago. Esaterako, hor dago Itsasondoko. Edukiontzien sistema erabiliz, organikoa batzeko barne. Eta errefusa edo hondar frakzioarendako zintzilikarioak erabiliz. Baina edukiontzi berdea edo zabor poltsak botatzen ditugun hori kenduta. Eta birziklatze maila altuak lortu dituzte hor. Eredu bat da. Hemen, Gipuzkoan, ezarri den atez atekoaren moduko asko ez daude kanpoan. El Salvador da horren eredu...

**Zein da EAJrendako eredu egokiena?**

Zintzilikariorik bakoa. Uste dugu hemen planteatzen den atez atekoak herritarren anonimotasuna zalantzan jartzen duela. Itsasondoko izan daiteke eredu, baina argi esan behar da, Itsasondon, %90eko birziklatze maila lortu bada ere, era berean,

zaborra %38 desagertu egin dela. Horrek esan nahi du jendeak ez duela nahi bere zaborra kalean ikustea. Gure sistema hau da: lau edukiontzi eta bosgarren bat, txartelarekin, errefusarendako eta materia organikoarendako. Horrekin kontrolatzen da zenbatean atera zenezakeen kalera hondakina. Baina, betiere, herritarren intimitatea zainduz.

**Emaizta onak lortuko litzuzke sistema horrek?**

Bai, baina inposatu gabe, erakutsiz, heziz. Gipuzkoarrok beti erakutsi dugu birziklatzeko borondatea. Oso onak gara gauzak egiten. %40tik gora gabiltza birziklatzen. Jakina, hori hobetzea da helburua eta materia organikoarena zen erronka.

**"Europar erraus-te edo balorizazio plantak hirien erdian daude"**

**"Gipuzkoan ezarri den atez atekoaren eredu El Salvador da"**

Horregatik jarri genuen edukiontzi marroia herri batzuetan, oso emaitza onak lortuz.

**Zergatik ez zenuten hedatu lurralde osora?**

Egon ginelako bi eredu konparatzen: materia organiko sukaldatutakoa eta sukaldatu bakoa. Ezberdinak dira. Sukaldatutakoak gatzak du eta ura erretentzen du. Sukaldatu gabeak askoz ere tratamendu errazagoa du.

**Bilduren ustea da ezinbestean jendea behartu behar dela birziklatzera, bestela emaitzak ez direla onak. Ados zaude?**

Horrek izan behar du herritarrei eman zaien tratamendua? Norbaitek helburu bat markatu du eta ezinbestean helburu hori lortu nahi dute. Ez dute udalek erabaki, beste instantzia batean hartu da erabakia. Herria aintzat hartu gabe. Begira, Zarautzen, bosgarren edukiontzi marroia jarri zen eta emaitza oso onak lortu dituzte. Askok birziklatzen da edukiontzien sistemarekin.

**34 udalerritan birziklatze maila handia lortzen bada atez atekoa ezarrita, arazoa konponbidean izan daiteke?**

Ez. 34 udalerritan atez atekoa ezarrita ere, gipuzkoarrok %35era ailegatuko dira. Eta atez atekoa ezarriko ez duten herri edo hiriek hartuko dute ondoko herrietako zaborra. Jendea kontuz egin behar da, ez obligatu, ze, bestela, gauzak, normalean, gaizki bukatzen baitute.

**AHT ere inposatu egin dela diote kontrakoeke...**

Modernizazioa kontuan hartu behar da. Ezin dugu atzera jo. Mundua mugitzen ari da; gu ezin gaitzke geldi geratu, mugitu egin behar gara munduarekin batera. Gauza asko eta ondo egin ditugu urte askotan orain arte. Ona dena dena zalantzan jarri behar dugu? Gipuzkoako jendar-teak ez du onartuko horrelako atzerapausorik.

**Benetan beharrezkoa izango da erraus-te planta Gipuzkoako 34 udalerritan atez atekoa ezarrita?**

Baietz, baietz, dudarik ez. Donostian jarri behar dute atez atekoa? Lasarten? Irunen? Biztanleriaren gehiengoak ez du atez atekoarekin funtzionatuko. Beti egongo da zati bat, hondar bat, birzikla ezin daitekeena.

**Ze eredu da merkeagoa?**

Samurra da erantzuten: ikusi besterik ez dago Hernaniko udaleko aurrekontua. Atez atekoa ezarri aurretik eta ostean. 600.000 euro gehiago kostatzen zaio Hernaniri hiri hondakinak kudeatzea atez atekoarekin.

**"Gipuzkoarrok beti erakutsi dugu birziklatzeko borondatea"**

**"600.000 euro gehiago kostatzen zaio Hernaniri atez atekoarekin"**



sofa

**Davao****IKUS EZAZU MUNDUKO  
LEHENENGO SOFA BEROGARRIA\***

©Kibuc-en  
teknologia  
berogarra



Erlaxatzeko  
eserleku  
elektrikoak



Bere kasa  
itzaltzeko  
mekanismoa



Buru-euskarri  
etzangarra



Erlaxatzeko  
eserleku  
elektrikoak



Ekolarruan  
tapizatuak, 8  
kolore aukeran

Davao sofa finkoa  
Plaza bat berogarra  
Neurria L288xP170xH100cm.

**1.999 €**

Plaza bat berogarra +  
Plaza bat erlaxatzeko motorrekin 2.229 €

\*Ehun adimenduna. Espainiako Patente eta Marken bulegoan erregistratutako baliabide eredu. CETEMMSA Centro Tecnológico erakundearekin lankidetzan garatua.



diseinua  
Eloy Millán

Aukera gehiago Kibuc.com en. Adierazitako neurri eta akaberetarako balio duten prezioak. BEZ-a barne.

[www.kibuc.com](http://www.kibuc.com) ikus gaitzazu Facebook eta Twitter-en  

[gureametsa@kibuc.com](mailto:gureametsa@kibuc.com)  
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia  
Tel. 943 151 681

**KIBUC**  
altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

**KIBUC** Gure Ametsa

# HERRIAK

ARRASATE

## Harremanek ia 20 urte daramatza hainbat herrialderi laguntzen

- ▶ Aurten aurreko urtean baino diru gutxiago batu dute, 3.500 euro inguru
- ▶ Elkartasun Egunean batutako diru guztia zuzenean bidaltzen dute Ankurrera

MAIALEN REGUEIRO | ARRASATE

Ankurko lekaimeen etxea zena 1994an umezurztegi bilakatu zen, Mira Roadeko poliziek kalean aurkitutako neskek hara eramaten hasi baitziren. Harreman (Arrasateko gobernuz kanpoko erakundea) "2004. urtean hasi zen umezurztegi honekin lanean", Cristina Etxenausia Harremaneko kidearen arabera. Erakunde horrek urtero 11.000 euro bidaltzen ditu zuzenean eta, diru hori janarirako, arropendako, baliabideendako... erabiltzen dute. 11.000 euro horietatik, 5.000 euro inguru umeak jasotzeko erabiltzen dira; besteak beste, Harremanek guraso arrantzaleen 44 ume ditu jasota. Horrez gain, erakundeak jasotzen duen diru guztiaren %75 Arrasateko gobernuz kanpoko erakunde Mundukideri ematen diote, hitzarmen bat dutelako.

### Ankurko umezurztegia

Umezurztegi hartan 200 neska eta zazpi lekaime daude. Lekai-me bakoitzak neska kopuru baten ardura dauka, baina, horrez gain, nork bere eginkizuna du. Hala ere, Ankurko umezurtegiaren helburu nagusia neska horiek heztea da. Gainera, hango lekaimeetako batzuk hemengoak dira, eta Harremanek asko eskertzen du hori.

Umezurztegiaren egunerokotasuna honakoa litzateke, Etxenausiaren esanetan: "Neska zaharrenak goizean goiz jaikitzen dira, 07:30ean eskolara joaten baitira. Neska txikiak, aldez,



Cristina Etxenausia, Bolivari, bertako herritarrez inguratuta. | CRISTINA ETXENAUZIA

DATUA

200

NESKA

Ankurko neskek dira familia pobre edo apurtuetakoak, edo utzitakoak.

DATUA

7

LEKAIME

Lekaime bakoitzak bere eginkizuna du Ankurko umezurztegian.

goizko hamarretan joaten dira eskolara. Bazkaltzera umezurtegiara bueltatzen dira, eta, bazkalostean, txikiak siestara joaten dira eta gainontzekoek etxeko lanak egiteko edo euren

aisialdirako denbora izaten dute, betiere Ankurtik irten gabe".

### Umezurtegitik irten

Ez dago umezurtegitik irteteko adin mugarik, baina, normalean,

neskak, ikasteko prest daudenean, 18 urterekin gutxi gorabehera, Ankurtik irteten dira eta euren bizitza hasten dute. Dena den, Ankurrek nesken ikasketak ordaintzen ditu.

Etxenausiaren arabera, "neskak triste irten beharrean, oso pozik irteten dira umezurtegitik". Badakite non egon diren eta euren egoera zein izan den onartu egiten dute. Edozelan ere, 1994a ezker 500 neska irten dira eta horietako batzuk ezkondu egin dira, ama izan dira, lanean daude, ikasketak egiten dituzte... alegia, nor bere kabuz etorkizuna eraikitzen hasten da umezurtegitik kanpo.

CRISTINA ETXENAUZIA  
HARREMANEKO KIDEA

### "Harreman erakundeak egiten duen lanak merezi duela ikusi dut"

Etxenausia Ankurko umezurtegia bisitatzen egon da.

### Zer-nolako izan da Indian bizi izandako esperientzia?

Indian bizi izandako esperientzia oso ona izan da. Dena lehen eskutik ikusi dut eta Harremanetik egiten dugun lanak merezi duela ikusi dut. Bertan egiten denarekin, neskek merezitako bizimodua izango dutelakoan nago.

### Indian izan zarenean, zein izan da zure eginkizuna?

Ankurko umezurtegiaren egon naiz, eta, gehienbat, bertako eguneroko bizitza zein den ikusi dut. Horrez gain, bertako lekaimeei ahal izan dudana guztian lagundu diet. Harremanek jasota dituen 44 umeak ere bisitatu ditut.

### Nola sentitu zara ume horiei lagundu ostean?

Egia esatearren, oso ondo sentitu naiz. Bertan zaudenean, gauza asko ikusten dituzu, eta, era berean, gauza asko sentitzen dituzu. Sentimendu guztiak hitzez adieraztea oso zail egiten zait.



### SPA ZIRKUITUA ETA ASTEBURUKO MENUA

Debako AISIA hotelean, SPA zirkuitua eta asteburuko menua irabazteko aukera.



aisiahoteles.com • deba@aisiahoteles.com  
943 60 80 52



### MUNDUMIRA

3 sari sorta: kamisetak, liburuak eta Euskal Herria aldizkarian harpidetzak

Astelehenean argitaratuko ditugu irabazleak!

## goienakluba

Abantailaz betetako kluba!



goienakluba 2012

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com | Urteko kuota: 50 €.

# Plaza bete euskal presoak herrira ekartzea eskatzeko

Herriko plaza zazpi orduz 'hartzeko' dei egin diete herriko hainbat eragileri

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Maiatzaren 19rako Euskal Herriko *Herrira* mugimenduak euskal presoaren eskubideak aldarrikatzeko prestatu duen egun bereziaren barruan Arrasaten antolatutako denaren berri emateko agerraldia egin zuten martitzenean Herriko plazan. Alkatea eta egungo zenbait zinegotzi eta zinegotzi ohi izan ziren bertan -20 bat guttura-, zenbait preso ohi eta presoaren senide zein herritarrekin batera, euskal presoaren giza eskubideak errespetaraztea helburu duen ekimenarekin bat egiteko. Hala, hilaren 19rako egitarau zabala prestatu dute: "Arrasaten zazpi orduz plaza betetzera goaz, herriko eragileen parte hartzearekin", adierazi dute.

Prentsaurrekoan Inazio Azkarragaurizar alkateak hartu zuen hitza: "Gatazka betiko konpondu eta haren ondorio guztiei irten-

## HILAREN 19KO EKINTZAK PLAZAN

**11:00** Umeendako jolasak begiraleen eskutik. Tailerrak gaztetxearen eskutik.

**12:00** Herri krosa.

**13:00** Konzentrazioa.

**14:30** Herri bazkaria.

**16:00** Herriko hainbat kultura eragileren eskutik zenbait emanaldi.

bidea emateko, ezinbestekoa da preso eta iheslarien egoera ere konpontzea", adierazi zuen. Euskal Herriak bizi duen testuinguru berria ere ekarri zuen gogora: "Urtarrilaren 7ko herri mobili-

zazio orokorra egin zenetik hona, alderdi politiko askok presoaren auziarekiko jarrera berriak hartu dituzte. Izan ere, begi bistakoa da egungo kartzela politikak ez duela sostengu politiko eta sozialik". Era berean, Espainia eta Frantziako gobernuen jarrera salatu zuen alkateak: "Ez dute pausorik eman eta kartzela politika ez da aldatu. Presoaren gaia eguneroko mintzagai bada ere, iraganeko jokabideari eusten diote garai berri honetan".

### Uribetxeberriari aipamena

Sei eskaera zehatz egin zituen Azkarragaurizarrek; horien artean, zigorraren bi herenak zein hiru laurdenak dituzten presoak kaleratzea eta gaixotasun larriak dituztenak askatzea. Azken horien artean, aipamen berezia egin zion Josu Uribetxeberria preso arrasatearrari.



Udaleko, Bagarako eta talde eragileko ordezkariak | J. BEREZIARTUA

## Azokaren biziberritzea, urrats berrietarako gertu

J.B. | ARRASATE

Bagara herri ekimenak eta Udalak abiarazitako azoka biziberritzeko ekimena bigarren fasean sartzean da. Martxoaren ezkerreko lau lantalde lanean dabilta, prozesu horretan jasotako iritzi eta proposamenak oinarri harturik azoka berriaren jarduerak identifikatzen eta proposamenen bideragarritasuna fintzen. Bada, orain, urrats berriak egiteko unea da eta fase berri horrek data garrantzitsu bat du dagoeneko: maiatzaren 16a. Egungo horretan bateratze saioa egingo dute udaletxe osoko bilkuren aretoan (18:30), lantaldeek jorratuko gaiak komunean jarri, diagnostikoa Bagara eta Udala bigarren planora pasako dira.

rren artean izan ditzaketen sinergia posibleak aztertuko.

### Talde eragilea, motorra

Ekimenaren motorra izango da talde eragilea. Prozesuan parte hartzen diharduten eragile eta norbanakoetako batzuk izango dira partaideak; 15 bat lagun, maiztasun finkoan bilduko direnak. Helburuak dira parte hartze prozesuaren ikuspegi integrala bermatzea eta jarraipena egitea, eta azokarekin lotutako gai orokorrak lantzea eta kudeatzea: besteak beste, finantziario orokorra, bideragarritasuna, kudeaketa eredu, espazioa eta proiektu arkitektonikoa. Bagara eta Udala bigarren planora pasako dira.



Alkatea, alkate ohiak, zinegotziak eta zinegotzi ohiak, preso ohiak eta presoaren senideak, agerraldian. | J. BEREZIARTUA

## OHARRAK

### 1982AN JAIOTAKOAK

1982an jaiotakoak ospakizun berezia egingo dute bihar, hilak 12. 12:00etan elkartuko dira Seber Altube plazan, eta, poteoa egin ondoren, 14:30 aldera guztiek batera bazkalduko dute.

### ODOLA EMATEKO DEIALDIA

Arabako Odol Emaileen Elkarrekin aditzera eman dituzte odola emateko datozen hitzorduak:

maiatzak 11, 16, 17, 22, 24, 29 eta 30 eta ekainak 5 eta 6. Aterratzeak, osasun etxean, 16:30etik 20:00etara.

### 1962AN JAIOTAKOAK

1962an jaiotakoak ospakizuna egingo dute azaroaren 10ean. Aditzera eman dute maiatzaren 30ean eman ahal izango dela izena, 20:00etan, Txalaparta elkarte gastronomikoan.

## San Juan jaietako kartel lehiaketarako izena emateko epea zabalik

San Juan jaietarako gero eta gutxiago falta den adierazle, Udaleko Kultura Sailak ireki du jaietako kartel lehiaketarako izen-ematea. Lanak maiatzaren 25a baino lehen entregatu behar dira Biztanleen Arreta Zerbitzuan -19:00ak baino lehen-. Irabazleak 750 euro jasoko ditu. Argibide gehiagorako: 943 25 20 08.



JON BEREZIBAR

## 'Sua' jokoa, euskaraz gozatzeko

10 urtetik gorako neska-mutikoendako karta joko berezia kaleratu du Txatxilipurdik. *Sua!* dauka izena eta euskal mitologia, azpijokoa eta sormena batzen ditu. Estrategia eta zalaparta zaleek ederto gozatu dute jokorekin; euskaraz, hori da-eta helburua. Karta jokoa dagoeneko salgai dago Txatxilipurdiren egoitzan eta Elkar dendan.

Egunero eskaintza bat\*

%10eko deskontua familia ugariarentzako

Arropa eta zapatetan

**tipi tapa**

Oinetakoak  
Arropa  
Jostailu hezigarriak

Otalora Lizentziaduna 25  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 17 47  
tipitapa@hotmail.es

Jarrai gaitzazu  
Facebooken:

\* Maiatzaren 15etik 26ra



Sunchalesko eta Arrasateko Udaleko ordezkariak, atzo, eguena, udaletxe aurrean. | U.M.

## Kooperatiben balioetan sakondu dute argentinarrek

Sunchales (Argentina) herriko ordezkariak instituzionala gurean izan da pare bat egunez

UBANE MADERA | ARRASATE

Eguaztenean etorri eta gaur, egubakoitza, joan dira Sunchales herriko alkate Ezequiel Bolatti (intendentea, euren ahota) haren emazte Carina Roa eta Edgardo Bonaudi, Libertad Kirol Klubaren Elkarteko presidentea.

Kooperatiben nazioarteko urtea dela eta etorri dira 2007az geroztik "senide" duten Arrasate eta inguruak bisitatzen.

Eta bi egunok nahikoa izan dituzte kooperatibismoaren sustrai

sendoetako batzuk hobeto ezagutzeko. Horretarako, eguenean bidelagun paregabea izan zuten, besteak beste, Jose Mari Larrañaga, ingeniari teknikoa eta Goi Eskola Politeknikoko irakaslea, bere ibilbide profesionala kooperatibagintzan emandakoa. Hark Jose Mari Arizmendiarrizaren gainean argitaratutako azkeneko liburu bana oparitu zien bisitari argentinarrei; eta batez ere, kooperatibismoaren baloreen gaineko partekatu zituen eurekin.

### Esperientzia kooperatiboa

Argentinari harrera egiten izan ziren, baita ere, udal ordezkariak (gobernuko kideak eta oposizioak). Inazio Azkarragaurizar alkateak, esaterako, Arrasateren gaineko aurkezpena egiterakoan azpimarratu zien udalerrak "izatera langilea eta borrokalaria" dela, batez ere.

Behin Arrasatetik abiatuta, hainbat esperientzia kooperatibo ezagutu dituzte argentinarrek "in situ": Oletako (Aramaio) Behi-Alde kooperatiba, Mondragon Unibertsitatea eta Eskola Politeknikoa, Otalora Jauregia eta MCC-ri buruzko erakusketa. Eta jakina, bisita aprobetxatu dute, Arrasate bera ere ezagutzeko.

### Maiatzetik azarorako ekintzak

Argentinarrak agurtu ostean, kooperatibismoarekin hurrengo hitzordua hil amaieran du Arrasateko Udalak. Kooperatibismoaren urtea izanda Udalak ekimen horrekin bat egin zuen martxoaren 27ko osoko bilkurako adierazpen instituzionalaren bitartez, eta azarora bitarteko ekintzak iragarri ditu. Horren harira, maiatzaren 30ean, Erkideren Batzarreko Gaurkotatun Txostena landuko dute. Miñao; ekainaren 13an, berriz, Kooperatiben 90. Nazioarteko Eguna izango da, Bilbon eta Forokoopen VI. Biltzarra ere egingo dute. Eta udako opor aurreko egutegiarekin amaitzeko ekainaren 20, 21 eta 22an Gizarte Ekonomiaren Ikerlarien XIV. Jardunaldi Nazionalak egingo dituzte, Donostian eta Oñatin.

## Asto Jaia eta beste, asteburuan Musakolan

U.M. | ARRASATE

Erretiratuen Egunarekin hasi (gaur, egubakoitza), eta San Isidro egunarekin (maiatzaren 15, martitzena) bukatuko dituzte Musakolako jaiak.

Bien bitartean, gustu, adin eta kolore guztiak asetzeko egitaraua prestatu du Musakolako jai batzordeak. Besteak beste, auzo bazkarirako 180 lagunek eman dute izena, eta asko kanpoan geratu dira, Udalak nahikoa estalpe ez duelako. Bestalde, Jaime Lopez auzotarra omenduko dute, "adiskide on, adeitsua eta lan egiteko prest zegoena".

### HITZORDU BATZUK

#### EGUBAKOITZA

**10:00** Jaien hasiera eta haurrentako jolasak.

**11:30** Arizmendi Ikastolako danborrada.

**17:30** Txokolate-bollikau banaketa eta tailerrak; eta pintxo dastaketa San Antolin eskolan (Ekinek antolatuta).

**19:30** Erretiratuendako afaria, Al-Andalusen.

**23:00** Eko D Bull eta Dirty Brothersen kontzertua eta Kaixorekin berbena.

#### ZAPATUA

**11:00** Patata-tortilla lehiaketa eta talo postua.

**12:00** Asto Jaia.

**13:30** Urrezko Astokiloak.

**15:00** Herri bazkaria.

#### DOMEKA

**12:30** Txikiteoa, Akelarre taldearekin.

**17:30** Zezentxoak.

**22:30** Azken traka.

## Depilazio probarako eta automakillaje ikastarorako gonbita egiten du laranek

Udaberri-uda sasoi honi begira egokitutako zerbitzu ezin hobeak eskaintzen ditu Arrasateko laran ile-apaindegiak, ezkontzetarako eta depilatzen, adibidez.

**E**zkontzen sasoiaren honetan, zerbitzu integrala eskaintzen die laran ile-apaindegiak emaztegaiei, egun handirako: "Manikura, solariuma, eskuz egindako buruko prenda, ile-luzatzeak, goi mailako produktuekin egindako makillajea (proba doakoa)... guzti-guztia utz dezake gure esku", azpimarratu du Ines Andres ugazabak.



lارانeko langileak ispilu aurrean, ile-apaindegian.

“Ezkontzari goitik behera gertu ateratzen dira laranek: manikura, solariuma, eskuz egindako buruko prenda, ile-luzatzeak... behar duten guztia eskura dezakete hemen”

### Depilazioa, probatzeko

Bestalde, uda badatorrela ere osokontuandute laranen, eta depilazioan eskaintza egokia egiteko baliabideak eskuratu dituzte: "Azken belaunaldiko aparailuak erabilia, oso depilazio laser efektiboa lortzen dugu. Norbaitek probatu gura badu, gainera, besapeen lehen saioa doan egiten dugu".

### Ile tratamenduak

Horrekin batera, laranek bezeroen ilearen osasuna zaintzea du ardatz, eta, hori lortzeko, adituak ditu ohiko lantaldeari laguntzen: "Gurean 16 urteko esperientzia duen eta aditua den trikologoa etortzen zaigu hilean behin

oso eraginkorrak diren ile-tratamenduak lantzen; harekin kontsulta egitea doakoa da", kontatu du Inesek.

### Luzatzeak eta beste

Eta laranek eskaintzen dituen bestelako zerbitzuen artean, honako hauek ere

nabarmendu gura izan ditu: doako automakillaje ikastaroa, hasiberriendako. Luzatzeak iletan, %20ko beherapenarekin. Eta gure bezeroei erakusten diegu etxean orrazteko teknikak, plan txak erabiltzen, eta abar".

### Betiko prezioak, betiko kalitatearekin

	MOTZA	ERTAINA	LUZE
Garbitzea	3€	3€	3€
Orraztea	11,50€	13,50€	14€
Moztea	12,50€	12,50€	14€
Kolorea	16€	16€	18€
<b>GUZTIAK</b>	<b>43€</b>	<b>45€</b>	<b>49€</b>
Garbitzea, moztea eta orraztea	27,50€	28,50€	29,50€

Unisex fotodepilazioa. Ate irekiak  
Maiatzak 17, Proba eta kontsulta doan

09:30 - 19:30 larunbatak: 08:00 - 14:30

Zerrajerara 1 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 79



943 71 17 68

# EAJk atez atekoaren kontra sinadurak batzeko mahaiak ipiniko ditu bihar

- ▶ Atez atekoaren kontra Bergaran sortutako herri plataformarekin bat egiten dutela adierazi dute
- ▶ Udal Gobernuak proposatzen duen sistemarekin %80 birziklatzen dela gezurra dela dio EAJk

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Bergarako EAJk bere egiten ditu atez ateko zabor bilketaren kontra herrian sortu den herri plataformaren eskaerak, eta bide horretan arituko da lanean. Hori adierazi zuten astelehenean EAJko ordezkariak egindako agerraldian. "Bergarako Udal Gobernuak martxoaren 26ko osoko bilkuran atez ateko hondakin bilketaren modeloa ezartzea erabaki zuen. Osoko bilkura hartan, herri plataforma batek atez atekoaren aurka eta bosgarren edukiontzien alde, eta Bergarako herriari hitza emateko galdeketa baten alde egin zuen ia 3.000 sinaduraren babesarekin eta Gobernutik ez zaio aipamenik ere egin", adierazi zuten. Hori horrela, herri plataformarekin bat egin eta bide horretan lan egingo dutela adierazi zuten.

## Sinadura bilketa bihar

Hori horrela, sinadurak jasotzeko mahaiak ipiniko dituzte datorren zapatuan, maiatzaren 12an,



Bergarako EAJko ordezkariak; Aintzane Oiarbide, Hernaniko webgunetik hartutako datuak erakusten. | ARRITXU BARRUSO

herriko hainbat lekutan: Labegarietan, Irala kalean, Matxiategin, merkatuan eta Fraisko zurin egongo dira sinadurak batzen.

Horrez gain, EAJk hondakinak kudeatzeko proposatzen duen ereduaren berri emateko, Karlos Ormazabal Ingurumen diputatu ohiak hitzaldia egin zuen eguaztenean Irizar jauregian.

## ESANAK

**"Gobernutik ez zaio aipamenik ere egin herri plataformari"**

AINZANE OIARBIDE | EAJ

## "Datuk ez dira egia"

EAJko ordezkariak eguazteneko agerraldia aprobetxatu nahi izan zuten herritarrei hainbat azalpen emateko. Hori horrela, adierazi zuten ez dela egia atez ateko hondakin bilketak edukiontzienak baino emaitza hobekak lortzen dituenik. "Ez da egia, inolaz ere, atez atekoarekin %80 birziklatzen denik. Sailkatuta jasotzen den

guztia, atez ate edo edukiontzien bidez, ez da birziklatzen. Gutxienez, %30 birziklatzen da". Horrez gain, garestiagoa ere badela adierazi zuten, eta Hernaniko kasua azaldu: "Aurreko ereditik atez atekora pasatzea 600.000 euro garestiagoa ateratzen zaie hernaniarrei. Ez dira guk asmatuko datuak, Hernaniko Udalaren webgunetik ateratako datua baizik".

Bergarako Udal Gobernuarengana ere zuzendu nahi izan zuten. EAJren esanetan, Udal Gobernuak ez dauka aurrekonturik ez eta plangintzarik bergararrei atez atekoak zenbateko kostua ekarriko dien jakiteko, eta "transparentzia falta" eta "arduragabekeria" egotzi diote: "Udalaren egoera ekonomikoa larria da eta ezinezkoa da beharrezkoa ez den ezertan euro bakar bat gastatzea".

## Kudeaketa integrala

EAJko ordezkarien ustez, hondakin kudeaketa integrala behar da, "Batzar Nagusietan onartuta dagoena". Edukiontzien sistema proposatzen dute, "borondatezkoa, garbia, merkeagoa, herritar bakoitzaren intimitatea zaintzen duena eta herri estetika kontuan hartzen duena" delako.

Bestetik, adierazi zuten ingurumenarekiko konpromisoa ez dela berria: "EAJ azken 10 urteotan hondakin gestio integralaren alde lanean aritu da eta edukiontzien sistemarekin hasi ginenetik birziklatzeko portzentajeak asko igo dira".

# Musikarekin hazi, hezi eta bizi...



**Musika eta mugimendu tailerra (5 urtetik aurrera)**

**Hizkuntza Musikala (helduentzat ere)**

**Abesbatzak (5 urtetik aurrera)**

**Instrumentu musikalak**

**Biolina (Suzuki metodoa 3 urtetik aurrera)**

**Organoa**

**Musika hezkuntza berezia**

**Taldeak: Orkestrak, banda, trikitixa, abesbatzak...**

**Matrikula zabalik ekainaren 15era arte**



Begarako Musika Eskola

Tel: 943765780

idazkaritza@bme.e.telefonica.net



Begarako Udala

# Aurrekontua onartu dute Gobernuaren botoekin

EAJko zinegotziek eta PSE-EEko ordezkariak ezezko botoa eman zuten astelehenero ezohiko bilkuran

EDU MENDIBIL | BERGARA

Gobernua osatzen duten Bildu eta Aralarko botoekin udal aurrekontuen behin betiko onarpena onartu zuen udalbatzak astelehenero ezohiko osokoa. Oposizioak, EAJko zinegotziek eta PSE-EEko ordezkariak ezezko botoa eman zuten. 20,7 milioiko aurrekontua da onartutakoa, %4,8ko jaitsiera iazkoarekin alderatuz.

Boto esplikazioan Ander Alberdi EAJko zinegotziak hartu zuen hitza bere alderdiaren desadostasuna azaltzeko: "Partida handietan ez dugu murrizketarik ikusten eta bai, aldiz, kultura, hezkuntza edota euskararen. Zalantza ikusten ditugu aurreikusitako sarrera guztiak eta Udala maniobrarako tarterik gabe geratzen dela uste dugu. Zaborren gaiarekin, bestalde, bideragarritasun planik ez da egin eta defizitarioa izango da atez ateko sistema, galerak ekarriko ditu herriarendako. Udaleko lan hitzarmenak hurrengo urteetan zer nolako eragina izango duen ere ikusteko

dago. Pertsonal gastuari dagokion lehen kapituluaren igoera onartu da eta legearen kontrakoa dela uste dugu".

## Udal gobernuaren azalpena

Udal gobernuak, berriz, idatzia igorri du aurrekontuaren gainean: "Ez da ariketa erraza izan aurrekontuak orekatzea. Nagusiki bi faktorek zaildu dute lana: bizi dugun testuinguru ekonomikoak eta aktibitatearen gutxitzeak sarre-  
rak behera egitea ekarri duelako, batetik, eta, bestetik, Aldundiko Foru Fondotik izandako jaitsierak, iazkoaz alderatuz %7,7ko jaitsiera aurreikusi da (700.000 euro). Hiri-gintzako sarrerak ere %63,5 behera egin dute (540.000 euro gutxiagoko sarrerak aurreikusten dira). Aurrekontu osoa 2011rekin alderatuz %5,1 jaitsi da. Sarrerak zehurtiaz aurreikusi dira eta langileen soldatak ez jaisteko ahal-  
gina egin da. Iaztik hona soldatak mantendu egingo dituzte udal langileek. Bestalde, derrigortasun legalak dituzten gastuak lehenetsi

behar izan dira (indarrean dauden kontratuak, langileen soldatak, Mankomunitateari ekarpenak, kontsultazioari egin beharreko ordainketak...). Horrez gain, helburu bat lehenetsi da: ongizateko zerbitzuetan murrizketarik ez egitea; aurrekontu osoaren %11,6 suposatzen du. Herritarrekin egindako Plan Estrategikoan jasotzen diren beste helburu batzuk ere lehenetsi dira: garraio publikoa sustatu, herribusa martxan jarri, eta Zero Zabor filosofia bultzatu. Bergarak 1.345.060 euro ordainduko ditu zaborren kudeaketagatik, kopuru honetatik 60.000 euro atez atekoaren ezarpen gastuak dira, aurrekontu osoaren %0,3. Zoritxarrez badira murrizketak jasan beharko dituzten arloak: Kultura eta jaiak (%25eko murrizketa), hezkuntza eta euskara (%15), obra eta zerbitzuak (%9) eta auzoak (%31). Inbertsioetan ere jaitsiera nabarmena aurreikusi da: % 34,5. Ez da zorra murriztuko, amortizatzatzen denaren adinako kreditu eskaera egitea aurreikusi baita".

## Miguel Okina margolari ezagunak emango die hasiera Pazkoei

A. BARRUSO/E.M. | BERGARA

Bergarako margolari ezaguna izango da aurten Mendekoste jaiei hasiera emango diena: Miguel Okinak jaurtiko du Bitorianatxo jaitsi aurreko etxafuegoa.

Espainiako gerran parte hartu eta gerra hurra sufritutako guztiak omendu nahi ditu Udalak: "75. urteurrena dela eta Espainiako gerran parte hartutakoak omendu nahi genituen, baina oso zaila da gaur egun Bergaran gerran parte hartutako herritarren topatzea. Miguel Okinak 12 urte zituen orduan eta oso gertutik bizi izan zuen Espainiako gerra", adierazi digu Edurne Kortak, Udaleko



Miguel Okina. | ARTXIBOA

Kultura teknikariak. Okinak 87 urte ditu egun eta Bergarak eman duen margolari onenetakoa da, zalantzarik gabe.

## Estankona eta Bertso-tavern gaztetxean gaur

E.M. | BERGARA

Egubakoitzak kartzelan zikloarekin jarraituz, Estankona eta Bertso-tavern izango dira gaur gaztetxean. Kontzertua 22:00etan hasiko da eta sarre-  
rak 3 eurotan izango dira salgai. Borja Estankona musikari gazteak gertutik eta sentimenduz abesten du. Bertso-tavern proiektuan bertsoak dira erdigune: Manex Agirre, Ander Solozabal eta Julen Zulaika dira atzean. Gaur gaztetxera joaterik ez dutenendako Txapa Irratiak eskainiko ditu emanaldiak.

## NIRE USTEZ

ANDRES OSA  
'SAKONA'



Guk, zergatik ez?

Erizainak behar dituztela eta guregana etorri dira finlandiarrak. Bi mila baino gehiago prest azaldu dira joateko. Ezinbesteko baldintza, euren hizkuntza ikasi behar. Lanbide desberdinetan (udaltzainak, ertzainak, erizainak...), oro ar funtzionarioak. Euskalduntze premia ikusten al da? Oposaketak direnean euskarak ez omen du ezertan inor baldintzatuko. Bapo! Ondorioz ospitaletan, ambulatorioetan, zer entzuten da?

Unibertsitateak zerikusi handia du euskalduntze alorrean. Tamalez, diskriminazio positiborik ez da egiten. Sendagileak falta direla bai

baina hemengo neska mutilei inolako erraztasunik ez zaie ematen. Beste ofizioetan ere *antzeko parezido*. Non dago gakoa? Badira 500 urte Maquiavelok esan zuela: "boterea, politikoa zein bestelakoa eskuratzea funtsezkoa da gizartean taxuzko zerbait egin nahi bada eta, botere hori herritarren zerbitzuan, herritarren beharrei erantzuteko erabiltzen ez bada hobe eskuz aldatzea". Norbaitek uste al du euskara betiko topikoak erabiliz "dakitenek... bla bla.. behartzeke... blu blu" jardun horrekin salbatuko dela? Eta ez dezagun ahantzi, euskararik gabe ez dago euskal herririk.

Hemen botereak dituen eskumenak erabiltzeko arazo nagusia honetan datza: agintari askok kontzientziaren arrastorik ez dutela; kontrarioak eta etsaiak ere badaude; beste asko epelkerian eta geldotasunean murgilduta dabilta. Finlandiak bai, guk zergatik ez?

## OHARRAK

### MUSIKA ESKOLA

Hurrengo ikasturterako matrikulazio epea zabalik dago Musika Eskolan ekainaren 15era arte. Idazkaritzako orduetgia: 15:30etatik 19:30era. Argibideak 943 76 57 80 telefonoan.

### OIHULARI ZABALOTEGIN

Oihulari Klown taldeak Zai beti zai antzezlan eskainiko du gaur, egubakoitza, Zabalotegin, 22:00etan. Sarrerak, 5 eurotan.

### ARITZETA ETA ALAI BIHAR

Aritzeta eta Alai abesbatzen emanaldia izango da bihar, zapatuan, Mariaren Lagundiko elizan, 20:00etan.

### SENDABELARRAK UBERAN

Sendabelarren ikastaroa antolatuko dute Uberako Jaolatzak elkartearen elkarrekin 19rako, 10:00etatik 14:00etara. Plaza mugatuak dira eta lehentasuna auzotarrek izango dute. Izen-ematea (15 euro, 10 erreturatuendako) hilaren 13ra arte

zabalik. Plaza mugatuak. Argibideak: 943 76 04 23.

### MUSIKA UDALETXEAN ETZI

Musika Eskolako haize eta soka taldeen eskutik *Beethoven ezagutuz* emanaldia etzi, domeka, udaletxean, 12:30ean.

### TXOTXONGILOAK DOMEKAN

Txotxongilo taldearen *Itsasminen* haurrendako lana ikusteko aukera izango da domekan, Zabalotegin, 18:00etan. Sarrerak, 5 eurotan.

### POL-POLEKO BATZARRA

Pol-Pol elkarteak ohi kanpoko batzarra deitu du maiatzaren 23rako. Elkarrekin lokal berrian egingo dute, Udal Pilotalekuko lehen solairuan, lehen deialdian 18:30ean eta bigarrean 19:00etan.

### ERAKUSKETA RAIZABALEN

Datozen asteotan Itziar Murgizuren margolanak ikusgai izango dira Raizabal gozotegian, Artekalean.

**PATXI CASTRO**

Era guztietako aukien konponketa

- Tapizatu lanak
- Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
- Besaulki, mahai, saskiak e.a

**943 78 71 65**  
**639 01 69 69**

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

**Matxiategi 8. BERGARA**  
Tel.: 943 76 15 09

**UGARTE**  
AROTZEGIA - ALTZARIAK

**AROTZEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

**BERGARA**

**disdira**

ile-apaindegia edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!

**EUXEBIO II**

Irala z/g  
Bergara  
943 76 07 92

Gizarteak daukan behar bat da

**Angel**  
35 urte  
Mutriku

ikasbideak begiak zabaldu dizkigu

**Olga**  
45 urte  
Elgeta

persona moduan hazteko balio dit

**Maito**  
19 urte  
Eskoriatza

**Yoana**  
32 urte  
Getaria

umeek gauza asko erakusten dizkigute.

**Iñigo**  
20 urte  
Azkoitia

nesken gauza? inola ere ez!

**GUSTOKO DUGU**

**EGITEN DUGUNA!**

## GIZARTE INTEGRAZIOKO Goi Mailako Teknikaria

- %84,6ko Lan munduratzea
- PRAKTIKAK  
Europar egiteko aukera
- Plaza mugatuak

**ATE IREKIAK**  
maiatzaren 16a  
17:30etan

**AURREMATRIKULA:**  
maiatzaren 28tik  
ekainaren 8ra

## HAUR HEZKUNTZAKO Goi Mailako Teknikaria

- %100a Lanbideratzea
- PRAKTIKAK  
Europar egiteko aukera
- Plaza mugatuak



**Mariaren Lagundia  
Ikastola**  
Espaloia 1  
Tel. 943 76 25 40 / 41  
ikastola@mlagundia.net  
[www.mlagundia.net](http://www.mlagundia.net)

Profesionalak gertatzen 1976-tik

# Txokolateixiaz gain, interpretazio zentro bat irekiko dute Oñatin

Udalak eta Klaxk-ek, Oñatiko txokolatearen aldeko elkarrean, zentroa egiteko hitzarmena egin dute

MAIALEN REGUEIRO | OÑATI

Oñatin garai batean zazpi txokolate lantegi egon ziren; besteak beste, Loiola, Gereka eta Zahor. Gaur egun, ordea, bakarra dago. Lantegi horretan egiten diren produktuetako batzuk Oñatiko Txokolateixian daude salgai, baina dendako jabe Anton Azpiazu oñatiarra duela egun batzuk dena denda izatekoan egon zen. Oñatiko txokolatearen aldeko elkarrean kide da Azpiazu (Klaxk), eta elkarre horrek proposamen bat egin zion Oñatiko Udalari. Proposamena izan zen Oñatin txokolatearen interpretazio zentro bat irekitzea.

## Interpretazio zentroa

Bada, Udalak onartu egin du Klaxk elkarrean egindako proposamena, eta Oñatiko alkate Mikel Biainek hauxe esan du: "Oñatin interpretazio zentroa egiteko proiektua martxan jarri behar da".

Mikel Biainen esanetan, "beste herri batzuetako jendeak Oñati herri txokolatero gisa ezagutzen du. Zoritxarrez, gaur egun txokolatea egiten duen lantegi bakarra dago, denda batzuetan bertako produktuak saltzen diren arren,

eta pena izango litzateke Oñatik aspalditik duen esentzia hori galtzea". Proiektua martxan jartzekotan da, eta Udala dagoeneko jarri da harremanetan Klaxkeko kideekin. Orain, zentro hori irekitzeko leku bat behar da, eta hori eginda dagoenean hasiko dute proiektua.

## Klaxk taldea

Klaxk elkarteko kideek txokolateari buruzko ezagutza daukate, eta baita materiala ere. Biainek dioenez, "Klaxk-eko kideen arduraz izango da interpretazio zentroan materiala jartzea". Bada, Txokolateixian garai bateko txokolatea egiteko materiala ikusgai dago, eta horiek interpretazio zentroan egoteko asmoa daukate. Zentro

horretan, materiala ikusgai egoteaz gain, jendeak txokolateari buruz gehiago jakin ahal izango du; hau da, txokolatea egiteko behar diren osagaiak... zeintzuk diren ikusgai egongo dira eta horien gaineko azalpenak ere emango dira. Besteak beste, Oñatin txokolatea egiteko ze kaka erabiltzen den erakutsiko da.

Interpretazio zentroa irekitzen denean, gaur egun Txokolateixia bezala ezagutzen daren esentzia ez da galduko. Dendaren jabe Anton Azpiazuren arabera, "interpretazio zentroa irekitzen denean, denda ez da alde batera utziko eta txokolatea saltzen segituko da". Beraz, jendeak txokolatea erosteko aukera izaten segituko du.

## ESANAK

"Oñatik herri txokolatero izaten segitzea nahi dugu"

MIKEL BIAIN | OÑATIKO ALKATEA

## ESANAK

"Txokolateixian txokolatea saltzen segituko da"

ANTON AZPIAZU | KLAXK-eko KIDEA

## Euskal Memoriaren Taldea aurkeztuko dute eguaztenean

Oñatiko Euskal Memoriaren Taldea aurkeztuko dute eguaztenean, hilak 16, kultura etxe-ko zinema aretoan, 19:00etan. Nuria Alzugaraik hartuko du parte ekitaldian, Euskal Memoriaren Fundazioko kideak. Fundazioaren lanaz gain, Oñatiko lantaldearen jarduna ere azalduko dute.

## Gaur arratsaldean jaitsiko da Kasablankako Isidrotxo basurdea

18:00etan jaitsiko da gaur Isidrotxo basurdea eta etxafuegoak botata eta herri-poteoa eginda hasiko dituzte aurtengo San Isidro jaiak Kasablankan. Gaurtik domekara bitartean, txorimaloak, auzo afaria, auzotarrendako luncha, aurpegiak margotzeko tailerrak eta musika emanaldiak egongo dira, besteak beste.

## Arantzazuko 43. igoera egingo dute bihar txirringulariek

Aloña Mendiko txirringularitza sailak antolatuta, Arantzazuko igoeraren 43. edizioa jokatuko dute bihar, zapatua. Gazte mailako ziklista onenak bilduko dira, 90 bat guztira, Ulma Aloña Mendi taldeko lau tartean. Igoera 16:30ean hasiko da, Portalekuan, eta Sindikan bukatuko da.



Gandiaga Topagunean egongo da aterpetxea. | GOIENA

## Batez ere taldeei zuzendutako aterpetxea egingo dute Arantzazun

Gandiaga Topagunean egongo da, eta 35-40 pertsonarendako lekua izango du

TXOMIN MADINA | OÑATI

Duela hamar urte inguru Arantzazu eraberritzeko planari ekin zitzaionean, Arantzazun aterpetxea egitea izan zen planak jasotzen zuen ekintzetako bat. Bada, urtetan geldu egon ostean, azken hilabeteotan berriz ere heldu dio helburu horri Arantzazu Gaur Fundazioak.

Mikel Biain Oñatiko alkatearen esanetan, abenduan Fundazioaren patronatuan jarraitu edo ez erabaki behar izan zuten: "Hausnarketa egin genuen, eta Arantzazuko Oñatin hainbat mailatan duen garrantziagatik kide izaten jarraitzea erabaki genuen. Baina Fundazioaren ordura arteko helburuak birplanteatu beharra ere ikusi genuen, eta adostu genuen helburuetako bat izan zen aterpetxea egitea". Bideragarritasun plana egin zuten eta apirillean egindako bileran plan hori onartu eta aterpetxea eraikitzearekin ados agertu zen Fundazioa.

## Gandiaga Topagunea

Norbanakoak ere joan ahal izango diren arren, aterpetxea batez ere taldeei egongo da zuzenduta, esaterako ikasle zein erromes taldeei. Aurreproiektuaren arabera, 35-40 pertsonarendako lekua izango du.

Onartutako bideragarritasun planean urteak dituen eskola-aste guztiak hartzen dira kontuan eta ikasleei begira aste barrua bi zatitan banatzen da: astelehene-eguztengoa eta eguztengoa. Askotariko ekintzak ere planteatzen dira, hala nola Arrikruzeko Kobak, ibilbide gidatuak, Gomiztegiko artzain eskola... Alkatearen esanetan, taldeei eskaintza zabala

egitea da asmoa, baita ezagutze-ara ematea ere: "Behin aterpetxea eraikita, bertan dagoen eskaintza zehaztu eta horren berri eman beharko zaie ikastetxe eta bestelakoei, eta horren arduraz Oñatiko Turismo eta Garapen Agentziarena izango da".

Behin betiko proiektua egiteko dagoen arren, aterpetxea Gandiaga Topaguneko beheko aldean egongo da, 250 metro koadro inguru dituen eta egun hutsik dagoen esparruan. Biainen esanetan, saiatuko dira aurreikusita dagoena baino jende gehiagorendako lekua egoten, baina zehazten du hori Jaurlaritzak ezartzen dituen baldintzen arabera izango dela

## Finantzaketa eta epeak

Finantzaketari dagokionez, Fundazioaren patronatuko kide bakoitzak egiten duen ekarpenaz baliatuko da: urtero kide bakoitzak egiten duen ekarpenaren erdia horretarako bideratuko da. Oñatiko Udalaren kasuan, 60.000 euro da patronatuko kide moduan urtero egiten duen ekarpena. Frantziskotarrak, Aldundia, Kutxabank eta Mondragon Taldea ere badira patronatuko kide.

Asmoa da aterpetxea bi urte barru amaituta egotea, nahiz eta alkateak posible ikusten duen urte eta erdian ere egotea amaituta.

## Programazio zabala landu gura dute aterpetxearen inguruan

Zatoz 208 berria ezagutzera!



OÑATI GARAJEA  
PEUGEOT ETXEKO TAILER OFIZIALA

Mekanika, txapa, pintura,  
salmenta berriak eta 0 km.



# Brigadako bi langile kontratatzea onartu dute

Torresoroa gizarte etxea Eulen enpresak kudeatuko du urtebetez

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Maiatzeko osokoan, hainbat ordenantzaren aldaketak onartu dituzte: pilotalekua abuztuan irekita egotea, Eztala futbol zelaiaren ordutegia eta eskolako patioaren erabilera aldatzeko proposamenak. Ordenantza horiek GAO-n irten go dira eta 30 eguneko irteerarekin aurkezteko aukera. Bestalde, Torresoroa gizarte etxearen erabilera eta kudeaketaren esleipena ere onartu zuten. Hala, urtebeterako Eulen enpresari adjudikatu zaio, lau urtez luzatzeko aukerarekin. Eulen enpresa izan da aurkeztu den bakarra.

Bestalde, Iñaki Iartzaga Hirigintza zinegotziak terrazen tasak erabilpena egokitzen saiatu direla azaldu digu. "Orain arte, urte osoan tasa bera zegoen, eta hori egokitu gura izan dugu. Negu partekoa eta udakoa berdintzeko tasak egokitu nahi ditugu". Erretzearen legearen ondorioz, jendea neguan ere terrazan egoten dela azaldu digu Hirigintza zinegotziak: "Terrazek neguan erabilera izaten dute, eta, beraz, tabernariei lagunduz, tasa berriak jarriko ditugu".



Torresoroa gizarte etxea, Sagasti auzoan. | MAIDER ARREGI

## Brigadako bi langile

Udalan dauden bi lanpostu egonkortzeko asmoa du Antzuolako Udala Gobernuak. Eguazteneko osokoan, izaera balioaniztuna duten bi langile –horietako bat elektrizitatean espezialista dena– kontratatzeko deialdia egiteko proposamena onartu zuten. "Gure asmoa da lanpostuak egonkortzea", azaldu zuen Mikel Jauregi zinegotziak. Aldizkarian irten, eta 30 eguneko epearen ostean deialdia

zabalduko da. EAJ alderdiko Mikel Lete eta Maria Eugenia Arrizabalaga zinegotziak, aldiz, abstenitu egin ziren. "Bi lanpostu horietarako titulazio gehiago eskatzen da eta horren ordaintan soldatak gehiago igotzeko proposatzen da. Egun, Antzuolako Udalak duen egoera ekonomikoa kontuan hartuta zuhurtasunez jokatu beharra dagoela uste dugu", nabarmendu zuen Arriabalagak osokoan.

# Erregistroak euskaraz egin daitezke epaitegian

Aurrerantzean, haur jaioberriak, ezkontzak eta heriotzak euskaraz inskribatu ahal izango dira

M.A | ANTZUOLA

Bake epaitegietan *Inforeg* izeneko aplikazioa instalatu arte ez da posible izan euskarazko erregistroak egitea. Aplikazio informatikoa instalatu aurretik erregistroak gaztelaniazko liburuetan egin behar ziren, eta, horregatik, gaztelaniaz egin behar ziren ezinbestean. Orain, bake epaitegietan egin beharreko inskripzioak euskaraz egin ahal izango dira Antzuolan –jaiotza, ezkontza eta heriotza erregistroak.

## Borroka luzea

Erregistroak euskaraz egiteko trabak aspalditik salatu dituzte euskalgintzako hainbat eragilek eta dozenaka gurasok. 2005aren aurreko legeak ez zuen erregistroak euskaraz egiteko aukerarik jasotzen; beraz, ezin zen euskarazko erregistroak egin. 2005eko ekainean, 1957ko Erregistro Zibilen Legearen 23. artikulua aldatu behar izan zuten, erregistroetan gaztelania ez beste hizkuntza ofizialak erabili ahal izateko. Baina

hori ere ez zen nahikoa izan herriz herri aukera hori gauzatzeko. Legeak onartutakoa ukatu egiten zitzaie gurasoei, euskarazko erregistroak egiteko euskarrik ez zegoela argudiatuta. 2007tik aurrera galizierako eta katalaneko erregistroak legezkoak izan arren, haur jaioberriak euskaraz erregistratzeko eskaerak atzera bota dituzte sistematikoki, gainera.

2008ko abuztuan, Arartekoak ere arrazoia eman zien erregistroa euskaraz egitearen aldeko.

Gaztelaniaz bakarrik egiteko derrigortasunaren aurrean, asko izan dira lanean aritu diren eragileak: Hizkuntza Eskubideen Behatokia eta UEMA. 30 udal baino gehiagotan mozioak onartu zituzten erregistroak euskaraz egiteko eskubidearen alde.

# Flauta familiaren Aratuste jaia bihar

Euskal Herriko Flauta Orkestrak askotariko erritmoak dituen kontzertua eskainiko du

M.A | ANTZUOLA

Koloretsua eta erritmo biziko kontzertua izango da. Zeharkako flautaren familia osoaz –solen dagoen flautaz, flauta baxuaz, eta flauta kontrabaxuaz– gozatzeko aukera izango da bihar, 20:00etan, Torresoroan. Lan klasikoez gain, gaur egungo piezak ere eskainiko dituzte.

15 lagunek osatzen dute Euskal Herriko Flauta Orkestra. Tartean, Orkestran 12 urte daratzen Alaitz Zabalo antzuolarra dago. Biharko zuzenekoan Franz Doppler flauta-jotzaile handiaren obra joko du solista gisa, gainera. 35 urte ditu eta Bilbon bizi da Zabalo.

"Herrian kontzertua emateak urduritasun pixka bat ematen dit; betiko lagunak, familia... bertan izango dira eta ilusio handia daukat", azaldu digu gazte antzuolarrak.

## Askotariko erritmoak

Bost obra joko dituzte emanaldian, eta hiru obratan solistak hartuko dutela parte kontatu digu Zabalo.

Musika barrokoa, Mozarten *Flauta magikoa* obra ezaguna, Doppler-en doinu hungariarrak eta Lorcani omenaldia egingo zaion doinua entzuteko aukera izango da. Askotariko erritmoak.

## Flauten Aratuste

Kontzertuaren bukaeran, gainera, Salvador Espasa zuzendariak idatzitako obra batek borobilduko du emanaldia. "Musika garaikidea duen lana joko dugu, *Carnaval de flautas* izeneko. Erritmo eta harmonia ezberdinak batzen dituzten piezak dira eta flautaren familia osoak hartzen du parte", azaldu digu Zabalo.



Euskal Herriko Flauta Orkestrako kide batzuk. | ALAITZ ZABALO

## OHARRAK

### ODOL-EMATEA

Hilaren 17rako (eguna) odola ateratzera joateko dei egin dute Odol Emaileen Elkartetik. 17:30ean hasita Orlanaren eman daiteke odola.

### PILOTA

Udaberri sariko alebina partidua gaur. Olalde eta Arrasate aurrez aurre, 19:00etan, Antzuolako pilotalekuan.

### BILERA INFORMATIBOA

Udan ume sahararrak etxean hartzeko familientzako bilera informatiboa. Gaur, 19:00etan, Orlanaren.

### FUTBOLA

Antzuolak Zestoan jokatuko du ligako azken partidua, zapatuan. 47 puntu ditu eta matematikoki bigarren postuan geratzeko aukerak ditu, irabaziz gero.

**EGAÑA**  
Era guztietako arotz lanak  
Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak  
Kalégoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

**GAILUR**  
taberna eta gozotegia  
Buztinzuri 13 ANTZUOLA  
Tel.: 943 78 70 32

**MUJIKA HARATEGIA**  
  
Berezitasunak:  
Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak  
Kalebarren 1 ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 64 34

**LARREA**  
**TABERNA**  
Kalebarren 17 ANTZUOLA

# Zure semeak edo alabak ingelesa **ikastea** nahi duzu?

## Sartu

centrocomercialgorbeia.com-en

# Irabazi 3 asteko ikastaroa Irlandan

bidaia eta egonaldia barne\*

\*Oinarriak irakurtzeko:  
[www.centrocomercialgorbeia.com](http://www.centrocomercialgorbeia.com)

  
**GORBEIA**  
10 URTE **AURREZTEN**

Sustapenak 2012ko Maiatzaren 11tik  
Ekainaren 2ra iraungo du

# AUTOAK

## Garaiotara egokitzen jakin

Auto etxeak krisira egokitu dira, bezeroaren eskaerak eta autoen kalitatea lehenetsita | XABIER URTZELAI / JOKIN BEREZIARTUA

**G**arai berriei egokitutako autoek dute orain arrakasta handiena: bezeroaren eskaeren arabera prezioak, kontsumo txikia eta matxurarik edo buruhausterik eragiten ez duten autoak. Krisiak krisi, auto etxeek jakin dute bezeroaren behar berriei erantzuten, betiere kalitateari muzin egin gabe. Hori berretsi digute bisitatu ditugun Opel, Ford, Nissan, Citroen, Audi eta Volkswagen etxeek.



Audi etxe alemaneko Q3 modeloa.



Ford Focus berria, salduenen artean oraindik.



Nissan Qashqai, lur orotariko ibilgailuen artean aitzindaria.



Opel Zafira Tourer modelo iksugarriak hainbat aukera eskaintzen ditu.

### OPEL: 2012 URTEKO AUTORIK FIDAGARRIENAK

Opel etxearen autoak fidagarrienak dira merkaturatzen diren unean. Hala erakusten du Dekra sariak, autoen ekoizpenean gertatzen diren akatsak modurik zorrotzenez aztertzen dituen Alemaniako elkarteak. 2010ean Opel Corsa, iaz Opel Insignia eta aurten Opel Astra; hiru urte darabate jarraian sari hori lortzen.

Opel etxean hamar urte darabate Xabi Tristan saltzaileak Opel Zafira Tourer modeloa nabarmendu du: "Duela lau hilabete irten zen eta oso harrera ona izan du. Diseinu aldetik oso erakargarria eta ezberdina da. Barrutik hamaika aukera eskaintzen ditu aulkiekin jokatzeko eta prezioaren eta kalitatearen arteko erlazio ezin hobea du". Opel Insignia modeloak duela hiru urte markatutako ildoari jarraitu dio Zafira Tourer modeloa. Hau da, kalitate aldetik beste maila batera egin du salto. Bestalde, Opel Astra ere asko salten dela dio Tristanek: "Gamaertaineko autoa da, baina goi gama-



Citroen etxeko lehenengo automobil hibridoa, DS5 autoa.

ko ezaugarri asko ditu. Seinaleen errekonozimendua, argi moldagarriak... denetarikoz erraztasunak eskaintzen ditu".

Tristanen arabera, krisiak erdira jaitsi ditu salmentak: "Hori bai, jende gutxiago etorri arren, etortzen direnak erostera etorri ohi dira, eta prezioarekin askoz zorrotzagoak dira".

### FORD: TEKNOLOGIA, DISEINUA ETA KALITATEA

1978a ezkerko Ford Mugarrin lanean diharduen Rafa Etxabek Focus "familia" nabarmendu du: "Focus berriaren gaman hiru produk- ➤

CARPE DIEM



NISSAN JUKE  
1.6i ACENTA 117 2P

15.350€-ren truke

NISSAN QASHQAI  
1.6i ACENTA 117 2P

17.500€-ren truke

SHIFT the way you move



GAURSA

Otaola etorbidea 22 - Eibar 20600  
tel. 943 82 09 74  
www.gaurcars.com

Juke: Kontsumo mistoa: 6 l/100 km. CO<sub>2</sub> emisioak: 139 g/km.  
Qashqai: Kontsumo mistoa: 6,2 l/100 km. CO<sub>2</sub> emisioak: 144 g/km.  
\*Nissan Juke 1.6i Acenta 117 CV (86 kW) eta Nissan Qashqai 1.6i Acenta 117 CV (86 kW) autoetarako gomendatutako PSP penintsulan eta Balearretan, hauek bame: FAP, garraioa, BEZ eta GBZB. Eskaintza balagarria partikularrentzako Nissan Juke eta Nissan Qashqai erostera, 10 urte baino gehiagoko antzintasuna duen autoa entregatzen badute eta hori erostearren jabetzakoa izan denean gutxienez azken 6 hilabeteetan, NISSAN RENUOVA PLANA deskontu aldakorarikin Pixo, Micra, Note, Juke, Qashqai eta Qashqai+2 gametarako. Ez da bateragarria izango beste kanpaina batzuekin eta 12/05/31 arte egongo da indarrean. Informazio gehiago nahi baduzu, joan zaitez Nissan kontzesionario hurbilenera. Baliteke erakutsitako irudia publizitateko modeloarekin bat ez etortzea.

PLANA NISSAN  
RENUOVA

tu eskaintzen ditugu: Focus, Focus C-max eta Focus Grand C-max. Horietan dugu eskaera handiena". 1998an irten zenetik 10 milioi auto saldu diren modelo honek kontsumitzaileen gustukoaren artean egoten jarraitzen du, teknologia, diseinua, kalitatea eta segurtasuna ardatz dituelako oraindik. Focus modeloaz gain, Ford Kuga goraiatu du Etxabek: "Lur orotariko ibilgailu honek harrera ona izan du, bezeroek azken urteetan praktikotasunaren alde egin duten apustua berretsiz. Estetikoki asko gustatu zaio jendeari eta, era berean, oso auto ona da, teknologia aldetik sistema adimentsua duena. Haldex sistema suediarra aipatzekoa da, gurpilen trakzioa egoera ezberdinetara egokitzen dena".

Krisiak "sekulako jaitsiera" eragin die salmentetan: "Duela 15 bat urte denok aberatsak ginea zirudien, eta beherakada ulertzekoa da. Orain, jendea konturatu da bere aukeren arabera autoa erosi behar duela; lehen ez zen horrela". Lehengo egoerara itzultzetik urruti, krisia noiz gaudituko den zalantza nagusia: "Arazoa da beherakada hori noiz amaituko den ez dakigula".

#### NISSAN: LUR OROTARIKOEN ARTEAN, LEHEN ETXEA

Jose Luis Larrañaga Nissan etxeko saltzaileak Qashqai modelo nabarmendu du: "Duela bost urte merkaturatu zenetik azkenaldian hain modan dauden lur orotariko ibilgailuen artean lehenengoa



Nissan V200 furgoneta, partikular zein enpresa txikiendako.

da, aitzindaria. Oso harrera ona izan du bezeroen artean; izan ere, oso gutxi kontsumitzen du, eta are gutxiago kutsatu. Gainera, ez du matxurarik eragiten". Horiek dira Qashqai modeloaren arrakastaren sekretu nagusiak, Larrañagaren arabera.

Bestalde, Nissan V200 furgoneta ere nabarmendu du Larrañagak: "Furgoneta txikia izanik, kontsumitzaile partikularrendako eta enpresendako oso egokia da. Krisiari aurre egiteko asmoz jaiotako ibilgailua da, prezioa, kontsumoa eta emisioa izugarri murriztu ditu-eta". Furgoneta honek oso harrera ona du naturarekin zerikusia duten planak egiten dituztenen artean eta enpresa txiki zein autonomoen artean. Ibilgailu honen kalitatearen zein mantenu merkearen erakusle da New York hirian taxi ofiziala izendatu berri dutela. Nissan



Opel Astra berriak ere oso harrera ona izan du bezeroen artean.



Ford Kuga, lur orotariko ibilgailu ikusgarria.

www.citroen.es  
CITROËNek nahiago du TOTAL

## HIBRIDOA&DIESELA

SAR ZAITEZ BESTE ARO BATEAN



### Citroën DS5 HYBRID4

Citroën DS5ek, diseinu harrigarria izateaz gain, ezaugarri teknologiko paregabeak eskaintzen ditu. Full Hybrid diesel sistema (200 ZP, 147 kW), lau gidatze modurekin: AUTO, SPORT, ZEV ETA 4WD; horrek 3,8 litroko kontsumoa bakarrik izatea dakar. Barrualdea unibertsu aeronautikoan inspiratu da eta bi kontsola zentral ditu, bata behekoa, klasikoa, eta bestea goikoa. Cockpit sabaiduna (Head Up Displayrekin elkarren osagarri dira). Zure segurtasuna eta erosotasuna goi mailara eramateko, sistema berritzaile hauek ditu: adimendun SmartBeam argiak, nahi gabeko karril aldaketarako alerta sistema, Citroën eTouch, eMyWay nabigatzailea eta Hi-Fi Denon soinu sistema. Guztia, etorkizuna islatzen duen silueta errepikaezin baten barruan. Igo zaitez Citroën DS5 autora eta sar zaitez beste era batean.

KONTSUMO MISTOA (l/100 km) / CO2 IGORPENA (g/km): CITROËN DS5: 3,8-7,3/99-169



Kaptura ezazu kode hau eta lor ezazu  
Citroën DS5 autoa probatzeko aukera eksklusiboa

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

Etor zaitez  
probatzera



Debagoieneko Citroën zerbitzu ofizialak:  
**TALLERES CHAPIME S.C.L.** - San Andres 5 Tel.: 943 79 45 22 - ARRASATE  
**AUTOS ION** - Amillaga 36 - Tel.: 943 76 47 49 - BERGARA



**Citroen C4 Aircross autoa.**



**Volkswagen Passat Alltrack autoa.** | ARGAZKIAK: KM77.COM

**AUDI ETA VOLKSWAGEN: TEKNIKAREN ABANGOARDIAN**

Alemaniko automobil etxe horiekin egiten dute lan, besteak beste, Udalaitez kontzesionarioan. Eta bertako ordezkari Jon Galdosek Audi Q3 eta Volkswagen etxeak atera berri duen Passat Alltrack autoak aukeratu ditu; biak ere lur orotariko ibilgailuak: "Erosleek geroago eta sarriago eskatzen dituzten automobilak dira, neurri handian 4x4 (4 Motion izenekoa Volkswageneen kasuan) trakziodun aukera ematen dutelako, eta segurtasun aldetik puntu garrantzitsua delako".

Hala, Audi Q3 modeloaren barruan, Galdosek 170 zaldiko diesel motordun autoa aukeratu du: "Errepidean ederto dabilen autoa da, eta pistetan sartuz gero ere oso ondo moldatzen da. Egutero ibiltzeko moduko autoa da, oso eroso, eta kontsumo neur-tuekin". Volkswagen Passat All-track autoaren kasuan, Audi etxean ezagun egin den Allroad-aren gamako autoa izango litza-teke; Passat Variant autoa oinarri hartuta egin duten automobila, alegia. Passat Alltrack-ean 4 Motion aukera ez da derrigorra (Q3an ere ez), nahiz eta halako ezaugarriak auto bat erosita aukeraketa logikoena izan dai-tekeen. Q3aren kasuan moduan, errepide erosoetatik kanpo ere bikain moldatzen den automobila: "Elurra egiten badu, euri asko, pistarako... auto seguruak. Hori bai, ez dira mendira sar-tzekoak".

etxean ere salmentak erdira jai-tsi dira krisia heldu zenetik: "Erakusketan dauden autoak ikustera ez da ia jenderik etortzen, baina etortzen direnak erosleak izan ohi dira. Denbora laburrean asko aldatu da dena".

**CITROEN: TEKNOLOGIA SORTZAILEA**

Automobil etxe frantziarrak disei-nu eta teknologia berritzaileen aldeko apustu nabarmena egin du azken urteotan. Hala, Chapi-meko ordezkari Mikel Loitik Citroeneko automobilen artean DS5 eta C4 Aircross modeloen aldeko hautua egin du: "Batetik, DS5 autoa C5aren oinarri hartu-ta egin duten linea berritzailea da, ukitu deportiboa duena, disei-nu eta kalitate oso onekoa, baina auto familiarra dena, tamainaz". Hala, Citroen etxeako modelo ikus-garriena da gaur-gaurkoz. Gai-

**Hibridoak eta lur orotarikoak**

Inoiz baino automobil hobeak egiten badituzte ere, egungo garai ekonomikoetara moldatzeko ahaleginetan dabilta automobil etxeak.

Zalantza barik, energia berriztagarrien aldeko apustua nahitaezkoa dela jakinda, automobil elektriko zein hibridoak dira albiste. Ez dakiguna da, oraingoz, automobil etxeak egiten dabilta apustu horiek erosleengan ze harrera duten, gutxi direlako —oraingoz— automobil elektrikoan aldeko apustua egiten dabilta (azpiegitura aldetik ere badago zer landu). Horren aurrean, eta jakinda gasoil edo gasolina prezioak ze gorakada izaten dabilta, automobil etxeak geroago eta motor eraginkorragoak egiten dabilta: erantzun ona kontsumo baxuekin —eta bide batez, kutsadura txikiak. Horren alde egiteko asko dira motor txikien aldeko apustua egin dutenak, esaterako, Ford etxearen Ecoboost motorra (1.000 zentimetro kubikotako motorra 122 zaldiko indarraz, edo Volkswagen etxeako FSi gasolinazko motorrak). Deigarria iruditu zaigu, baita ere, gehienek lur orotariko ibilgailu bat aukeratu dutela, jendea halakoak eskatzen dabilen seinale: erosotasunagatik, segurtasunagatik...

nera, modelo hori aukeratu dute hibridoan aldeko apustua egiteko: "CS5 gamaren barruan 200 zaldi-ko modelo bat dugu; horietatik 160 zaldi dieseldun motorrari esker lortzen ditu eta gainontze-ko 40 zaldiak modu elektrikoan eskuratzen dira. Horri esker, hiri barruan era elektrikoan ibiltze-ko aukera ematen du, oso kontsumo txikiarekin, eta autobidera irteten garenean diesel motorra-ren laguntza gidatuko dugu".

Citroen etxetik aurkezten dugun bigarren aukera modelo berri bat da, joan den hilean bertan salgai jarri zutena, C4 Aircross autoa. Lur orotako ibil-gailua da, baina halakoetan ohi-tuta gauden automobilak baino txikiagoa; bi aukera emango ditu, aurreko trakzioduna edo totala (4WD). Horrekin batera, gasolinazko eta dieseldun moto-rizazioak ditu

www.volkswagen.com

Horrenbeste kilometro egin ondoren, zure Volkswagenak hobereena merezi du. **Eta zuk, preziorik onenak.**

**Volswagen Service.**  
Volkswagenen moduan inon ez.

**Das Auto.**

# Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

**Pintura zerbitzu azkarra**

**70 €<sup>1</sup> tik aurrera**

Ingurunearen korrosiotik babesten dugu zure ibilgailua eta hasierako balioa ematen diogu.

**Segurtasun azterketa**

**45 €<sup>2</sup>**

Diagnosticoko elektronikoa, hozgarria maila egokian jartzea eta haizetako-garbigailuak, sabaiko gidin lubrikazioa eta bisagren koipeztatzea egingo da.

**Klimatizazio instalazioen azterketa**

**55 €<sup>3</sup>**

auto-barneko iragazkiaren aldaketa barne  
Volkswagenen Zerbitzu Ofizialetan bakarrik kontrola dezakegu zure ibilgailuaren klimatizazioa egokia dela. Egiten dituzun ibilbide guztietan aierik onena arnas dezazun.

**Haizetako-garbigailuen paketea**

**44 €<sup>4</sup> tik aurrera**

Aurreko haizetako-garbigailuen aldaketa. Eta, gainera, atzeko eta guztien muntaia opari.

**Bateriaren azterketa eta aldaketa**

**125 €<sup>5</sup> tik aurrera**

Guk bakarrik egin dezakegu zure bateriaren azterketa onena, lehenengo eguneko energia berarekin mugi zaitezten.

**Freno-pastillen aldaketa**

**115 €<sup>6</sup> tik aurrera**

Zerbitzu hau maiztasunez egitea gomendatzen dizugu, zure Volkswagenak zehaztasun osoz erantzun dezan.

Prezio guztiak BEZa barne. Eskaintza baliagarria 12/05/31 arte. 1. atzerako ispluaren karkasa margotzearen prezioa. Polo, Golf, Passat eta Touran guztientzat baliagarria. 2. Volkswagen Turismo modelo guztietarako baliagarria. 3. Polo 95-12, Golf/Variant 04-12, Golf Plus 05-12, Passat/Variant 01-12, Passat CC 09-12 eta Touran 03-12 modeloentzat baliagarria. Iragazkia ez da ikatz aktiboz egindakoa. 4. Polo 95-12 modeloentzat baliagarria. Beste modeloetarako, tarifak kontsultatu. \* Atzeko eskuila berez dakarten autoen kasuan oparituko da bakarrik. 5. Polo 05-12, Golf/Variant 04-12, Golf Plus 05-12, Passat/Variant 09-12 eta Touran 06-12 modeloen bateriaren azterketa eta aldaketa "Bateria Original Volkswagen 44AH 220"-ren barruan. Start-stop funtzioa duten modeloentzat ez da baliagarria. Gainontzeko tarifak kontsultatu. 6. Polo 05-12-ren aurreko freno-pastillen aldaketa. Beste modelo batzuentzat, tarifak kontsultatu. Udaberriko eskaintza bereziak www.volkswagen.es orrialdean begiratu.

# Gero eta aukera zabalagoa

Erabilitako autoen salmentak gora egin du; auto berri bakoitzeko, erabilitako 2,68 auto saltzen dira. | ANDER MONEDERO

**K**risiaren eta erosteko ohitura aldaketan eraginez, gero eta gehiago dira autoa erosterakoan bigarren eskuko merkatura jotzen dutenak. Azken urteetako joerak jarraitu egin du, eta, egun, saltzen den auto berri bakoitzeko, erabilitako 2,68 auto saltzen dira. Era honetako autoak erosteko orduan hiru aukera daude: partikularren arteko tratua, autoen salerosketan aritzen diren enpresak eta kontzesionarioak.

Internetik esker gero eta errazagoa da partikularren arteko tratua egitea, beste modalitate batzuetan baino prezio erakargarriak dituzte, baina autoek ez dute inolako bermerik izaten, eta, askotan, merkeago erostegatik arazoak sor daitezke. Halako erosketak egiteko orduan, konfiantzazko mekanikari batek autoa ondo aztertzea komeni da, eta salerosketa ezagunen artean egiten bada, hobeto.

Autoa kontzesionarioek gero eta aukera gehiago eskaintzen

## Partikularren arteko tratuetan, ez dago bermerik

## 0 km-ko autoak: merkeagoak izaten dira

dituzte. Auto saltzaileek bi mota-tako erosleak daudela esaten dute: 10 urtetik gorako autoak erosten dituztenak -1.500 eta 7.000 euro arteko aurrekontua dute- eta auto berriak erosi beharrean kilometro gutxi dituzten autoak erosten dituztenak. Udalaizteko Tomasen esanetan, "oso zaila da 4 urte eta 13.000 euro balio duen auto bat saltzea".

Giautoko Anderrek, berriz, urtean, erabilitako 400 auto inguru saltzen dituztela esan zuen, horietatik 200 bat bi urte eta 30.000 kilometro baino gutxiagokoak. Horien artean daude zero kilometrokoak -kontzesionarioetako erakusketakoak- eta *renting*, alokairu edo bezeroek erabilitakoak.

Chapimeko Mikelek dio auto zaharrei urtebeteko bermea eman behar zaiela, eta, auto batek arazoak eman behar dituela uste badute, saldu baino gehiago, auto desegiteko tokira eramaten dituztela. Gai berari buruz, Mugarriko Rafak hauxe dio: "Iruzur eginez gero, bezero bat galdu beharrean, bost galduko genituzke".

Nissan Gaursako Jose Luisek dio norberaren beharrei egokitu-tako autoa erosi behar dela; urtean 15.000 kilometro baino gutxiago egiten dituzten bezeroei gasolinazko autoa gomendatzen die. Izan ere, merkeagoak dira eta mantenua merkeagoa da.

### URTEBETEKO BERMEA

Kontzesionarioetan erositako autoek, legez, urtebeteko bermea dute, eta horrek erosteko orduan segurtasuna ematen du: autoan arazorik izanez gero, ondo erantzun duten bermea dago.



Azken urteetan bezala, aurren ere bigarren eskuko autoen merkatuak gora egin du. | JOSETXO ARANTZABAL

## BIGARREN ESKUKO AUTOEN ESKAINTZA

FORD MUGARRI	URTEA	EZAUGARRIAK
Ford Ka Urban	2012	1.3 Tdci, 75 zaldi, diesela. / 0 km. / 8.500 euro.
Ford Fiesta Urban	2012	1.4 Tdci, 70 zaldi, diesela. / 0 km. / 10.000 euro.
Ford Focus Urban	2011	1.6 Tdci, 110 zaldi, diesela. / 1.000 km. / 12.000 euro.
Ford C-Max	2012	1.9 Tdci, 95 zaldi, diesela. / 0 km. / 14.500 euro.
NISSAN GAURSA	URTEA	EZAUGARRIAK
Nissan Murano Sport	2011	2.5dCi, 190 zaldi, diesela. / 20.000 km. / 22.900 euro.
Nissan Juke Tekna Sport	2012	1.6i, 117 zaldi, gasolina. / 0 km. / 15.900 euro.
Nissan Note Acenta	2012	1.4, 88 zaldi, gasolina. / 0 km. / 12.600 euro.
Nissan Cube Tekna	2011	1.6G, 110 zaldi, gasolina. / 4.600 km. / 11.900 euro.
CITROEN CHAPIME	URTEA	EZAUGARRIAK
DS3 eHdi Style	2012	1.6 HDI, 90 zaldi, diesela. / 550 km. / 17.200 euro.
DS4 eHdi Desing	2011	1.6 HDI, 112 zaldi, diesela. / 2.100 km. / 20.250 euro.
G-C4 Picasso Millenium	2012	1.6 HDI, 110 zaldi, diesela. / 65 km. / 19.250 euro.
C5 Hdi Seduction	2012	2.0 HDI, 140 zaldi, diesela. / 35 km. / 21.500 euro.
UDALAITZ	URTEA	EZAUGARRIAK
Seat Ibiza NY13	2012	1.2 TDI, 75 zaldi, diesela. / 0 km. / 13.500 euro.
Seat Leon Style	2012	1.6 HDI, 105 zaldi, diesela. / 0 km. / 16.900 euro.
Volkswagen Touran Advance	2012	1.6 HDI, 105 zaldi, diesela. / 0 km. / 22.400 euro.
LandRover Freelander S	2007	2.2 td4, 160 zaldi, diesela. / 83.000 km. / 16.900 euro.
GIAUTO AUTOAK	URTEA	EZAUGARRIAK
Toyota Avensis Cross Sport	2012	2.0 d4d, 120 zaldi, diesela. / 0 km. / 22.550 euro.
Toyota Rav4 4x4	2011	2.2 d4d, 150 zaldi, diesela. / 20.000 km. / 24.500 euro.
Opel Insignia Sport Tourer	2011	2.0 cdti, 120 zaldi, diesela. / 15.000 km. / 19.500 euro.
Opel Antara 4x4	2010	2.0 cdti, 150 zaldi, diesela. / 27.000 km. / 19.800 euro.

## ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

- Aseguruaren titulartasuna 25 urtetik aurrera
- Lehenengo bi urteetan erabateko hondamena gertatuz gero, auto berriaren balioa
- 25 eta 35 urte arteko emakumea izatearren, % 10eko deskontua
- "Soluzioak bidean" zerbitzu gida: zure aseguruak eskaintzen dizun abantaila eta zerbitzu gama zabala.

- Laguntza juridiko eta legala bidaietan
- Deskontuak tailerretan
- Deskontuak jatetxeetan, hoteletan (NH, Sol Melia...) eta paradoretan
- Deskontuak bidaietan (opor-paketeak, auto alokatuak, tren txartelak, tarifa bereziak charter hegaldietan, hegaldi erregularretan...)

...eta zure aseguruak?



**ZURICH**  
M<sup>a</sup> del Mar Urrutia Negueruela

**Eskaintzarik onena geurean!**

Montxon kalea 5 behea  
20.560 OÑATI  
Tel./Faxa: 943 78 30 09  
Polts.: 620 77 66 20

Mari Mar Urrutia | Zurich Aseguruetakoa arduraduna

# "Estaldurak izan behar dira kontuan"

Aseguruaren prezioari begiratzearekin batera, horrek bermatzen duena argi izatea gomendatzen du Urrutiak | MIRIAN BITERI



Mari Mar Urrutia, Oñatin duen bulegoan. | MIRIAN BITERI

**K**risi ekonomikoan murgilduta gaudela, zeri ematen diogu garrantzia, aseguruaren prezioari edo horrek hartzen dituen estaldurei?

Prezioari, eta gaur egungo egoera ikusita, horri begira egotea logikoa ere bada. Baina aseguruak bermatzen dituen estaldurak izan behar ditugu kontuan; izan ere, istripu bat daukagunean aseguru etxeak erantzungo duen edo ez jakin behar dugu. Prima merkeak aurki ditzakegu gaur egun merkatuan; horiek eskaintzen dituzten bermeak zeintzuk diren argi izan behar dugu.

**Zer eskatzen dute bezeroek?**

Ibilgailuak bi urte baino gutxiago baditu, arrisku orotako aseguru eskatzen dute. Hortik aurrerakoendako, hirugarrenen kiko aseguru hartzen dute: besteak beste, defentsa, bidaiariak, bidaiako laguntza eta beirak. Arrisku orotako aseguru kontratatzen dutenean, suteak, lapurretak eta norberaren kalteak ere sartzen dira; horrek frankizia izan dezake edo ez.

**Oñatiko Zurich zer-nolako onurak eskaintzen dizkiezue bezeroei?**

Bada, arrisku orotako aseguru kontratatzerakoan, erabateko ezbeharra izanez gero, aseguru

etxeek ibilgailua berria izango balitz bezala hartzen du kontuan bi urte betetzen dituen arte; hau da, hasierako balioa dauka lehenengo bi urteotan. Zurichen, berriz, hirugarren urtera arte luzatzen dugu estaldura hori, larregikoa ez den plusa ordainduta. Eta, hain justu ere, ibilgailuak hiru urte dituen arte ez du baliorik galtzen.

**Bi urtetik gorakoendako, hirugarrenen kiko hartzen da**

**Oker ez banago, arrisku orotako aseguru frankiziarekin dutenei hobariak ematen dizkiezue, ezta?**

Horixe da. Arrisku orotako aseguru frankiziarekin egiten duenak parterik ematen ez badu, kontratatzen duen frankizia kopurua jaitsiko zaio urtetik urtera. Esaterako, 300 euroko frankiziarekin duenari, lehenengo urtean parterik ematen ez badu 270 eurora jaitsiko zaio; eta bigarren, 240 eurora. Horrek, gainera, ez du primaren igoerarik eragiten.

**Zenbat ordainduko dugu aseguru kontratatzeagatik?**

Faktore asko hartzen dira kontuan

aseguru bat egiterakoan: alde batetik, autoaren markari, antzinatasonari eta potentziari begiratzen zaio; eta bestetik, bezeroaren ezaugarriak ere kontuan izaten dira: hobariak dituen edo ez, adina... Bezeroaren sexua eta egoera zibila, autoa garajea gordetzen den edo ez, eta ibilgailuaren kolorea kontuan izaten dituzten aseguru etxeak ere badaude; esaterako, estatistikek diote auto gorriek zuriak baino istripu gehiago dituztela, eta batzuetan zigortuta dago eta prima garestiagoa izaten da. Zurichen, ordea, ez ditugu horrelakoak kontuan hartzen.

## Zure Opel-aren gaztetasunaren sekretua

Soilik Opel-eko adituek bermatzen dizute zure autoarentzako zainketa onena; zehatz-mehatz ezagutzen dutelako, Segurtasun eta Kalitate gorenak ziurtatzen dizkizutelako eta 2 urteko bermea duten ordezko pieza erabiltzen dituztelako, prezio lehiakorretan.

Autoaren antzinatasuna	Deskontua piezetan	Deskontua eskulanean
4 urte baino gehiago	%10	%10
6 urte baino gehiago	%15	%10
8 urte baino gehiago	%20	%10

**Opel Zafira Tourer Berria**  
Eraman ezazu zure familia lehen mailan.



**100** berriren iPad zozketa

2012ko apirilaren 16tik maiatzaren 31ra, tailerren edo karrozerian 150 eurotik gora egindako lanengatik, 100 iPad berriren zozketan sartuko zara.



Siempre Opel

4 URTE BAINO GEHIAGOKO AUTOAK



TAILER MEKANIKOKO OPERAZIOETAN DESKONTU ESKLUSIBOA PIEZETAN

**%10**



DESKONTUA ESKULANEAN

**%10**

**Takolo Autoak S.L.**

San Andres kalea 10-D · Arrasate · 943 773 010

**Giauto**  
www.giauto.es  
clientes@giauto.es



902 345 123  
902 345 125  
Elgoibar Bergara Anoeta  
Arrasate Olaberria

# Ibarra garajea, 40 urtetik gora San Andresen lanean

Paco Sanchezen gidaritzapean, mekanika orokorreko zerbitzuak eskaintzen dituzte. | EDU MENDIBIL

**A**rrasateko San Andres auzoan dagoen Ibarra garajeak sortzaileri zor die izena; izan ere, aramaioarrak ziren haiek. Gaur egun, Paco Sanchez arrasatearrarekin batera haren seme Jorgek eta Rosa Antsuategik dihardute lanean. Paco Sanchezen arabera, krisiak gogor jo ditu konponketa garajeak ere, eta egoerari ahal den moduan aurre egitea baino ez da geratzen.

Muxibartik San Andresera ekarri zuten Ibarra garajea 1970eko hamarkadaren hasieran. Mekanika orokorreko zerbitzuak eskaintzen dituzte, txapako lanak izan ezik. Autoez gain, industria ibilgailuak eta makineria konpontzen dituzte: "Era guztietako konponketak egiten ditugu, nahiz eta azkenaldian lanak behar bada nabaria izan duen. 38 urte daramat lanean eta ez dut halakorik bizi orain arte... Benetan larria da sufritzen dihardugun krisia".

**BEHARREZKO AZTERKETAK** Ibarreko beste hainbat garajerekin gertatzen den moduan, AD Egidio taldearen barruan dago Ibarra garajea, eta hainbat deskontu jasotzeko aukera dago. Autoa behar bezala izatea guztiz ezinbestekoa dela azpimarratzen du Paco Sanchezek:



Paco Sanchez arrasatearra Ibarra tailerrean lanean. | E.M.

"Autoaren azterketa egiteko ohitura handiagoa daukate gidari beteranoek. Gazteek ez daukate horrenbesteko ardurarik erakusten, eta krisiarekin are txikiagoa oraindik... Beti esaten dut funtsezkoa dela autoa ondo prestatuta egotea, errepidean gero ezustekorik ez izateko. Ibilgailuen Azterketa Teknikoa egitea tokatzen denean bakarrik akordatzen dira asko eta asko, eta zaila da ohiturak aldatzea. Jende askok uste

du garajeak garestiak direla, eta ez da horrela. Baina jendeak gero eta gehiago begiratzen dio diruari eta...".

## AUTOA, BETI PREST

Ibarra garajearen Arrasateko eta inguruko herrietako bezeroak dituztela esaten digu Sanchezek. Lanari dagokionez, beharbada uda hurbiltzean gehitzen da zertxobait, oporrei begira jendeak nahi izaten duelako autoa pun-

tu, prest egotea ibilbide luzeak egin ahal izateko. "Bai, uda partean jende asko etortzen da autoari azterketa sakona egitera, bidaietan-eta ustekabe txarrik ez egoteko gero... Baina ez pentsa lanaldi gogorregia izaten denik orduan, urtean zehar, orokorrean, nahiko antzera ibiltzen gara-eta", diosku Paco Sanchezek. Lanean utzi dugu Paco, autoen garajeetan beti egoten delako konponketaren bat egiteko.

## Kontuan hartzekoak

Autoa behar bezala izateko garrantzia azpimarratzen dute, askotan, trafikoko arduradunek, eta iritzi horretakoa da Ibarra garajea Paco Sanchez ere: "Beharbada krisiagatik edo ohitura faltagatik agian, gazteek ez diote horrenbesteko garrantzirik ematen. Gidari helduek ohitura handiagoa izan dute betitik autoaren azterketak-eta egiteko". Edozelan ere, frenoak, olio eta filtroak, pneumatikoak edota indargetzea ondo izatea funtsezkoa da errepidean segurtasun osoz ibili ahal izateko. Horixe da Sanchezen gomendioetako bat. Ia 40 urtez lanean daraman mekaniko baten hitza, kontuan hartzekoa, zalantzarik ez.

**DIESELARI XAKEA**

**Ecoboost motor iraultzailea jaio da.**  
3 zilindro, 1.000 zentimetro kubiko, 125 ZP. Eta hori guztian, diesel baten kontsumoarekin. Ez baduzu sinetsen, etorri eta proba ezazu.

**Ford Focus EcoBoost bat duzu 13.950 €ren truke edo, nahiago baduzu, hilean 126 €ren truke.**  
24 kuota. Salerra: 4.180 €. Etorbizuneko balioa: 8.484 € (UTB: 9011,83)


Focus Gamma, kontsumo mistoa (l/100 km): 4,2 - 6,4. CO2 igarpena (g/km): 109 - 149  
Ford Focus Trend 1.0 EcoBoost Auto-start-stop 100 ZP (74 kW) 5 atz eta Ibarreko eta Style packa daen autobereiztat baliagarria, kugari dagoen modukoak ez du zertan eskaintzen denarik bati etorri. Ford etxeak erosiak eta kargainak aldatzeko eskubidea dauka. Finantsuan eta baliaz jhartzetan baliagarria 2012/05/31ra arte. Eskaintza ez da baliagarria beste deskontu batzuekin.

**MUGARRI AUTOAK**  
Araba Etorbidea, z/g. ARRASATE

Go Further  
ford.es



**IBARRA**  
garajea, s.l.



**GARAJEA • AUTO KONPONKETAK • GARABI ZERBITZUA**

Azeri kalea 5, 107 P.K.  
Tel.: 943 79 12 61 - 678 47 81 15 Faxa: 943 77 10 01

**ARRASATE**



# Prest dago guztia Aitzorrotz egunerako

Bihar ospatuko dute Aitzorrotz kultura elkartearen eguna, eta, urtero moduan, ekintza ugari izango dira

**AMAIA TXINTXURRETA** | ESKORIATZA  
Bihar, zapatua, ospatuko da Aitzorrotz kultura elkartearen eguna, eta, urtero moduan, ekintzaz beteta dator. Egitarau aldetik formatua beste urte batzuen antzekoa izango da; goizean plaza mailako jaia izango da eta arratsaldean, berriz, festak Inkernu taberna kanpoan jarraituko du. Hala ere, izango dira berrikuntza batzuk.

## Berrikuntzak

Batetik, *Herrixa dantzan* izeneko dantza saio ludikoa izango da eguerdian herritarrendako; bestetik, arratsaldean hiru kontzertu egongo dira, bakarria egon beharrean.

Formatu eta estilo askotarikoak izango dira kontzertuak. Hauxe esan digu Iñaki Kortazarrek, Aitzorrotz kultura elkarte kideak: "Hasteko, Fermin Balentzia bakarlarari moduan izango dugu. Gero, herriko punk talde bat igoko da oholtzara, 11 urte batera daramaten Hankazgora



Joan den urteko ospakizunean zinta-dantza egiten. | JOSETXO ARANTZABAL

## 'Herrixa dantzan', nobedade nagusia

*Herrixa dantzan* da aurtengo egitarauko berrikuntza nagusia. Ohiko dantza saioa izango da, baina, kasu honetan, plazan egingo da. 13:15etik 14:30era izango da, eta librea da parte-hartzea. Mundumira jaia izango dela-eta, egutegian aurreikusita zegoen hilaren 20ko saioa ez da egingo. Hain zuzen ere, biharko saioa izango da haren ordezkia.

## EGITARAUA

**11:00** Txistulariak.

**12:00** Taloak eta sagardoa Herriko Plazan.

**12:30** Bertso saioa plazan: Andoni Egaña eta Uxue Alberdi.

**13:15** *Herrixa dantzan*.

**14:30** Herri bazkaria.

**18:00** Kontzertuak Inkernu kanpoan.

izeneko taldea. Eta azkenik, Beaux Degats taldeak punk-rocka eskainiko digu. Talde hori Ingalaterratik etorriko da Euskal Herrira lau kontzertu ematera, eta horietako bat Eskoriatzan izango da; beraz, pribilegiatuak gara."

## Gogotsu biharko

Elkarteak 111 bazkide ditu gaur egun, eta "gogoz" daude biharko. Eguerdian egingo den herri bazkarirako txartelen salmenta ondo joan dela azaldu digu Kortazarrek, Aitzorrotz kultura elkarte kideak: "Jendea azken momentuan ibiltzen da, baina ondo saldu dira". Eta hauxe gaineratu digu: "Ea jendea animatzen den eta eguraldiak ere laguntzen digun. Ono pasatzea da gure asmoa". Aspertzeko astirik, beraz, ez da izango zapatuan Eskoriatzan.

## NIRE USTEZ

**DORLETA KORTAZAR**



Tiocfaidh ár lá!

**E**torri barri gare lau lagun Irlandatik bueltan. Esperientzia aberasgarria izan da; lagunartia paregabia, antolaketa bikaina eta lujozko anfitrioiak. Irlandar historixa lehen pertsona bizitzen ari dienen ahotik euren esperientzia eta bizipenak jasotia lujo bat izan da inundik inora.

Eta hala, hemen biktimen errekonozimenduz eta errelatuaz tranpatuta gabitzen hontan, atentziñua emutekua da gatazkan eta biktimen ikusgarritasuna Irlandako kalietan. Hemen kamixeta, kartel edo pegatina batzuetan presuen argazkixak eruetia debekatuta dauen bitartien, han famatuak die fatxada osuak hartzen dituen horma-irudixak, honeik ikusteko mapa, tour eta guzti!! Hemen presuei ongi-etorrixak debekatzen dienen bitartien, han nunahi ikusten die gudarixen eta hildakuen izenekin plakak, parkiak... IRAko museo bat be badau, ... imaginatzen halakorik hemen?

Protagonistek izen-abizenak eukitziak eta gertaerak ezagutziak errelatoa (zati baten behintzat) osatzen laguntzen dauela uste dot. Eta hala, urtietan zehar gurien istorio txiki eta haundi asko ixildu die, halabiherrez, norbere eta ingurukuen sukaldietako lau paraten artetik urten ezinik. Helduko da eguna horreik kontetako eta entzuteko moduen egongo garena. Eta horretarako be tiocfaidh ár lá, iritsiko da eguna!

**"Protagonisten izen-abizenek gertaera osaketan lagunketan daue"**

## OHARRAK

### JINKANA

Tortolis ludotekak antolatuta jinkana egingo dute gaur, egubakoitza, 18:00ean.

### ARETO FUTBOLA

Domekan gazteek partidua izango dute, 09:15ean: Eskoriatza KE lehiatuko da Los Herran taldearen aurka; bestalde, 11:00etan Euskal Ligako partidua jokatu da: Eskoriatza KE taldeak indarrak neurtuko ditu Eguzki AF Ventanas Isu Lehoiak taldearen kontra.

### HITZALDIA

Autoestimuari buruzko hitzaldia izango da kultura etxean eguaztanean, 18:30ean.



**Edergintza tailer arrakastatsua egin zuten**

Amuska elkarteak antolatuta martitzenean egin zen edergintza tailerrean 18 lagunek hartu zuten parte. Ainhoa Villarias izan zen irakaslea eta arrakastatsua izan zela esan zigun. Irakasleak bertaraturakoei erakutsi zien, besteak beste, larruzalaren oinarriko zainketak nolakoak izan behar duen, eta nork bere burua makillatzeko oinarriko pausoak ere erakutsi zituen tailerrean.

## Aurkeztu dute Gabez Takarraran lasterketa

**A.T.** | ESKORIATZA

Lehenengo edizioan 62 korrikalarik hartu zuten parte Gabez Takarraran lasterketa, eta balorazioa oso positiboa izan zen. Izan zuen harrera ona ikusita, aurten bigarren bezala antolatu dute, eta atzo egin zuten aurkezpena Ibarraundi museon.

Lasterketa ekainaren 9an jokatu da, eta 23:00etan abiatu da plazatik.

Lasterketaren bereizgarri nabarmena da gauze izango dela, eta horrek lasterketa "oso deigarri" egiten du, antolatzaileen hitzetan.

### Ibilbidearen xehetasunak

Eskoriatza oso-osorik hartuko du ibilbideak: Asensiotik Atxorrotzeraino. Guztira, 21 kilometroko ibilbidea izango da, gainbehera metatua 2.200 metro eta

goranzko igoera metatua 1.100 metro.

### Izen-ematea

Gehieneko parte-hartzaile kopurua 200 pertsonakoa izango da, eta sarean eman daiteke izena helbide honetan: [www.eskoriatzagabeztakarraran.com](http://www.eskoriatzagabeztakarraran.com). Parte-hartzaile kopurua ez bada betetzen, egunean bertan eman ahal izango da izena.

## Zabalik dago musika eskolan izena emateko epea, ekainaren 21era arte

**A.T.** | ESKORIATZA

Izema emateko musika eskola-ira joan behar da asteleheneetik eguenera 16:00etatik 19:30era bitartean eta egubakoitzetan 16:00etatik 18:00etara.

Aurten 240 ikasle inguru dabilta musika eskolan eta datorren ikasturterako daukaten eskaintza mantendu egingo dute. Beraz, 4 urtetik aurrera-

ko gaztetxoendako hezkuntza musikala eskainiko dute, eta nagusienendako ere badituzte taldeak. Instrumentuetan daukaten eskaintza hauxe da: klarineta, saxofoia, zeharkako flauta, txeloa, biolina, gitarra klasikoa, gitarra elektrikoa, baxu elektrikoa, perkusioa, akordeoia, pianoa, tronpeta, tronboia, kantua eta dantza.

# Kiroldegiaren adjudikazio prozesua argitu gura izan du alkateak

- Prozesua garbia izan dela dio, baina batzuek beste ildo batetik bideratu gura izan dutela
- Irekiera data ez dago zehaztuta, baina uztailean, egun batzuetan, erabili ahal izango da

MIRARI ALTUBE | ARETXABAETA

Kiroldegiaren kudeaketaren adjudikazio prozesua argi eta garbi azaldu eta EAJ alderdiak esandakoei erantzun gura izan diete Ana Bolinaga alkateak eta Tomas Fernandez Kirol zinegotziak.

Udalbatzak apirilaren 24an kiroldegi berriaren gainean hartutako erabakiak –kudeaketa LKS, Athlon eta Ondoan enpresek osatutako hirukoari ematea– haserrea eta harridura sorrarazi du hainbatengan. "Erabakiak zalaparta eragin du eta logikoa eta normala dela uste du Bilduk, ez delako erraza ulertzea nola puntu gehien lortu duen enpresa –Goiena Sport– garaile izatetik galtzaille izatera pasa den", diote. "Izan ere, pleguak ikusita, esleipenerako irizpideak arautzen dituen hamaikagarren klausula hain zuzen, puntu gehien atera duenak dauka esleipena lortzeko eskubidea". Horregatik, herritarrei argibideak eman guran, EAJ alderdiak GOIENAn egindako adierazpenekin ez datozela bat jakinarazi dute: "Erdi gezurrak direlako eta hori zerbait ezkutatu guran dabilen seinale delako". Eta "EAJk herritarrei eman gura ez dizkien argibideak kontatu gura dituzte".

"Kiroldegiko kudeaketaren ereduaren gaineko desadostasunak prozesuaren hasiera atzeratu zutela aipatzen dute EAJkoek, eta egia da", dio alkateak. "Erabaki horrek izan zezakeen garrantziaz jabetuz eta kontuan izanda udal jardunean sartu berriak gineela eta esku artean *pataia beroa* geneukala, hausnarketari denbora eskaini behar izan genion". Eta gaineratu du: "Agian eurek ere, bere garaian, hausnarketari eman izan baliote bere tartetxoa, egun, Aretxabaeta ez zen egongo hipotekatuta datozen hamar urteotarako, edo?".

"Pleguak gertatzeko orduan euren ekarpenak ez zirela kontuan izan diote; berriz dituzte memoria arazoak", diote Bilduko kideek. "Izan ere, Bilduk ere bat egin zuen eurek proposatu eta defendatzen zuten kudeaketa eredu integralarekin". Eta galdetzen diete: "Eurak agintaldian egon direnean gaintzeko alderdien ekarpen guztiak onartu dituzte, ala? Beste alderdi politikoen ekarpenak ez onartzea gardentasun falta da? Horrela balitz, EAJ alderdiaren gardentasunik eza historikoa bezain larria da".

## Puntu gehien duena irabazlea

"Kontratazio mahaiko lehendakaria neu izan naizenez eta Tomas Fernandez bokaletako bat, oso



Kiroldegi inguruko urbanizatze lanak hasita daude. | M.A.

ondo dakizkigu mahai horrek hartu zituen erabakiak", dio Bolinaga alkateak. "Mahaiak, gainera, aho batez eta inolako eztabaidarik gabe onartu zuen erabakia: puntu gehien lortzen zuen proposamena izango zela mahaiak osoko bilkurara eramango zuena". Eta gaineratu dute puntu gehien lortu zuena Goiena Sport izan zela. "Tomasek eta nik Goiena Sporti eman genion puntu gehiago, eta, berriz, Olaia Sagredok, udal idazkariak eta kontu hartzaileak hirukoari. Eta denon emaitzak batuta Goiena Sport izan zen irabazle".

Kontratazio mahaian jaso ziren "puntuazioak muturrekoak" izan zirela dio alkateak; hau da: "Mahai-kide batzuk hirukoaren guztiz alde zeuden eta beste batzuk Goiena Sporten guztiz alde. Eta ez zegoen iritziak hurbildu eta adostasunerako modurik". Era berean, Bildu alderdi barruan ere desadostasunak zeudela onartu dute, eta guztia kontuan izanda zera erabaki zutela: "EAJ eta Aralar

alderdiei proposatu genien osoko bilkura baino lehen aditu baten balorazioa eskatzea".

## Aventoren txostena

Hala, Avento kirol aholkularitza enpresarengana jo zuten: "Bage-nekien Athlon enpresarekin zerikusia zuela Aventurek, hainbat ikastaro eta topagunetan elkarrekin egon izan direlako. Nik beste enpresa bat hartzea proposatu nuen, baina denboraz oso estu genbiltzala gogorarazi zidaten hainbat hautetsik, eta Aventurekin aurrera egitea erabaki genuen", argitu du alkateak eta galdetu: "Denboraz estu beste aditu bat bilatzeko, baina denboraz soberan osoko bilkura atzeratzeko –EAJko zinegotzi bat kanpoan zen–?".

Baina Aventuren txostena jaso eta aztertzerakoan puntuen arteko batura ez zegoela ondo eginda konturatu ziren eta zuzentzeko eskatu zioten. Bigarren txosten bat jaso zuten orduan zuzenkete-kin eta bi enpresak oso berdinduta zeudela puntuetan argitu du alkateak. Hirukoia ematen zuten garaile hobekuntzen arloan (10 puntu guztira) 9 puntu jaso zituelako eta Goiena Sportek, oster, 3 puntu. "Azalpenetan baldin badio biek pisuzko hobekuntzak proposatzen dituztela zergatik eman Goiena Sport-i 3 puntu bakarrik?" galdetzen du eta argitu hobekuntzen artean, Aventurek garrantzitsutzat jo zuela honakoa: "Hirukoak lehenengo urteko galerak etorki-

razi zuela dio: "Nik ezin ditut injustiziak onartu eta hobekuntza hori onartzea injustua zen. Baina Aventuren ordezkariekin bileran egon ginenetik –hainbat Udal langile eta zinegotzi– inork ez zuen ezer esan".

Hobekuntza horren puntuak kentzerakoan –3 puntu– Goiena Sport izan zen garaile 81,75 punturekin; hirukoia, oster, 80,10-ekin geratu zen. Hala ere, Aventuren azken txostenak jaso zuen "ustiaketa eredu orokorra ez dagoela jasota egindako balorazioetan eta interesgarriagoztat jo dutela hirukoaren proposamena". Alkateak dio ez dituela ulertzen azalpenok: "Hau argudio bat?".

Ondoren berriro elkartu zen kontratazio mahaia eta bertako kideek ez zituzten iritziak aldatu. Hortaz, bozketan egin zuten zein proiektu eraman osoko bilkurara eta hirukoak hiru boto jaso zituen eta Goiena Sportek bi. Horregatik hirukoaren aldeko proposamena aurkeztu zen apirilaren 24ko osoko bilkuran.

## Zurrunburuak gezurtatu

Bestalde, Bolinagak adierazi du jakinean dagoela zurrunburru asko ibili direla, tartean Goiena Sporteko kideekin egin zituela adjudikaziorako pleguak. Gezurtatu egin du hori: "Egia da prozesua hasi aurretik Goiena Sport-eko kideekin elkartu nintzela baina bideragarritasun plan bat eskatzeko izan zen. Eta debalde egin ziguten! Geroago jakin dut, kasualitatez, bideragarritasun plan bat dagoeneko eginda zeukala enpresa batek baina horren berri inork ez zidan eman!" Eta gaineratu du hirukoia osatzen duten enpresetako ordezkariekin ere elkartu izan dela: "Horiekin ere batzartu naiz udaletxean, baina antza hori ez du inork ikusi". Eta galdetu du: "Erdi gezurretan dabilenak, nahasmena sortarazi guran dabilenak zer ezkutatu gura du? Mahai-inguru batera gonbidatzen dugu edonor herritarrekin batera kiroldegiko kontutxoak argitzeko. Hor dago nire gonbidapena".

## Kiroldegiaren aldeko apustua

Hala ere, nahasmen guztia ahaztu eta kiroldegira hurreratzeko deia egin du alkateak: "Irekiera data adosten gabiltza hirukoarekin, izan ere, denbora behar dute orain antolatzeko. Ulertu behar dugu hilabete edo hilabete eta erdi beharko dutela horretarako; eta gero animatu herritar guztiak bertara joan daitezten".

## Laster erabiltzeko

Informazio eta abonatzeko kanpaina laster jarriko du abian Udalak. Gainera, bisita gidatuak egingo dituzte "punta-puntako instalazioak ezagutzeko". Eta herritarrek uztailean hainbat egunean erabiltzeko aukera izango dutela jakinarazi dute: "Egokituta dagoen guztia egongo da ikusgai eta erabiltzeko moduan". Edozelan ere, irekiera data oraindik ez dute zehaztu, hirukoak denbora beharko duelako kontu guztiak lotzeko.

## ESANAK

**"Prozesua oso garbia izan da; orain ez dezala inork nahastu"**

ANA BOLINAGA | ALKATEA

# Hondakinen gaineko hausnarketa hastear dago

Herritarrekin hausnartzea da asmoa, eta horretarako egitaraua zehaztuta dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABAETA

Lore Martinez Ingurumen zinegotziak eta Ana Bolinaga alkateak hondakinen kudeaketa sistemaren gainean herritarrekin batera egin gura duten hausnarketa prozesua aurkeztu dute astean.

Alkateak jakinarazi du hondakinen arazoa larria dela, "Europatik datozen lege proposamenak kontuan hartzen baditugu zabor-tegiak epe laburrean itxi" beharko direlako. Eta gaineratu zuen: "Prebentzio, berrerabilpen eta birziklapen mailetan emaitza zehatzak lortu beharko dira laster". Aretxabaletan bosgarren edukiontzia dago ezarrita azken urteotan, "baina" "izan genezakeen gaikako sistema eraginkorra den aztertu behar dugu". Hala, hausnarketa prozesua jarriko dute abian herritarrekin batera.

## EGITARAUA

**HITZALDIAK**  
Arkupe, 18:30

Maiatzak 15 eta 24; gaztelaraz.

Maiatzak 17 eta 31; euskaraz.

### BISITAK ANTZUOLARA

Maiatzak 23; 14:30; merkatari, ostalaritzako kide eta erretiratuendako.

Maiatzak 29; 18:30; beste herritarrendako.

### KONTSEILUA

Arkupe, 18:30

1. saioa; maiatzak 18: prozesuaren aurkezpena.

2. saioa; maiatzak 25: zaborren hierarkia Europako legedian.

3. saioa; maiatzak 28: esperientzia ezberdinen berri.

4. saioa; ekainak 1: analisia, ondorioak eta adostasuna.

## Adostasuna lortu

Batetik, informazioa emateko kanpaina egingo dute eta berbal-di bi izango dira: "Aretxabaletarrek gai honen oinarrian dagoen arazoaz jabetzeko", dio Martinez zinegotziak. Bestetik, Antzuolara bisitak egingo dituzte, atez ateko sistemaren berri izateko.

Hirugarren pausoa izango da kontseilu bat sortzea herriko eragileekin: "Guztiekin izango dute aukera hondakinen kudeaketa sistemaren inguruko proposamenak aurkezteko, baina aurrez guztien artean markatutako helburuak betetzeari begirakoak izango dira". Kontseiluak lau saio egingo ditu eta bertan adostutako txostena alkate eta zinegotziek kontuan izango dutela esan dute. Hala, herritarrei parte hartzeko dei egin diete udal ordezkariak.

## Moda desfilea gaur Durana kalean merkatariaren eskutik

Durana Fashion Day izenarekin moda desfilea egingo dute gaur Durana kalean (19:00). Parte hartuko duten komertzioak dira: Belar Meta; M5 kirol denda; Haurrak; Lie; eta Titare mertzeria. UDAko kideek jatekoa eta edatekoa eskainiko dute eta ekitaldi guztia musikak girotuko du.

## LEINTZ GATZAGA

## Auzo egurra eskatzeko azken eguna da gaur

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Gaur, maiatzak 11, bukatuko da auzo egurra eskatzeko epea. Horretarako udaletxera jo behar dute herritarrek.

Orain arte udazkenean zabaldu izan du Udalak izena emateko epea, eta zozketa egin gero egur loteak izendatzeko. Aurten, baina, aurreratzea erabaki du eskaera epe hori, lanak denboraz egin eta hobeto antolatzeko asmoarekin. Izena orain eman arren zozketa udazkenean izango dela jakinarazi dute, eta orduan ezagutaraziko diote eskatzailer bakoitzari zein gunetatik hartuko duen egurra.

Eskaerak egiteko gutxienez urtebetez Gatzagan erroldatuta egon behar dute interesatuek, eta herrian bertan erabiltzeko izango da egurra.



## Maiatzaren 19rako plazarako deia

Presoen giza eskubideak errespetatzearen aldeko deialdia egin dute herriko hainbat alderditako eta elkartetako kideek. Eta *Goazen plazara!* leloarekin maiatzaren 19an egingo diren ekitaldiak aurkeztu dituzte: kalejira trikitilarietako futbol zelaitik Herriko Plazara (12:00), eta gero elkarretaratzea eta mokadutxo (13:00) bertan. Aurretik, hilaren 16an, koadriletako ordezkarietako batzartu gura dute (udaletxe zaharrean, 19:00).

**M**obiliario  
**A**RENAZA

**ALTZARIAK**  
**DISEINUA**  
**APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAETA

PIENSO  
**SUNZUE S.A.**

**FELIX PAGALDAY**

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea  
ARETXABAETA  
Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56

## Udalbatza herritarrekin joango da Ojala Zelaira

M.A. | ARETXABAETA

Ojala Zelai eguna ospatuko dute etzi, domeka, Aozaratza auzoko zelai ezagunean. Urteroko egitaraua antolatu du Kultura Sailak, baina badago berrikuntza bat: udalbatzako kideak herritarrekin batera joango dira zelaira (hitzordua: 10:00etan, Herriko Plazan) eta ez dute egingo mugarririk ikusteko egi-tzen zuten mendira buelta.

Gainerako egitaraua urterokoa da: gaztetxoek lasterketak lehenengo (10:00) eta helduen krosa ondoren (11:00); eta bukatutakoan sari banaketa (12:00). Animaliekin jolasak izango dituzte gero gaztetxoek eta eguerdi parte trikitilarietako eta bertsoarietako girotuko dute,



Umeak pottoken gainean. | M.A.

sagardoarekin batera; paella txapelketa ere orduan hasiko da. Arratsalde partean, osterata, euskal disko festa eta musika eskolako dantzariak izango dira protagonista.

## Udaberri Jaia ospatuko du Arizmendi ikastolak bihar, herriko hainbat txokotan ekitaldiak eginda

Herria girotzeko gogoz daude Arizmendiko kideak eta herriko plaza ezberdinetan jolasak eginda (10:45) hasiko dute eguna. Herriko Plazan talogintza tailerra izango da eta euskal dantza gidatuak ere bai (12:00); eta gero, bazkaltzera joango dira trikitilari eta buruhandietan (13:30). Bazkalostean tailerrak eta antzerkia izango dituzte umeek, eta jaia bukatzeko txokolate beroa.

## ATXABALTA LEHIAKETA

Hartu parte eta irabazi hainbat sari!



21. Orain dela gutxi arte, Aretxabaleko baserrietan bizi zirenak erreteroa ziren, hau da, baserri eta inguruko soroen jabeagoa bailarako jauntxoena zen eta baserriarrek errenta ordaindu behar izaten zieten (bai dirutan, bai generotan) jauntxoek. Zein zen Ametzako ugazaba?

22. Zein ez da sinonimoa?

a) aletu b) garbatu c) garandu d) irakorri

**Erantzunak eta zure datuak** (moztu azpialdea) Loramendi Elkartera ekarri (16:00-20:00) edo bidali hona: Aretxabaleko 96 posta-kutxa edo [lehiaketatxabalta@gmail.com](mailto:lehiaketatxabalta@gmail.com).

21: \_\_\_\_\_ 22: \_\_\_\_\_  
Izen-abizenak: \_\_\_\_\_ Tel.: \_\_\_\_\_

**Azken eguna: maiatzaren 18a.**

### Aurreko galderen erantzunak:

19: Morteroa egiteko; zoruak kareztatze, lurtean uraren barneratzea errazten zuelako; paretak margotzeko eta desinfektatzeko; arrautzak kontserbatzeko; animalien larruak desinfektatzeko; zuhaitz enborrak intsektuetatik babesteko.  
20: c) matrakia.

## ARAMAIO

## Udalak Plan Orokorra euskaraz onartzeko eskatu dio Aldundiari

Diputazioak plana euskara hutsean bidaltzea "akastzat" jotzea "harrigarria" da Udalarendako; ahaldunak dio "ezinbesteko" dokumentuak falta zaizkiela

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Arabako Aldundiko Hirigintza Sailak Aramaioko Udalak aurkeztutako Plan Orokorra geldiarazi zuen martxoan. Arrazoiak izan da, Udalak jakinarazi duenez, ebazpen guztiaren aurkibidea eta zenbait ziurtagiri euskara hutsean bidali zirela. Dokumentazio hori euskaraz bidaltzea "akastzat" jo du Diputazioak eta zuzentzeko eskatu zion Udalari, baita "akatsa" zuzendu arte planari buruzko ebazpena emateko epea ez dela hasiko gaineratu ere.

Udalak "harridura eta adostasun eza" erakutsi du jakinarazpen horren aurrean eta horretarako prentsaurrekoa egin zuten martitzenean Gasteizen Ramon Ajuria Aramaioko alkateak eta Lierni Altuna Udaleko bozemaileak.

**%80k dakite euskaraz gurean**

Aramaioko testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartuta, Aju-riak ez du erabakia ulertzen: "Legez babestuta dauden bi hizkuntza ofizialeko bat erabiltzea akastzat jo daiteke?", galdetu zuen. Era berean, Lierni Altuna Udaleko bozemaileak hizkuntza eskubideak errespetatzea eskatu

du: "Harrizten gaituena da aurreko batzuetan euskaraz bidali izan dugunean orain gazteleraz ere bidaltzea eskatu izana. Ez zaigu ondo iruditzen, eta, beraz, gure hizkuntza eskubideak bermatzea eskatzen dugu". Udalak gogoratu du aramaioarren %80 baino gehiago euskalduna direla eta Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko Arabako udalerrri bakarra dela. Altunak adierazi duenez, Udalak ez du espero oztopo gehiago egongo direnik plana tramitatzeko.

Bestalde, Javier de Andres Arabako ahaldun nagusiak Aramaioko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra atzera botatzeak euskararekin zerikusirik ez duela adierazi zuen. De Andresen arabera, planaren izapideak egiteko "ezinbestekoak" diren dokumentuak falta dira.

## ESANAK

**"Gure hizkuntza eskubideak bermatzea eskatzen dugu"**

LIERNI ALTUNA | UDALEKO ELEDUNA



ALAIK ERRETIRATU ELKARTEA

## Briska, mus eta tute txapelketak

San Prudentzio ospatzeko mahai-joko txapelketak izan zituzten Alaiak elkarteok. Hilaren 3an emakumeendako briska txapelketak eta zapatuan, berriz, gizonezkoendako mus eta tute txapelketak. Bikote irabazleek gazta bat irabazi zuten; bigarren bikoteek botila bana xanpain; eta hirugarren bikoteek, azkenik, botila bana ardo.

## ELGETA

## Oskorriren 'The Pub Ibiltaria' Espaloian izango da hilaren 18an

Gaur, barikua, Xabier Montoiak kontzertua egingo du, 22:30ean hasita

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Maiatzean soilik egingo du *The Pub Ibiltaria* Oskorrik, eta emanaldietako bat Elgetan izango da. Hamazazpi kantuk osatzen dute errepertorioa, eta helburua da publikoaren parte-hartzea zuzena izatea. Elgetako korua kantu bat prestatzen ari da, eta agertokian Oskorriekin batera jotzeko aukera izango dute bertaratzen diren musikari guztiek; letrak eta partiturak eskuragarri daude kafe antzokian.

Kontzertua hurrengo barikuan izango da, hilaren 18an, 22:30ean. Sarrera hamar euro da; zazpi euro bazkideendako. Salbuespena izango dira Oskorriekin batera agertokitik pieza bat jotzera animatzen diren musikariak. Bada, horiendako sarrera doan izango da.



Natxo de Felipe, *The Pub Ibiltaria*ren emanaldi batean. | ALEGRIA DULANTZI

**Xabier Montoia, gaur**

Gaur, barikua, Xabier Montoiak *Mundu Miresgarria* izeneko lana aurkeztera dator. Emanaldia Ibon Rodriguez pia-

nistarekin eta Maite Arroita-jaregi biolontxelistarekin batera egingo du, 22:30ean hasita. Sarrera zazpi euro da, lau euro bazkideendako.

## Bolatokian bolo tiraldia eta festa egingo dituzte gaur 6. urteurrena ospatzeko

L.Z. | ELGETA

Bolatoki tabernan egun berezi ugari dituzte asteotan. Eguaztenean festa ez zen nahi moduan amaitu, baina dagoeneko eginga dute hurrengo hitzordua. Jose Monterrosok eta haren taldeak sei urte beteko dituzte Bolatoki tabernako barraren atzean, eta bezeroekin ospatu gura dute urteurrena. Gaur, barikua, egingo dute festa.

**Bolo tiraldia eta musika**

Bolotan egiteko gonbita egin dute Bolatoki tabernatik; izan ere, herriko koadrilendako bolo tiraldia antolatu dute gaurko, egubakoitza, 23:00etan hasita. "Festa egingo dugu jarraian seigarren urteurrena ospatzeko. Musika ipiniko dugu, eta goizeko ordu txikietara arte luzatzea espero dugu", esan du Jose Monterrosok.

## OHARRAK

**ERRETIRATUAK: DANTZA**

Biharko, zapatua, dantzaldia antolatu dute Espaloia antzokian Umore Ona taldearekin, 17:00etan. Bestalde, hilaren 30ean Enkarrietara egingo den irteeran parte hartu nahi dutenek hilaren 14rako eman behar dute izena Kutxan. Prezioa 40 euro da.

**BISITA GIDATUA DOMEKAN**

Uztailera bitartean domekero egingo dituzte. Etzi, 10:00etan abiatuko da. Izena emateko: 943 71 89 11.

**BASERRITARREK BATZARRA**

Domekan, 12:30ean, egingo dute urteko batzarra baserritarrek Ozkarbi elkartearen.

**ESKERRIK ASKO, DANO!!**

**6. urteurrena zurekin ospatu gura dugu!**  
Gaur, barikua, 23:00etan.

**BOLO JAURTITZEA**

(Herriko gazte koadrilendako)  
Egunean bertan eman daiteke izena.  
Izen-ematea DOAN.  
Irabazleak saria izango du.

... eta horren ostean festa.  
**ANIMA ZAITEZ!**



Artekale 4 ELGETA  
943 76 82 84

**BOLATOKI**  
taberna

# ZIGARROLAKO JAIK 2012

## ARRASATE



### MAIATZAK 11, ostirala (Erretiratuen Eguna)

- 10:00 **Kanpai errepika** eta **kohe**te jaurtiketa, jaiak hasi direla iragartzeko.  
 10:15 **Haurrentzako kirol-jokoak** auzoko eskoletan.  
 11:30 **Danborrada** Arizmendi ikastolako umeekin.  
 17:00 **Herri merienda** auzoko haur guztiarentzat. Gazteendako jolasak. Gazte txokoa.  
 17:00 **SPINNING MASTEKLASA**, Musakolako kiroldegian, kanpoko patinaje aterpean. Monitore adituak. Izen ematea kiroldegian.  
 17:30 **Txokolate eta bollikao** banaketa 12-17 urteko gazteentzat.  
 17:30 **Haurrentzako tailerrak** 3-12 urte bitarteko haurrentzat, gazte txokoa.  
 17:30 **Pintxo dastaketa**. EKINek antolatuta, auzoko herri eskolan.  
 18:30 Gazteentzako **jokoak**, gazte txoko kanpoko patioan.  
 19:00 **Ikurrina igotzea**. Buruhandiak gaitariekin batera. Alkatetzatik gozokien jaurtiketa. Txapela eta zapia ikurrina igotzean jantziko ditugu.  
 19:30 Auzoko **erretiratuentzako jai-afaria** Al-Andalus kultura elkartean.  
 22:00 **Bolo txapelketa** bolatokian, San Isidro elkartearen ondoan. Izen ematea, bolatokian.  
 23:00 **Rock kontzertua**: EKO D BULL eta DIRTY BROTHERS. San Antolin plazan.  
**Berbena** San Isidro eliza ondoan, KAIXO taldeak alaituta.  
 24:00 + beranduago **BER-TA-RA**

### Egun osoan kohete jaurtiketa

### MAIATZAK 12, larunbata (Koadrilen Eguna)

- 10:00 Eguzkia eta eguraldi ona.  
 11:00 **Gazteentzako patata-tortilla lehiaketa**. Talde bakoitzari patatak, arrautzak eta olio emango zaizkio. Zartagina, kanpin-gasa eta bestelako osagaiak talde bakoitzak eraman beharko ditu. Izen ematea, Musakolako gazte txokoa.  
 11:00 **Taloak** EKINek antolatuta.  
 11:30-13:30 **Puzgarriak** San Antolin ikastolan.  
 12:00 Umeendako **asto jai**a, auzoko herri eskolaren inguruan.  
**Herri txikitea**, gaitariekin alaituta.  
 Erretiratuen etxeko tabernatik irtengo da astoa. Mesedez, ordurako azaldu.  
 12:00 **Kempe erakustaldia**. Antso Abarka kalean, musikako agertokiaren ondoan.  
 12:00-14:00 Arrasate Herri Eskolaren X. urteurrena ospatzeko **salda banatuko da** San Antolin eskolako patioan.  
 13:30 Mundu osoko kategorian, **Urrezko Astokiloak** eman eta jartzea.  
 14:00 Aurten ere ez da egingo manifestazio ofizialik, edo bai.  
 15:00 **Herri bazkaria** San Isidro eliza ondoan (eguraldi txarra eginez gero, aterpean egingo da). Musakolako txarangak alaituta. Bazkari-txartelak erosteko: Ziorla, Meneta eta Txinato tabernetan.  
**Zozketak eta jai zoroa** izango dira.  
 17:00 **Herri kalejira**.  
 17:00-20:00 **Puzgarriak** San Antolin ikastolan.  
 18:00 San Isidro **sokatira** sari nagusia  
 1. Garaikurra eta bildotsa.  
 2. Urdaiazpikoa eta xanpain sorta.  
 3. Urdaiazpikoa.  
 4. Xanpain sorta.  
 19:00 Arrasate Musikaleko haize-egur taldearen, banda txikiaren eta orkestra gaztearen kontzertua Santa Teresa elizan.  
 19:30 **Buruhandiak** gaitariekin batera.  
 23:00 **Rock kontzertua**: LORD WITCH eta LINED.  
**Berbena** San Isidro eliza ondoan, KAIXO taldeak alaituta.  
**Gauerdian** Hainbat **moda-ikuskizun auzoko pertsonaia xebe**reenekin.

### MAIATZAK 13, igandea

- 10:00 Eguzkia eta eguraldi ona.  
 11:30 -13:30 **Puzgarriak** San Antolin ikastolan.  
 11:30 **Gimnasia erritmiko erakustaldia** Musakolako kiroldegian.  
 12:30 **Txikitea**, Akelarre txarangarekin alaituta.  
 17:30 **Zezen**txoak San Antolin ikastolako patioan.  
 18:30 **Kalejira** Akelarre txarangarekin, betiko lekuetan.  
 22:30 **Azken traka** Paseo Maritimoan: suzko erruberak, sorpresa ikusgarria, agurra eta amaiera.

### MAIATZAK 15, SAN ISIDRO eguna

- 11:30 **Meza nagusia** San Isidro elizan. Ondoren abesbatza eta herritarrentzat luntxa San Isidro elkartean.  
 14:00 **Baserritarrek** euren zaindariaren omenezko **bazkaria** egingo dute.

### Datorren urtera arte.

#### AUZOKO ARTISTEN ESKULANEN ERAKUSKETA

Ostiralean, larunbatean eta igandean, musakolako erretiratuen egoitzako lehen solairuan, auzoko artisten eskularen erakusketa izango da.

**VIRGINIA** ile apaindegia • **ARIGARA** iturgintza • **ARGI PLASTIK** • **GOI SOLUTIONS**  
**BERANGO** dekorazioa • **EGUREN** arraindegia • **UDALAITZ** • **ILUNA** taberna  
**IMANOL** iturgintza • **BOLINTXO** okindegia • **IOSU** taberna • **JEY JULIWER** taberna  
**JOMA** • **ESTRELLA** taberna • **LIRAIN** ile apaindegia • **MENETA** taberna • **TXINATO** taberna  
**ZIORLA** taberna • **GAINDEGI** jatetxea • **BEVERLY** taberna • **MUSAKOLA** estankoa

***Ondo pasa jaiak!***

**BORROKA LIBREA**

Maidar Unda | Borrokalaria

# "Lan ona egiteko garrantzitsua izango da Londresera fresko iristea"

Udan Londresen jokatuko dituzten Olinpiar Jokoetarako sailkatu ostean, egun batzuek atsedean hartuko du Undak, berriro entrenatzen hasi aurretik

I.GOITIA / X.URTZELAI | ARAMAIO

Maidar Undak (Aramaio, 1977) duela lau urte Pekingo Olinpiar Jokoetan lortutako bosgarren postua hobetzeko aukera izango du Londresen. Aurreikusitako baina gehiago kostatuko zaio sailkatzea, baina, txartela eskuan, orain domina bat eskuratzea du buruan.

**Azkenean bai.**

Bai, horrenbeste amestutako helburua lortu dut azkenean.

**Azken aukeraren izana da.**

Hiru astez batera eta bestera bidaiatzen ibili osten lortu dut. Kanporaketa batetik bestera nindoan neurrian Londresera joateko aukerak murrizten zihoazela ikusten nuen, baina azken aukeraren izana bada ere, lortu dut.

**Eta, zein da Londresera begira duzun helburua?**

Domina batekin itzultzea, hori da helburua. Pekinen oso gertu izan nuen, baina esperientzia faltagatik-edo ez nuen lortu. Orain badakit momentu horiek bizi egin behar direla, eta domina bat lortzea posible dela.

**Zelako asteak izan dira?**

Gogorrak, egia esateko. Lehenengo hitzordua Bulgariar izan nuen, Europako txapelketarako sailkatzeko txandan. Txartela hor lortzeko finalerako sailkatu behar nuen derrigor, eta final-laurdenetan Suediako borrokalariak kanporatu ninduen. Handik Txinarrak bidea hartu behar izan genuen, paliza ederreko bidaia egin, eta han ere derrigorrezkoa zen finalerako sailkatzea. Eta berriro ere, final-laurdenetan kanpoan geratu nintzen, oraingoan Moldaviako borrokalari baten kontra galduta.

**Eta azkeneko aukera geratzen zitzazun, Helsinkin.**

Astebeteko epean ez dago atsedean hartzeko asti handirik, eta hala-

xe joan ginen, joan den domekan, Helsinkiko kanporaketara. Akaso, orduan nengoen lasaien.

**Zelako txapelketa izan zen?**

Bada, egia esateko, aurreikusitako baino errazago sailkatu nintzen. Hiru astez lehian ibili osten jendea oso-oso nekatuta zegoen, eta ikusten denez, nire prestakuntza dela-eta hobeto eutsi ahal izan diot honi guztiari.

**Pekingo Olinpiar Jokoetarako errazago sailkatu zinen.**

Bai, garbi ikusten da geroago eta jende gehiago dabilela kirol honetan, eta denok nahi dugula Londresen egon. Errusian, esaterako, maila oneko bi borrokalari badaude euren ez den beste lurralde batengatik fitxatzen dute; halakoak ere badaude (barre). Jende berri asko egon da, eta ondo prestatutakoak.

**Iazko urtean belauneko lesio larria izan zenuen. Zer moduz? erabat errekuiperatuta?**

Beno, buruan behintzat lesio horrek ez du eraginik izan. Ebakuntzaren ostean ondo egin nuen errekuiperazioa, ez nuen inolako



Maidar Unda, eguaztenean, baserriko gimnasioan. | IRATI GOITIA

arazorik izan, eta alde horretatik zorte handia izan dut. Aurten belaunak ez dit inongo buruhausterik eman.

**Txartela eskuan izanda, zer duzu orain buruan?**

Orain momentuan atsedean hartzea, lehen esandako moduan azken asteak gogorrak izan direlako. Eta ondoren, poliki-poliki Lon-

dreserako prestatzen hasiko gara, batez ere gorputza zainduz. Izan ere, garrantzitsuena hitzordua horretara ondo iristea da.

**Gorputzaldi ahalik eta onenean, alegia.**

Batez ere fresko. Eta ondo jakinda helburu berdina lortzeko jende asko ibiliko garela borrokan.

**PILOTA**

## Martitzenean jokatuko dituzte Bergara Hiriko finalerdiak

X.U. | BERGARA

Bergara Hiria Txapelketa azken fasean sartzen dabil, eta datorren martitzenean jokatuko dituzte, 19:30ean hasita, finalaurrekoak.

Txapelketako nobedade pozgarrietako batek aurrera egitea lortu zuen martitzeneko kanporaketan, kadete mailakoa izan arren gazte mailan lehian dabilen Jokin Altunak eta Imazek 22-11 irabazi zitelako Gokolea eta Cordoni. Nagusietan, berriz, Alvaradok eta Bolinagak ezin izan zuten Uzkudunen, eta batez ere, Bixintxo Bilbaoren jokorekin (22-11).

Martitzenean, gazteen finalerdietako baten Ortiz eta Ibarrondok Sarasti eta Imazen kontra jokatuko dute. Nagusietan, berriz, Elezkanok eta Diezek Jakaren eta Peñasen kontra neurtuko dituzte indarrak.

**Beñat Rezusta, txapeldun**

Bestalde, Beñat Rezusta pilotari bergararra irabazi zuen asteburuan, 22 urtez azpikoen kategorian, GRAVN txapelketa. Bergarako ezkerak 22-11 irabazi zion Oronoz. Bikoteka, berriz, Ibai Bolinaga arrasatearrak eta Arrietak erreposo galanta jaso zuten (22-1).



Cory Richards mendizalea, Cold lanean. | CORY RICHARDS

**MENDIA**

## Menditour film emanaldia ekarriko du Besaidek maiatzaren 15ean

X.U. | ARRASATE

Maiatzaren 15ean abenturazko puntako hiru film emango dituzte Amaia Antzokian (20:30) Menditourren barruan (bazkideek 4 euro; gainontzekoek 5 euro).

Mendi eta abentura zinerik onenaren barruan *Solitaire*, *Cold* eta *Fly or die* lanak erakutsiko dituzte. Lehenengo lana muturrezko eskiatzaile talde baten gainekoa da, Argentinako Las Leñas legendariotik abiatuta, bi urteko bidaia bakartia erakutsiko du, Txileko Patagoniaraino.

*Cold* lanak, berriz, zortzimilako batera Simone Morok, Denis Urubkok eta Cory Richards-ek neguan egindako espedizioa erakusten du. Coryk uneoro graba-

tu zuen igoera, emaitz ikusgarria lortuta.

Azkenik, *Fly or die* lanak Dean Potter-en bi pasioak erakusten ditu, eskalada askea, eta Base jauziak. Sokarik gabe eskalatzea eta erorketa arintzeko paraxuta eramatea, hara hor gakoak.

**Maiatzeko ekintzak**

Bestalde, Besaidek bi mendi irteera antolatu ditu maiatzarako. Maiatzaren 19ko eta 20ko asteburuan Alto Carrionera joango dira (izenematea hilak 14 eta 15) eta Maiatzaren 27an Karrantzara, Molinarretik Ubal mendatera. Gogoratu ekainaren 3an egingo duten Aiba! mendi martxarako izenematea zabalik dagoela.

**ESKUBALOIA**

## Ford Mugarrik Elxen izango du mailaz igotzeko azken aukera

Joan den asteburuan Gijongo igoera fasean bigarren sailkatu ostean –lehenengoa igotzen zen–, Ford Mugarrikoek beste aukera bat izango dute kategoriaz igotzeko. Baina bidaia luzea egin beharko dute. Hala, datorren asteburuan Elxen (Alacant) jokatu du Arrasateko taldeak fase berria. Ford Mugarrikoek lehenengo partidua hilaren 18an izango dute Valladolideko taldearen aurka eta bigarrena, berriz, Elxeko taldearen kontra, hilaren 19an.

**TRIATLOIA**

## Mikel Muxika Euskadiko txapeldun 23 urtez azpikoen

Bergarako atleta 23 urtez azpikoen kategorian izan zen Euskadiko txapeldun, joan den asteburuan Bermeon egin zuten lasterketan. Triatloi lasterketa esprint distantziakoa izan zen, eta ez zen Antxintxikako ordezkarien artean lan ona egin zuen atleta bakarra izan, Ritxar de Goñi laugarren izan zen-eta maila absolutuan. Gainera, tarte oso txikiagatik ez zen podiumera igo. Antxintxika Triatloi taldea hirugarren izan zen taldekako sailkapenean.

vibike  
bikes & triathlon

Zure ziklismo, running eta triatloi esparrua Gasteizen.

Parking propioa. 400 m<sup>2</sup>ko erakusketa zure zain.



Bergarako Atea 24 • Gasteiz • www.vibike.com

**FUTBOLA**

**Beste 'match ball' bat gainditu beharko du Mondrak bihar**

Duela aste batzuk inork gutxi sinistuko zuen liga amaitzeko hiru jardunaldi geratuta Mondra bizirik egongo zenik. Eta halaxe dago. Joan den astean Irundik urrezko puntua ekarrita, bihar (16:30) beste *match ball* bat izango dute Tolosaren kontra. Horrez gain, ikusi egin beharko da Aloña Mendik mesedetxo egiten dion talde zuri-moreari, Elgoibarri irabazita. Orain, bi puntura dago Hondarribia eta puntu batera Elgoibar.

**TXIRRINDULARITZA**

**Gazte mailako Arantzazuko 43. igoera egingo dute zapatuan**

Bihar, Portalekuatik-Oñatin-irten eta zuzenean Arantzazurako bidea hartuko dute lehenengo eta bigarren urteko gazteek. Lasterketa 16:30ean hasiko dute, eta helmuga, urtero moduan, Sindika gainean egingo dute, Arantzazun. Iaz Mikel Aristi izan zen azkarrena (Bidasoako lehen etapan gipuzkoar onena izan zen Bergarakoa, atzo). Ulma taldetik Mikel Fernandez, Iñaki Mugartza, Unai Arabaolatza eta Iker Arkauz irteera puntuan izango dira.



FUTBOLA

ENEKO AZKARATE

**Errege Kopan izan beharko du**

Ibarreko Athleticzaleak burumakur erretiratu ziren etxera, Atletico Madril taldearen kontra finala galdu ostean (3-0). Herri guztietan badira Athletic gertu-gertutik jarraitzen duten tabernak, eta bertan batu ziren zale asko. Errege Kopako finalean atera beharko dute arantza.



ZIORTZA MARTIN

**ASTEBURUKO HITZORDUAK**

**FUTBOLA**

**LEHENENGO MAILA**

Reala-Valentzia  
Zapatua, 20:00. Anoeta.

**GAZTEEN EUSKADIKO FED.**

Aretxabaleta-Ariznabarra  
Domeka, 16:30. Ibarra.

**OHOREZKO ERREGIONALA**

Elgoibar-Aloña Mendi  
Zapatua, 15:45. Mintxeta.

Bergara-Anaitasuna  
Zapatua, 16:30. Agorrosin.

Mondra-Tolosa  
Zapatua, 16:30. Mojategi.

Urola-Aretxabaleta  
Zapatua, 16:00. Argixao.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**

Zestoa-Antzuola  
Zapatua, 17:30. Elorri.

Aretxabaleta B-Orioko  
Zapatua, 17:30. Ibarra.

**ERREGIONALA, IGOERA**

Lazkao-Mondra B  
Zapatua, 16:00. Karla Lekuona.

**LEHEN ERREGIONALA, KOPA**

Trintxerpe B-Aretxabaleta C  
Zapatua, 15:30. Trintxerpe.

**GAZTEEN OHO. IGOERA FASEA**

Bergara-Aurrera  
Domeka, 16:30. Ipintza.

Kostkas Miren-Aloña Mendi  
Zapatua, 15:30. Matigoxotegi.

**GAZTEEN OHO. KOPA ETA JAL.**

Oiarzun-Mondra  
Zapatua, 16:30. Karla Lekuona.

**OHOREZKO KADET. KOPA**

Aretxabaleta UDA-Billabona  
Zapatua, 12:30. Ibarra.

Aloña Mendi-Kostkas  
Zapatua, 16:30. Azkoagain.

Bergara-Beti Gazte  
Domeka, 12:00. Ipintza.

**EMAKUMEZKOAK, IGOERA**

Arizmendi-Ostadar  
Zapatua, 15:30. Ibarra.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**

Eskoriatza-Ventanas Isu  
Domeka, 10:30. Manuel Muñoz.

**GIPUZKOAKO BIGARREN M.**

Eskolapiok-Aretxabaleta  
Zapatua, 18:30. Tolosa.

**ESKUBALOA**

**GIPUZKOAKO KOPA**

Ford Mugari-Elgoibar  
Zapatua, 18:00. Iturripe.

**LEHEN LURRALDEKO KOPA**

Izarraitz Aloña-Urola Lazti  
Zapatua, 17:45. Zubikoa.

Ordizia-Arrasate  
Domeka, 12:15. Ordizia.

**SENIOR NESKAK, KOPA**

Elgoibar-Aloña Mendi  
Gaur, 20:00. Ermua.

**GAZTEAK, KOPA**

Bergara-MU Lingua Aloña  
Domeka, 13:00. Bergara.

Talleres Chapime Arras.-Eibar  
Zapatua, 16:00. Iturripe.

**SASKIBALOA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**

San Ignacio-MU  
Zapatua, 20:00. Iruñea.

**GAZTEAK PARTAIDETZA**

Grupo Zaher-Aloña Mendi  
Zapatua, 10:45. Azpeitia.

**KADETE GIZONEZKOAK**

Soraluce Bergara-EPI Kristal  
Domeka, 11:30. Labegaraieta.

**GIZONEZKO PARTAIDETZA**

MU B-BKL A  
Zapatua, 10:00. Musakola

**MENDIA**

**MENDI TOUR**

Maiatzak 15, 20:30ean Amaia Antzokian. *Solitaire, Fly or die* eta *Cold* lanak ikusgai.

**TXIRRINDULARITZA**

**ARANTZAZUKO IGOERA**

Zapatua, 16:30. Oñatin.

**KARATEA**

**OÑATIKO KARATE**

**SHOTOKAN TXAPELKETA**

Zapatua, 16:00. Zubikoa.  
Oñatiko, Bergarako eta Elgetako karatek bakuko dira.

**ATLETISMOA**

**OTALA ZELAI KROSA**

10:00etan gazteboak,  
11:00etan nagusiak.

**PILOTA**

**BERGARA HIRIKO**

**FINALERDIAK**

Asteartea, maiatzak 15, 19:30ean udal pilotalekuan.

**SIMS**  
**SERVIMASA**  
Sukaldeko altzariak eta osagarriak



**blum** **FRANKE** **GRUMAL**  
**LOGISIETE** **KESSEBÖHMER**

**BERGARA**  
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa  
Tel.: 943 76 19 95 Faxes: 943 76 07 49  
E-posta: [bergara@servimasa.com](mailto:bergara@servimasa.com)

**LEZO**  
103 industria poligonoa  
Tel: 943 52 05 00 Faxes: 943 515757  
[www.servimasa.com](http://www.servimasa.com)

**ETXETRESNA ELEKTRIKOETAN PREZIO BEREZIAK**

	<b>Garbigailu integragarria, AWM 129</b> • A klasea • 7 kiloko karga • 1.200 b/min	Prezio garbia, RAEE barne: <b>447,65€</b>
	<b>Ontzi-garbigailu integragarria, LFTA 2164 (60 cm)</b> • A/A/A+ klasea • Zarata maila: 47 db ½. • Karga automatikoa	Prezio garbia, RAEE barne: <b>410,80€</b>
	<b>Combi EBQH 20223 F -No Frost totala-</b> • A+ klasea • 200x60x65,5 (AlxZabxFon)	Prezio garbia, RAEE barne: <b>685,20€</b>
	<b>Labe pirolitiko -Newstyle linea-</b> • A klasea • Pirolitiko	Prezio garbia, RAEE barne: <b>425,86€</b>
	<b>Indukzio-plaka, Kic 631 TB -biselatua-</b> • 3 zona, zona hirukoitza Booster 4000 w-rekin, Touch Control • (TB biselatua)	Prezio garbia, RAEE barne: <b>345,80€</b>
	<b>Mikrouhin-labea, MIC 201 EX</b> • 20 litro, 32 zm-ko hondoa, • Altzairu herdoilgaitza, arrastoen aurkakoa	Prezio garbia, RAEE barne: <b>175€</b>

# KULTURA

## Gure betiko ipuinak, bertsoetan

Gaur, egubakoitza, aurkeztuko dute DVDa Oñatiko kultura etxeko zinema aretoan, 18:30ean

MAIDER ARREGI | OÑATI

Ipuin klasikoak eta bertsoarritza, lehen aldiz, bat eginda datoz *11 Kantatzeko* DVDan. Bi urteko lanaren ostean, fruitua jaso dute. "Unax semea bazetorren, eta bertsoekin lotuta zerbait egiteko ideia etorri zitzaidan. Bertsoarritza eta ipuin klasikoaren arteko zubia egitea erabaki nuen. Burura etorritako ipuin klasikoak bertsoetan kantatzea, alegia. Hala xe sortu zen 11 ipuin beste horrenbeste bertso-sorta bilakatzeko proiektua", azaldu digu Urko Egaña bertsolariak. "Helburuen artean, euskara bultzatzea, bertsoarritza eta literatura batzea eta umeen eta gurasoen arteko harremana eta komunikazioa indartzea daude", dio.

Leire Derteanok egin du ilustrazioa: "80-90 bat marrazkiz osatutako lana da, guztiak akuarela teknikaz eginak. Ukitu pertsona-



Amozarrain, Egaña eta Derteano. | M.A

la eman nahi nien marrazkiei. Antton Iztuetak animazioa egin du; marrazkiei bizia eman die".

Olatz Amozarrainek musika jarri dio proiektuari "Oskarrekkin doinuak adostu nituen; ipuin bakoitzari nortasuna eman nahi genion, eta istorioaren arabera melodia egin". Denetariko doinuak: "Xabier Lete eta Mikel Laboa musikariaren gitara doinuak, Oñatiko jentilak, kaxoi flamenkoa... estilo askok aberasgarritasuna emateko. Umeei begira egindako lana da, belarria iturri ezberdinetara zabaltzeko", kontatu digu. Esan behar da Amelingo txistulariaren doinua Amozarrainek berak egindakoa dela.

### Karaokea

"Lanak bi alde ditu: batetik, marrazki animatuek eta bertsoek osatutako ikus-entzunezkoa; eta bestetik, karaokea. Olatzek txirula jotzen du kantu guztietan", azaldu digu Egañak. Iñaki Olalde eta Ezoz Soba oñatiarrek ahotsa ere sartu dute. Narratzaile lanak Egañak berak egin ditu. Hasieratik liburua egitea zen asmoa, eta helburu horri eutsiko diote orain. Aurkezpena gaur Oñatiko kultura etxean, 18:30ean. *11kantatzeko.com*-en duzue aurrerapentxo.



### Txanogorritxo

*Txanogorritxo deitzen zioten neskato baten pasartetxo bat daukat zuentzako. Neska hau beti zen prest enkargutarako, ta beti prest amaren esanetarako; maitagarria eta zintzoa zelako.*

### Pinotxo

*Italiako herri batean bazen Gepeto izena zuen arotz bat, oso jatorra, ta langile fina zena. Behin egurrezko panpin bat egin zuen, oso nabarmena! Ez izan arren izan nahi zuen semea zirudiena.*



### Mari Errauskin

*Behin bazen gizon alargundu bat bere alabarekin, ezkondu zena bi alaba zeuzkan andre txar batekin. Aita urrun lanean fin, ta alaba Mari Errauskin etxe zuloan (maite ez zuten beste hirurekin).*

### Sant Jordi eta herensugearen kondaira

*Istoriotxo bat kontatzena nihoakizue ri-rau, Catalunya yako Mont Blanc herrian kokatzen da kondaira hau. Sant Jordik egin zuen balentri hark oraindik zutik dirau, eta ni behintzat entzun orduko oilo ipurdiz jartzen nau.*







Andueza, Donostiako Elkarren, aurkezpen egunean. | ELKAR

## Gaztetxoendako eleberria kaleratu du John Anduezak

'Larunbatean Bukowskin' izeneko eleberria aurkeztu zuen martitzenean Donostian

G.A./U.A. | ARRASATE

1966an Oregonen –Amerikako Estatu Batuetan– jaio zen John Andueza, Arrasaten bizi izan da txikitatik eta Elgetan du bizitokia egun. Denbora luze egon da literatura egin gabe, baina ez idatzi gabe, telebistan eta zinean laburrak nahiz dokumentalak egiterakoan gidioiak idatzi egin behar izaten direlako, eta berdin kronikak kazetaritzan. Orain tokatu da, hori bai, idazte prozesu horretan berriz ere literaturari eustea.

Nobelaren generoa aukeratu du, hori delako irakurtzeko gehien gustatzen zaiona Anduezari berari. *Larunbatean*

*Bukowskin* da bere lehen liburuaren titulua eta 15 urteko neska-mutil koadrila baten kronika "martxosoa" egiten du, euskaraz.

### Gazteendako

Elgetan sortu zen ideia, gazteei zuzendutako lanen artean, bertan eta euskaraz sortutakoan falta sumatuta. Hasieratik garbi izan du helburua: gazteak identifikatuta sentituko diren liburu bat egin gura izan du, eta lortu duelakoan dago; gus-tura geratu da emaitzarekin.

Elkar argitaletxearekin kaleratu du liburua eta 15 eurotan dago salgai.

## Eskoriatzan egingo da Eskolarteko Bertsolari Txapelketako kanporaketa maiatzaren 18an

Maiatzean abiatu dira herrialdeetako Eskolarteko Bertsolari Txapelketak. Idatzizko sariketetan zein bat-bateko saioetan parte hartzeko aukera izango dute 18 urte bitarteko haur eta gazte-txoek. Gipuzkoari dagokionez, maiatzaren 4an egin zen lehen saioa Hernanin eta finala ekainaren 1ean izango da Andoainen. Lau kanporaketa izango dira guztira eta horietatik bat Eskoriatzan izango da maiatzaren 18an, Almen ikastolan: 15:00etan egingo da idatzizkoa eta 16:00etan bat-batekoa.

# 'Ekaitza' filma, Huhezinemako Euskarazko Film Labor Onena

Film Labor Onenaren saria eta Produkzio Onenarena jaso ditu 'She's lost control' film laburrak; ikasleek egindako film onena 'Maskarak' izan da

USOA AGIRRE | ARRASATE

Martitzenean hasi zen Euspot lehiaketako sari-banaketarekin eta atzo, eguna, amaitu zen aurtengo Huhezinema, Euskal Film Laburren V. Jaialdia. Aurrez epaimahaiak aukeratu-tako 10 finalisten lanak erakutsi zituzten Aretxabaletako Arkupe kultura etxean eta ondoren egin zen sari-banaketa ekitaldia. Eguaztenean, berriz, ikasleen lehiaketara aurkeztutako dokumental eta fikziozko lanak erakutsi zituzten Huhezine eta Asier Altuna zinegilearen hitzaldia izan zen ondoren.

Epaimahaiak hala erabakita, *Ekaitza* film laburrentzat izan da aurtengo Euskarazko Film Labor Onenaren saria (Goiena saria); 1.000 euro jaso ditu Alberto Gastesi zuzendariak. Donostia euritsu eta hotz batean kokatua dago filma, eta neska eta mutil bat kalean gurutzatzean sortzen da istorioa.

Film Labor Onenaren saria eta Produkzio Onenarena (Eiken



Ekaitza filmeko une bat. | HUHEZINEMA

saria) film bakarrak jaso du, Haritz Zubillagaren *She's lost control*-ek. 600 euro eta urtebeteko Eikenerako bazkidetza kuota irabazi ditu.

Ikasleen lehiaketari dagokionez, epaimahaiak *Maskarak* filmari eman dio saria: 500 euro jaso dituzte Ander Bolibarrek,

Ariane Irazustak, Miren Ormazabalak eta Oihan Vitoriak.

### Epaimahaia

Aitor Gutierrez eta Maialen Sarasua errealizatzaileek, Beñat Sarasola idazleak eta Miguel Gomez-Tejedor ekoizleak osatu dute aurtengo epaimahaia.



Irabazleak sariekin, antolatzaileen ondoan. | USOA AGIRRE

## Iruñeko Iñaki Lasarena, euskarazko spotik onena

Iñaki Lasak egindako *Merkataritzan erabilera da balioa* izeneko spotak jaso du Euspot euskarazko spot lehiaketaren lehenengo edizioako sari nagusia. Ondorioz, 1.800 euroko saria jaso du Lasak. MUko lanik onenaren saria, berriz, Pototan hitza

taldearendako izan da *Bai jolasten eta bai erosten, euskaraz nahiago* izeneko spotarekin; 800 euro irabazi dute. Ikusleen saria, berriz, Kapikua taldearendako izan da *Erosi euskaraz, bizi euskaraz* spotarekin; 500 euro jaso dituzte horiek.

EUJSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# Natura lanbide

Nekazaritza eta itsas-arrantza prestakuntza

ETORRI GURE ATE IREKETAHA!

**16** MAIATZA 16.00

DERIO ARKAUTE FRAISORO ONDARROA PASAIA BERMEO

**26** MAIATZA 11.00

PASAIA

Izen-ematea: maiatzaren 28tik ekainaren 8ra

NEKAZARITZA ESKOLAK

	erdi mailakoak	goi mailakoak
<b>Arkaute</b> (Araba)	LOREZANTZA ETA LORADENDA NEKAZARITZA EKOIZPEN EKOLOGIKOA	PAISAJINTZA ETA LANDA-INGURUNEA
<b>Derio</b> (Bizkaia)	LOREZANTZA ETA LORADENDA NEKAZARITZA EKOIZPEN EKOLOGIKOA	BASO KUDEAKETA ETA NATURA INGURUNEA
<b>Fraisoro</b> (Gipuzkoa)	LOREZANTZA ETA LORADENDA NEKAZARITZA ETA ABELTZANTZA PRODUKZIOA	BASO KUDEAKETA ETA NATURA INGURUNEA

ITSAS-ARRANTZA ESKOLAK

	erdi mailakoak	goi mailakoak
<b>Pasaia</b> (Gipuzkoa)	ARRANTZA ETA ITSAS GARRAIOA ITSASONTZITAKO MAKINEN ETA INSTALAZIEN OPERAZIOA, KONTROLA ETA MANTENTZE-LANAK	NABIGAZIOA, ARRANTZA ETA ITSAS GARRAIOA ITSASONTZITAKO MAKINEN ETA INSTALAZIEN IKUSKAPENA ETA KONTROLA
<b>Bermeo</b> (Bizkaia)	ARRANTZA ETA ITSAS GARRAIOA ITSASONTZITAKO MAKINEN ETA INSTALAZIEN OPERAZIOA, KONTROLA ETA MANTENTZE-LANAK	ITSASONTZITAKO MAKINEN ETA INSTALAZIEN IKUSKAPENA ETA KONTROLA
<b>Ondarroa</b> (Bizkaia)	ARRANTZA ETA ITSAS GARRAIOA ITSASONTZITAKO MAKINEN ETA INSTALAZIEN OPERAZIOA, KONTROLA ETA MANTENTZE-LANAK	NABIGAZIOA, ARRANTZA ETA ITSAS GARRAIOA ITSASONTZITAKO MAKINEN ETA INSTALAZIEN IKUSKAPENA ETA KONTROLA

www.itsasmendikoi.net

# LEINTZ GATZAGA **ESKORIATZA**

**EUSKAL HERRIA** ALDIZKARIAK AURKEZTEN DU

## MUNDUKO KULTUREN FESTA



**DE  
BA  
GO  
IE  
NA**

**MAIATZAK**  
**18**  
**19**  
**20**

### KONTZERTUAK

RICHARD BUCKNER

**ESNE BELTZA**

ANARI

**LA PEGATINA**

KILEMA

**BIZARDUNAK**

GAFIEIRA MIÚDA

PATTA TA SENDAEZINAK

MUTÜRBELTZ

EEUU

EUSKAL HERRIA

EUSKAL HERRIA

CATALUNYA

MADAGASKAR

EUSKAL HERRIA

BRASIL

EUSKAL HERRIA

EUSKAL HERRIA



**EKOFERIXA**

PRODUKTU  
EKOLOGIKOEN  
ETA SLOW FOOD  
GASTRONOMIAREN  
AZOKA

**UMEEN GUNEA**

-ARTISAUTZA ETA  
MUNDUKO ZAPOREAK  
- ELKARTASUN  
FOROA- **KALE**  
**ANIMAZIOA...**



**i 902 181 471**

[WWW.MUNDUMIRAFESTA.COM](http://WWW.MUNDUMIRAFESTA.COM)

[info@mundumirafesta.com](mailto:info@mundumirafesta.com)

ANTOLATZAILEAK

**EUSKAL HERRIA**

[www.euskalherria-aldizkaria.com](http://www.euskalherria-aldizkaria.com)



BABESLE NAGUSIAK



BABESLEAK



KOLABORATZAILEAK







## JAUNARTZEA



## Naroa Elorza Bikuña

Naroa Elorza Bikuña maiztaren 13an jaunartzea egingo du. "Familiarekin ospatuko dugu. Patxo asko, polit hori, eta ondo ibili!". Urtzi eta Sandra.

## EZKONTZAK



## Iñaki eta Olatz

"Zubizarreta'tar Olatz eta Amutxategi'tar Iñaki maiztaren 5ean ezkondu ziren Zarautzen. Eskerrik asko, bikote, emandako ezkontzagatik. Zoriontsu izan zaitzete! Hala fede, hala fede, hala fede!". Olatzen lagunak.



## Marcos eta Maider

Marcos Escribano eta Maider Lopez maiztaren 12an ezkonduko dira. "Zorionak, bikote, familiaren eta lagunaren partetik! Oso ondo pasatu ezkontza egunean eta Hegoafrikan! Zoriontsu izan!".




## Itziar eta Jon

Itziar Kortabarria oñatiarra eta Jon Garate azkoitiarra Azkoitia-ko Urrategiko ermitan ezkonduko dira maiztaren 12an. Zorionak, bikote, eta zoriontsu izan etxeko eta lagunaren partetik.

## HILDAKOAK

- Modesta Ruiz de Alegria Balanzategi.** Arrasaten, maiztaren 1ean. 93 urte.  
**Jesus Alsamendi Garmendia.** Arrasaten, maiztaren 2an. 73 urte.  
**Margarita Munita Urkia.** Arrasaten, maiztaren 5ean. 86 urte.  
**Julia Urzelai Lizarralde.** Oñatin, maiztaren 5ean. 76 urte.  
**M. Dolores Osinaga Murua.** Arrasaten, maiztaren 6an. 88 urte.  
**Atxen Aguriondo Salaberri.** Arrasaten, maiztaren 6an.  
**Jose Mari Sasieta Bolinaga.** Bergaran, maiztaren 6an. 77 urte.  
**Ignacio Gabilondo Ayastuy.** Bergaran, maiztaren 7an. 79 urte.  
**F. Javier Egaña Jauregialzo.** Oñatin, maiztaren 9an. 70 urte.  
**Aurora Perez Ramila.** Bergaran, maiztaren 9an. 93 urte.

## ESKER ONA



## Julia Urzelai Lizarralde



Oñatin hil zen 2012ko maiztaren 5ean.

Lerro hauen bidez Juliaren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Oñatin, 2012ko maiztaren 11n.

## ESKER ONA

## Markel Balanzategi Ayala



Gasteizen hil zen 2012ko apirilaren 30ean, 24 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2012ko maiztaren 11n.

## URTEURRENA



## Felipe Alcelay Irazola



Bergaran hil zen 2011ko maiztaren 13an, 89 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, maiztaren 13an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko etxeko izenean.

## URTEURRENA

## Iñaki Altube Kortabarria



Lehen urteurreneko meza zapatuan, maiztaren 12an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## URTEURRENA

## Felix Salamanca Osuna



2011ko apirilaren 28an hil zen, 78 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, maiztaren 13an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko etxeko izenean.

## URTEURRENA

## Benita Mugika Alustiza



Lehen urteurreneko meza domekan, maiztaren 13an, 19:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## URTEURRENA

## Feli Larreategi Arenaza



2011ko maiztaren 8an hil zen, 78 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, maiztaren 13an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## OROIGARRIA

## Atxen Aguriondo Salaberri



2012ko maiztaren 6an hil zen.

Eskerrik asko zure adiskidetasun eta alaitasunagatik. Besarkada bat, Atxen.

Zure lagunak. Arrasaten, 2012ko maiztaren 11n.

## ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 126 euro.  
 Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.  
**Goiena: irakurriena Debagoienan.**

Babeslea:



Beilatokia  
 Etengabeko zerbitzua  
 Lore koroak  
 Eskelak  
 Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99  
 e-posta: euskalduna@harrespil.net



**ARRASATE Los Galerna**

Surfetik abiatu eta funk estilorainoko doinuekin, *Surfusion* diskoa aurkeztuko dute arrasatearrek. Ohiko kideez gain, Ibai Akizu taldekide berria aurkeztuko dute zuzenean. Saxofonia eta harmonika jotzen ditu hark, eta Los Galernaren soinuari aire berriak eman dizkio disko berrirako.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.



GOIENA



URBARAMA

**DEBAGOIENA Hiru tenpluen txangoa**

Mundumira jaialdiko egitarauaren barruan antolatuta du Oñatiko Aloña Mendi Elkarteak. GR-120 ibilbidetik, Loiola, Antiguako Ama eta Arantzazu lotuko dituzte. 45 kilometroko ibilbidea da. Izena emateko, 902 18 14 71 zenbakira deitu.

Bihar, zapatua, 06:00etan, lekua izena ematerakoan jakinaraziko da.

**MUSIKA****ARRASATE Bitter Honey eta The Cubical**

Liverpoolgo The Cubical taldeak indarra hartu du azkenaldian Europan. Gaztemaniak! ekimenaren barruan kontzertua eskainiko dute Bitter Honey Arrasateko taldearekin batera. Amaia antzokiko *hall*-ean izango da emanaldia.

Gaur, egubakoitza, Amaia antzokian 20:00etan.

**OÑATI Lan Banda del Abuelo**

Arrasateko taldeak Oñatiko Antton tabernan joko du, Euskadi Etorbidean.

Gaur, egubakoitza, Antton tabernan, 20:00etan.

**BERGARA Estankona eta Bertso-tavern**

Gaztetxeko patioa leku magiko bilakatu gura dute; horretarako, kandelak, kafea, txokolatea, tonika eta lanparak jarriko dituzte. Sarrera 3 euro.

Gaur, egubakoitza, Bergarako gaztetxean, 22:00etan.

**BERGARA Aritzeta eta Alai abesbatzak**

Aritzeta eta Alai abesbatzek kontzertua eskainiko dute Santa Marina parrokiari.

Bihar, zapatua, Santa Marina parrokiari, 20:00etan.

**ESKORIATZA Beaux Dagats taldearen emanaldia**

Beaux Dagats Londresko hirukotea da. 2005ean sortu zuten Riot Squad SA eta Michael Ryan Experience bezalako aspaldiko punk taldeetan ibilitako zenbait kideekin. Aitzorrotx kultur elkartearen jaiaren barruan joko dute.

Bihar, zapatua, Herriko plazan, 20:00etan.

**ANTZUOLA Euskal Herriko flauta orkestra**

Salvador Espasaren zuzendaritzapean joko du Euskal Herriko flauta orkestrak. Zeharkako xirula edo flautez gain, flauta kontrabaxua, flauta baxua, solen dagoen flauta eta xirula mota desberdinez osatutako kontzertua. Lan klasikoez gain, gaur egungo piezak ere eskainiko dituzte. 15 laguneko talde honek Alaitz Zabalo antzuolarra da partaide.

Bihar, zapatua, Torresorotan, 20:00etan.

**NON-ZER**

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Tel.: 943 25 05 05 | [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com) | Faxa: 943 25 05 00

MAIATZA 11  
MAIATZA 17

**BERGARA Azkater Pelox eta The Road Band**

*Zamburleiker 6.0* diskoa aurkezteko kontzertu berezia antolatuta dute Bergarako Laino skate parkean. 10 abesti berri batzen ditu diskoak.

Bihar, zapatua, Laino skate parkean, 22:30ean.

**BERGARA Musika eskolako haize eta soka taldea**

Udaleko osoko bilkuren aretoan eskainiko dute musika eskolako haize eta soka taldeak.

Etzi, domeka, udaletxeko pleno aretoan, 12:30ean.

**ARETXABALETA Gitarra eta konbo instrumentuen emanaldia**

Leizarra musika eskolako gitarra eta konbo ikasleek emanaldia eskainiko dute.

Maiatzaren 15a, martitzena, Arkupeko Zarea aretoan, 18:00etan.

**ANTZERKIA****BERGARA 'Zai beti zai'**

Oihulari Clown taldearen eskutik. Sarrera 5 euro.

Gaur, Zabalotegi aretoan, 22:00etan.

**ARRASATE 'Euslandia'**

Antzerkia, musika, filosofia eta poesia nahasten dituen emanaldia eskainiko dute Kulturaten. Concetta Probanza eta Miriam Luki taldeek jardungo dute.

Etzi, domeka, Kulturateko areto nagusian, 19:30ean.

**BERGARA 'Itsasminez' haurrendako antzerkia**

Txontxongilo taldearen eskutik *Itsasminez* haurrendako antzerkia izango da ikusgai. Sarrera, 3 euro.

Etzi, domeka, Zabalotegi aretoan, 18:00etan.

**DANTZA****ELGETA Erretiratuendako dantzaldia**

Udalak antolatuta Umore ona taldearekin.

Bihar, zapatua, Espaloia kafe antzokian, 17:00etan.

**ESKORIATZA Herrixa Dantzan plazan**

Adi egunari - zapatua - eta ordu-tegiari, ez baitira ohikoak. Hilaren 20rako zegoen aurreikusita

maiatzeko Herrixa Dantzan saioa, baina Mundumira jaia asteburu horretan jarri dutenez, aurreratu egin dugu. Aitzorrotx Kultur Elkartearen Egunaren baitan egingo dute dantzaldia, herriko plazan.

Bihar, zapatua, plazan, 13:00etan.

**OSPAKIZUNAK****ELGETA Bolatokiak sei urte**

Urteurrena ospatzeko bolo txapelketa eta festa antolatuta dituzte Bolatoki tabernan. Bolo txapelketa 23:00etan hasiko da eta herriko koadrilei zuzenduta dago. Izen-emateak egunean bertan egingo dira.

Gaur, barikua, Bolatoki tabernan, 23:00ean.

**ARETXABALETA Udaberri Jaia**

Arizmendi ikastolak antolatuta Udaberri Jaia ospatuko dute herriko hainbat txokotan. 10:45ean hasiko dira herriko plaza desberdinetan umeentzako eta gurasoentzako jolasak eta 12:00etan Talogintza tailerra eta euskal dantza gidatuak. 13:30ean trikitilari eta buruhan-

diekin kalejira eta ostean bazkaria. Arratsaldean umeentzako tailerrak, antzezlan musikatu eta txokolate beroarekin Argitxok eta Kukuak emango diote amaiera egunari

Bihar, zapatua, Arizmendiren Basabeazpi gunean, 10:30ean.

**ARETXABALETA Ojala Zelai eguna**

Ojala Zelai eguna ospatuko dute Aozaratza auzoko zelai ezagunean. 12:30ean animaliekin jolasak hasiko dira eta 13:00etan Leizarra eskolako trikitilarien emanaldia. 13:00etan paella txapelketa eta sagardo festa trikitilari eta bertsoariekin. Arratsaldean euskal disko festa eta dantzaldia egongo dira. Eguraldi txarra eginez gero, jaia Iturrigorri pilotalekuan ospatuko dute.

Etzi, domeka, Aozaratza auzoan, 10:00etan hasita.

**IRTEERA****ELGETA Bisita gidatua lubakietara**

Uztailera bitartean, domeka gutzietan. Beharrezkoa da aurrez izena ematea 943 71 89 11 edo 943 79 64 63 telefono zenbakietara deituz, edo [turismo@debagoiena.net](mailto:turismo@debagoiena.net) helbide elektronikora idatziz.

Etzi, domeka, Espaloiko interpretazio gunetik, 10:00etan.

**HITZALDIAK****ARRASATE 'Zero Zabor' esperientzia Europan**

Europako Zero Waste Europe taldeak bere urteroko kongresua Donostian egingo du. Gipuzkoa *Zero Zabor* norabidean hartzen ari den neurriek interesa sortu diete eta kongresua bertan egitea erabaki dute eta saioetako bat Arrasaten egingo da Joan Marc Simon, Zero Waste Europe-eko koordinatzailearekin.

Gaur, egubakoitza, Arimazubi ikastetxeko areto nagusian, 19:00etan.

**BERGARA Xamar eta Urbeltzen hitzaldiak**

Idazle Eskolak antolatuta Xamarrek *Euskara jendea: gure hizkuntzaren historia, gure historiaren hizkuntza* (Pamiela, 2006) liburua izango du hizpide,



MUSIKA ZUZENEAN





# goiena

2012-05-11

BUKATZEKO

## Europako pokerraren gailurrean

- ▶ Andoni Larrabe arrasatearrak 11. postuan amaitu du European Poker Tourra, 80.000 euro irabazita
- ▶ Apustu egiten urte eskasa badarama ere, Espainia mailan onenetakoa izatera heldu da

PEIO MADRID | ARRASATE

Joan den apirilaren 29an Andoni Larrabe arrasatearraren ametsa amaitu zen: European Poker Tourraren (EPT) azken partidarako klasifikatzea. Hamaikagarren postuan amaitu du, gainera, baina lehen zortziak dira finala jokatzeko pasea lortzen dutenak. Hala ere, oso lorpen garrantzitsua izan da Larraberentzat, ezagutzera eman eta 80.000 euroko saria lortu du-eta.

Andonik intentsitatearekin bizi du pokerra, jokoaren inguruko liburuak etengabe irakurtzen ditu, eta egunero egiten du apustu Interneten. Izan ere, pokerra da bere lanbide eta diru iturri bakarra: "Nire bizitza erdia da".

### Bat-bateko jokalaria

Telebista ikusten maitemindu zen Larrabe pokerrarekin; iragarki batekin, hain zuzen ere. Orduan interesa piztu, eta Interneten fikziozko diruarekin jolasten hasi zen. Diru faltuaren kontua azkar txiki geratu zitzaionez, baina, benetako diruarekin apustu egitea erabaki zuen. Bada, egun hartatik hona, hamalau hilabete pasatu dira, eta irabazi baino ez du egin.



Andoni Larrabe, jokoan, Montecarloko kasinoan. | EPT

2011n, Donostiako Deepstack Turbo txapelketan bigarren amaitu zuen eta orain, EPTn hamaikagarren postua lortu du. Partida birtualetan ere sekulako arrakasta izan du, 30.000 euro baino gehiago irabazi baititu. Larrabe jokalaria adimentsua da,

baina berak azpimarratzen duenez, "jolasa gogoko izatea da oinarrizkoena, adimena eta inteligentzia ondoren doaz. Hori bai, jokoan zortzak betetzen duen papera ez da inolaz ahaztu behar; azken baten, perfektua den inor ez da existitzen".

### Lorpenik handiena

Montecarloko txapelketa ez da beste poker txapelketen modukoa. Europako garrantzitsuenak da hori, tourrari amaiera ematen diolako. Poker jokalaria ohientzat, egutegian markatzeko gertaera horietako bat da, dudarik gabe, Munduko Txapelketari (WPT) soilik lehentasuna emanda. Montecarloko saria 1.300.000 euroko txeketa izan da aurtengoa, 25.000 eurotan baloratuta dagoen besoko batez gain.

Andoni Larrabek Interneti esker lortu zuen EPTrako pasea, sailkapen txapelketa baten bidez. Txapelketa horiek *satelite* izenarekin ezagutzen dira, eta, normalean, saria lehiaketa esanguratsuetarako sarrera izaten da. 60 jokalariko *satelite*-an pasea berak lortu, eta, ametsa izango balitz bezala, Montecarlo bidaia antolatzen zuen. "Ez nuen nire gorputza han sentitzen, burmuina kartetan zentratzen zen, baina ni beste leku batean nengoen. Amets bat bizi izan dut han". Andonik berak aitortu duenez, 80.000 euro irabaztea baino gehiago, garaipenetik hain hurbil geratu izana da gehien hunkitu duena. Zorionak, Andoni, zure lorpen erraldoiagatik!

### AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR



### Goiena eta Tokikom

2000. urtean eratu zen Goiena notario aurrean eta urte berean hasi ziren emaitzak: telebista bateratua, *Goienkaria* gehigarria, eta abar. Jauzi harekin sendotu egin zen Debagoieneko hedabideen ibilbidea, zetozen errorekei aurre egiteko.

Egitasmo hark bazuen bailaraz gaindi eragiteko borondatea. Gipuzkoan beste zazpi *goiena* sortzeko plana ere landu zen Aldundiarekin, nahiz azken orduan ez zen nahikoa indar metatu eta plana hustu egin zen.

Orain Tokikom dator egin-kizun horrekin, eta ez Gipuzkoarako bakarrik, baizik Euskal Herrirako. Hamarkada bat geroago toki hedabideak bateratzeko premiak hor zirauen, galdutako denborak eta krisiaren larriak areagotuta. Zorionez, oraingoan elkarlana posible izaten ari da eta bateratze bidean urrats esanguratsuak egin dira dagoeneko.

Egitasmo berriak asko jaso du Goienatik, orduan arrakasta izan zuenak oraindik balio baitu, gutxienez erreferentzia gisa. Eta asko jasoko du aurrerantzean ere, Goiena bazkide aktiboa izango delako Tokikom. Finean, kontua da toki hedabideetan, behintzat, hegemonia izatea helburu, hiztun komunitatearen mesedetan. Hain zuzen, Goienak egin duen bezala.



## MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

**AURRE-MATRIKULAK:** Maiatzaren 28tik Ekainaren 8ra  
**ATE IREKIAK:** Maiatzak 19, 11:00etan.

Ordutegia  
Maiatzak 28 eta 29, goizeko 10:00etatik 13:00etara.  
Maiatzaren 30etik ekainaren 8ra: 8:00etatik 14:30etara eta 15:30etatik 18:30etara.

Ibargarai, 1  
20570 Bergara  
943 76 38 40/943 76 24 91

www.imaltuna.com  
imaltuna@sarenet.es

